KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBVA Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

FILOSOFO PRESOKRATIKOAK

Filosofo Presokratikoak

Jatorrizko izenburua:

Euskaratzailea: *Javier Aguirre eta Felipe Juaristi*
Berrikuslea: *Cristina Lasa*
Hitzaurregilea: *Javier Aguirre eta Felipe Juaristi*

Lehen argitalpena: 2004ko azaroan

© Itzulpenarena: *Javier Aguirre eta Felipe Juaristi*
© Klasikoak, 2000
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-VI-23

ISBN: 84-88303-05-X
Lege gordailua: BI.-2745-04

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

I

Klasikoak bilduman presokratikoen zatiak argitaratzea berez da pozgarri filosofia maite dutenentzat, eta bereziki filosofia eta kultura grekoak miresgarritzat dituztenentzat. Pozgarri da, baiki, batetik, euskarari dakarkiolako mendebaldeko pentsamenduaren historiako atal oinarrizko bat. Hastapenez ari gara, ez beste ezertaz. Eta bigarrenez, pentsamendu presokratikoaren inguruan egon den eta dagoen ikerketa-tradizio luze eta zabala aberastera datorrelako argitalpen hau. Esan gabe doa tradizio horri filosofo greko klasikoek ekin ziotela, eta gaur egun arte iraun duela, eta oraindik ere badirauela.

*Metafisika*ren I liburukian, filosofiaren lehenengo historiatzat har daitekeena bera, Aristotelesek aurreko filosofia guztia aztertzen du, ikuspegi kritikotik aztertu ere, berak *Fisika*n oinarrizko dituen kausen doktrina irizpidetzat harturik beti ere. Aristotelesen filosofiaren ikuspegitik hasita, filosofiaren historia osoa gelditukо da, beraz, kausaren nozioak bildurik eta loturik. Haren iritzian, antzinako pentsalari guztiak hurbildu ziren, era ilunez hurbildu ere, berak *Fisika*n deskribaturiko kausa desberdinetara: lehen pentsalari joniarrek gauza guztien printzipio edo printzipioak materia hitzez izendatu zituzten. Enpedoklesek eta Anaxagorasek kausa eraginkorraren kontzeptua erabili zuten, eta Parmenidesek badirudi kausa formalaren kontzeptua irudikatu zuela. Baina haiek guztiak Aristotelesek buruturiko egitasmo handitik urrun gelditzen badira ere, azpimarragarriena da I

liburukian aztertutako autoreak filosofo gisa direla aztertuak eta ez poeta gisa, eta Aristotelesek bere kausen doktrinaren garapena joniar pentsamenduarekin hasitako prozesu luzearen amaiera moduan ikusten duela.

Hegelek ere bere sistema erraldoia filosofo joniarrekin hasitako prozesu luzearen amaieratzat hartuko du. Hegelen pentsamenduaren historia filosofo idealistaren errealitatearen ikuspegiaren isla da, sistema itxi, organiko eta dialektikoaren bidez deskribatzen duena. Hegelen filosofiaren historian pentsamendu presokratikoak honako aldi hau hartzen du bere baitan: «pentsamendu abstraktutik, bere determinabilitate berehalakoan harturik bera, nora eta bere baitan determinatzen den pentsamenduraino«, hau da, joniarrek ur, *apeiron* edo aire gisa izendatutako absolutu materialki determinatutik Anaxagorasek adierazitako Adimeneraino (*Nous*eraino). *Filosofiaren Historiari buruzko Ikasgaiak* izeneko liburuan miresmenezko hitzak eskaintzen dizkio Heraklitori, hark prozesu dialektikoa absolutu gisa sortu zuelako: «Azkenik, beraz, lehorra ikusten dugu; ez dago Heraklitoren baitan inongo proposamenik guk gero geure logikan jaso ez dugunik!«. Aristotelesen modura, Hegelek ere presokratikoak benetako filosofotzat hartuko ditu, ez poetatzat, eta pentsamendu joniarrarekin hasitako prozesu luzearen amaieratzat hartuko du bere sistema.

Nietzchek ere oso maitea du Heraklito eta, orokorrean, filosofia tragikoa. Haren lehendabiziko obran, alegia *Tragediaren Sorkuntza*n, Nietzschek bere pentsamendua azalduko du, ez kontzeptuak, baizik eta poesia eta filosofia grekotik hartutako kategoria estetiko sinbolikoak baliatuz. Nietzschek senaren defentsa egingo du arrazoimenaren aurka eta, era berean, Sokratesen eta tradizio metafisikoaren aurka. Bilakaeraren baieztapena ere egingo du. Hori guztia tradizio presokratikotik hartutako mundu ikuskera besterik ez da. Horrela, bada, Talesengan den ororen batasunaren suma ikusiko du, uraren bidez adierazia. Anaximandroren *dike* eta *adikia* irudietan, esanahi moralak ikusiko ditu, gauza bakoitzak bere izateagatik duen erruduntasunaren adierazle. Baina gertuen sentitzen duen pentsalaria Heraklito du: bilakaeraren suma inozoa, izaki egonkor eta betikoaren ezeztapena, bilakaera errealitatearen benetako neurritzat hartzea edo aurkarien arteko lehia etengabea dira, Efesoko filosofoaren tesiak izaki, Nietzschek erabat onartuko dituenak.

Luza genezake filosofo presokratikoei beren begia eman dieten pentsalari garaikideen zerrenda: batzuk beren pentsamenduaren sustraien bila abiatuak, hala Nietzsche nola Heidegger; besteak alor zehatz baten bila, hala nola Marx, Popper edo Feyerabend. Azken ondorioa paisaia ñabar eta erakargarria dugu, gogoetez eta poesiaz beterikoa, gure tradizioko lehen pentsalarien gaurkotasunaren erakusle.

II

Gaur egungo helenismoak sortutako eztabaida handietako bat da zein den pentsamendu presokratikoak duen tokia antzinako tradizio grekoaren aldean; adituen erantzunak anitzak dira: batzuek diotenez pentsamendu presokratikoak hautsi egin zuen tradizioarekin; beste batzuek, ordea, bataren eta bestearen arteko jarraikortasuna aldarrikatzen dute; eta arazo horrekin oso loturik, ikuspegi zientifiko naturalistaren eta ikuspegi mistiko erlijiosoaren artean jarri da pentsamendu presokratikoaren interpretazioa. *Pentsamendu grekoaren egunsentia* (1908) izeneko lanean, klasikoa bestalde, J. Burnetek erabateko haustura defendatu zuen. Burneten iritzian, filosofiak Miletoko Talesekin izan zuen hasiera, mirari baten bidez. Delako miraria Greziako herriak zuen ikusmenari eta arrazoimen ahalmenari esker gertatu omen. Bere aldetik, B. Farringtonek *Zientzia Grekoa* liburuan pentsamendu presokratikoaren arrazionaltasuna defendatu zuen, lehen filosofo joniarrak barne. Helenista irlandarraren iritziz, pentsamendu mitikoarekin izan zen haustura, VIII eta VI mendeen artean gertatu zena, teknikaren garapenak ahalbideratu zuen.

Burneten eta Farringtonen aurka, F. M. Cornfordek *Erlijiotik Filosofiara* (1912) eta *Principium Sapientiae* (1952an argitaratua baina h. 1930ean idatzia) liburuetan defendatu zuen pentsamendu presokratikoa oso loturik zegoela erlijio eta mitologia grekoarekin. Cornforden iritziz, diskurtso joniarrak ez du zerikusirik garaikideok zientzia deitzen dugun horrekin; izan ere, fisika presokratikoan esperimentaziorik edo kontrastatzerik egon denik ukatzen du eta filosofia joniarraren jatorri mitiko eta errituala defendatzen. Biak ala biak, diskurtso mitikoa eta joniarra, sorkuntzako arazo bera zuten gai: nola sor daitekeen kaosetik mundu ordenatu bat adieraztea; galdera horren aurrean biek ala biek erantzun antzekoa eman zuten, ikuspegi formaletik begiraturik, eta oso

antzekoa, edukien aldetik begiraturika. Hala, bada, Burnet eta Farrington bezalako autore hausturazaleen aurka, miraria eta grekoen sena azpimarratzen dutenen aurka, pentsamendu presokratikoak mitoaren eta erlijioaren iturburura jo zuela azaltzen du Cornfordek. Horren adibide dugu Hesiodoren eta Anaximandroren kosmogonien arteko antzekotasuna:

Hasieran kaosa zen. Gero, Gea bular-zabalak, Olinpoko gailur elurrez estalian bizi diren Hilezkorren etxe beti segurua. Bide askotako lurraren azpian tartaro itzalpekoa. Azkenik Eros, Hilezkorren artean ederrena, gorputz-atalak lasaitu eta bai jainko guztien eta bai gizon guztien bihotza eta borondate zentzuzkoa bere bularrean askatzen dituena. Kaosengandik sortu ziren Erebo eta Gau Beltza. Gauarengandik, era berean, eterra eta Eguna, zeinak sortu baitzituen Ereborekin maite-lotura izan ondoren. Gea lehendabizi Urano izartsuaz erditu zen, bere neurriekin, hark alde guztietatik ingura ziezaion eta horrela izan zedin jainko zoriontsuen etxe segurua. Mendi handiez ere erditu zen, jainkoen etxe eztitsua eta mendi basotsuetan bizi diren Ninfez ere bai. Bera ere Pontoz, uhin haserreen itsaso antzuaz, erditu zen. (*Teogonia*, 116-132)

Sinpliziok bere *Fisika*n era honetan jasotzen ditu Anaximandrok munduaren sorreraz esaten dituenak:

Anaximandrok esan zuen «printzipioa«, izakien elementua, mugarik eza dela, eta bera izan zen aurrena printzipioari halako deiturra jarri ziona. Printzipioa ez dela ez ur ezta elementuren bat ere, dio, izaera desberdinekoa baizik, alegia mugagabea, eta hortik sortzen dira zeruak oro eta haietan diren munduak. «Gauzak hiltzen dira izatea eman zitzaien horretan, beharraren kariaz. Izan ere, elkarri ordain zuzena ematen diote zuzentza ezagatik, denboraren kariaz«, horrela esaten du, poesiatik hurbilago dauden hitzez. Sorkuntza ez du onartzen elementuaren bilakaera gisa, betikoa den mugimenduaren kariaz, aurkarien bereizketa gisa baizik. Aurkariak honako hauek dira: beroa eta hotza, lehorra eta hezea, eta gainerakoak.

Bi kontaerok eskema formal bera dutela ulertzen du Cornfordek, eta horietatik hiru elementu oinarrizko azpimarra daitezke:

a) Hasiera batez batasun oinarrizkoa ematen da, eta bertan nahasturik edo elkarturik daude geroxeago bereiztuko diren elementuak.

b) Batasun oinarrizko hortik aurrera aurkariak diren elementuak pareka hasten dira bereizten; bereizketa amaitzen da sortzen direnean multzo elemental handiak, espazioan lau eremu osatzekotan: lurra, airea, sua eta ura.

c) Aurkarien arteko elkar eraginaren ondorioz –jainkoak Hesiodoren arabera, indarrak Anaximandroren arabera–, urtaroak, giroak eta bizidun ororen jaiotza eta hiltzea gertatzen dira.

Tradizio mitikoarekin haustura barik, pentsamendu presokratikoak eredutzat hartu zituen poetek adierazitako munduaren sorrerako ipuinak.

III

Hala ere, aitorturik ere pentsamendu presokratikoa ulertzeko Cornforden lanek duten garrantzia, autore horrek eta tradizio helenistikoak ez dituzte nahiko kontuan hartu pentsamendu joniarra sortuko den esparru berrian gertaturiko aldaketa politiko, militar, sozial, ekonomiko eta kulturalak. Ikerketa tradizio luze bati jarraiki, Jean Pierre Vernantek bere osotasunean aztertu du inperio mizenastarraren erorikotik polisen jaiotzaraino doan denboraldia. Polisean, hain zuzen, bilduko dira errealitatea ulertzeko modu berria ahalbideratuko duten baldintzak, eta modu berri horrek poliki-poliki bazterrean utziko ditu irudi mitikoak eta arrazional dei daitekeen pentsamendua sortu ahal izango da. Zentzu horretan, eztabaida ez da mugatuko «mitotik *logo*sera« formula higatuarekin, baizik eta pentsamendu politika-aurrekoaren eta pentsamendu politikoaren arteko kontraesanarekin. Bestela esanda, polisaren eraikuntzak eta pentsamendu arrazionalaren sorkuntzak VII. mendean gailurrera iristen den prozesu historiko beraren bi atal besterik ez dira. *Pentsamendu grekoaren hastapenak* izeneko lan laburrean Vernantek labur baina maisu eran prozesu hori azaldu du.

Lineal B oholtxoak irakurri eta arkeologia arloan aurkikuntza garrantzitsuak egin ondoren, XIX. mendeko gertakariak biak, Homeroren poemen edukiaz batera, izan dezakegu iritzi sendo samarra gizarte mizenastarrari buruz. Gizarte mizenastarra jauregian bizi den errege absolutuaren inguruan antolatzen da. Erregeak berak ditu, bere eskumeneko, zeregin erlijioso, militar, ekonomiko eta administratiboa. Giza

piramide horren puntan erregea dago (*ánax*); haren boterea gudalburuen leialtasunari eta jauregiko ondasunen kontrol lanak daramaten eskribauei esker gauzatzen da. *Anax*aren boterea zaharren batzarrak, etxerik indartsuenen buruek osatzen baitzuten seguru asko, eta koreteak edo gudu-irakasleak ziurtatzen dute. Jauregiaz beste aldean, baserrimundua aurkitzen dugu, herria, *demoi*etan antolatuta, lurgintzan eta artzaintzan ariki. *Demo* bakoitza, autonomo samarra bera, *basileus* batek gobernatzen du; *basileus*a administrazioaren eta ekonomiaren erantzukizunduna da, baina *ánax*aren menpe dago. Testuinguru horretan, *demos*aren populazioak botererik gabekoa da, hitz egiteko eskubiderik gabea. Gizarte mizenastarraren antolamendutik hiru dira azpimarratu nahi ditugun ezaugarriak: lehendabizi, gizarte guduzale eta hierarkikoa da. Bigarrenez, idazketak bizitza ekonomikoaren kontrolerako balio du. Azkenik, baserri-komunitateak autonomoak dira.

Oraindik garbi ez dauden arrazoien kariaz, XII. mende hasieran inperio mizenastarra eta joan eta, horrekin batera, jauregi-sistema eroriko dira, halako moldez non giza egoera berria basileisen inguruan antolatuko baita: herriko buruak dira, Homeroren poemetan azaltzen direnak bezalakoak. Bestalde, antzinatean jauregian biltzen ziren botere militar, erlijioso, magiko eta ekonomikoak mugatu egingo dira, jarduera desberdinak balira bezala. Garrantzitsua da azpimarratzea halaxe sortutako giza antolamendu berriak komunitate- sentipena areagotuko duela, interes desberdineko taldeen arteko lehiak neurtuko duen sentipena hain zuzen. Prozesu luze baten ondorioz, taldeen arteko lehia horrek espazio komuna edo agora sorraraziko du: bai gizarte aldetik eta bai hiritartasun aldetik begiratuta *poli*sa izango denaren oinarri. Aurreko giza ereduaren aldean, hiru dira desberdintasun nabarmenak: lehendabizi, hitza bestelako botere-tresnak baino ahaltsuago bihurtuko da. Hitzak errituala izateari utziko dio, eta eztabaida, iritzi-kontrajartze bilakatuko da. Bigarrenez, idazketak jauregiko botere izateari utziko dio, eta lege-akordioetako tresna bilakatuko da, haiei emango baitie iraunkortasuna eta publizitatea. Azkenik, gizarte berdintsuagoa izango da, poliseko hirikide guztien arteko berdintasuna areagotu egingo da soldadu hoplitaren instituzioa sortutakoan, horrek berak ekarriko baitu funtzio militarraren demokratizazioa eta, ondorioz, aristokrazia militarren pribilegio zaharren desagerpena. Berdintasunaren ideiak isonomia kontzeptuak islatuko du: hiritar guztien parte hartze berdina botere-jardueran.

Testuinguru politiko berrian gogoeta egiteko modu berria sortuko da, komunitatearen arazoak gainditzeko forma berria, indar bidezko harremanak arrazoimenaren bidezkoez ordezkatzen dituena, bai eta komunitateko alde desberdinen arteko kosmosaren bilatzeko nahia ere. Garai horretakoak dira Jakintsuak; horien erreformek Greziako herriaren giza kontzientzian erroak egingo dituzte, zuhurtasunaren eta adimen politikoaren eredu gisa geratuko baitira sekulako. Filosofia sortu berria bat etorriko da testuinguru politikoarekin eta *polis*aren unibertso espiritualarekin, gero eta laikoagoa eta arrazionalagoa izango baita. Baina zuzenbidearen eta boterearen arloko aldaketak ez dira soilik filosofia joniarra sortzeko lagungarri izango. Kanpo eta barneko merkataritzaren aberastasunak, Egiptoko aritmetika eta geometria ekartzeak, VII. mendeaz geroztiko moneta egiteak, edo hizkuntza grekoaren gero eta abstrakzio handiagorako eboluzioak, garrantzitsuak dira, gertakari gisa, filosofiarekin bat etorriko den unibertsoa berriaren sorreran.

Unibertso berri hori azaltzen al da autore presokratikoengandik gordetzen diren zatietan? Lehenago ikusi dugunez, autore helenista batzuek mugatu egin dute lehen filosofo grekoen ekarpen benetakoa. Ez da beste adituei gertatu zaiena, zeinek, aitorturik pentsamendu grekoak mito eta poesiarekin duen zorra, modu berrian ikusten baitute, mitologiarekin zerikusi gutxi duen errealitatea aztertzerakoan. Lehen aipatu ditugun Hesiodoren eta Anaximandroren zatiak ahantzi gabe, aipa daitezke desberdintasun garrantzitsuak.

a) Hesiodorentzat Gea, Eros, Erebo edo Eter jainkozko botere antropomorfikoak diren bitartean, Anaximandrorentzat beroa, hotza, lehorra eta hezea ezaugarri naturalak dira, sinbologiarik eta misteriorik gabeak.

b) Hesiodorentzat mundua jainkoaren erabakiak edo jainkoen arteko gatazkak ordenatzen duen bitartean, Anaximandrorentzat errealitatearen prozesuak lege naturalen bidez gertatzen dira, hau da, *physi - s*ari loturik. Beraz, Sinpliziok jasoriko Anaximandroren zatiak esaten du gauzak jaio eta hil egiten direla, beharraren eta denboraren kariaz.

c) Hesiodori munduaren genesiaren deskribapena interesatzen zaion bitartean, Anaximandrori, batez ere, aldaketa ororen azpian dagoen oinarri etengabeko eta iraunkorra interesatzen zaio, alegia, *archéa*, printzipioa. Anaximandrok nahiago du kosmologia kosmogonia baino.

Vernanten iritziz, Hesiodok –mitologiaren diskurtsoa onartzen duen poeta izaki– esaten dituen hitzen eta Anaximandrok –filosofoa bera– esandakoen artean dauden desberdintasunak filosofiaren sorrera-rekin bat etorri ziren bi aldaketa handiren erantzule dira: 1) pentsamendu positiboa, naturaz gaindiko edozein modu ezabatzen duena eta mitoak berak gertaera fisiko eta jainkozko eragileen artean sorturiko asimilazioa baztertzen duena; 2) pentsamendu abstraktua, aurkarien arteko elkartasunari uko eginez identitate-printzipioaren formulazio kategorikoa adierazten duena.

Aurkezpen orokor honen ondoren, antologiaren edukien eskema aurkeztuko dugu. Eskeman hiru atal bereiztuko ditugu: lehenengo joniar presokratikoak –Tales, Anaximandro, Anaximenes, Heraklito eta Alkmeon–, Grezia Magnako presokratiko italikoak –Jenofanes, Pitagoras, Parmenides, Zenon eta Meliso– eta presokratiko pluralista berantiarrak –Empedokles, Anaxagoras eta Demokrito–.

IV

Lehenengo filosofoek –fisikariak edo fisiologoak Aristotelesen hitzetan– onartuko dute abiapuntutzat naturaren (*physis*aren) aniztasunaren azpian nolabaiteko batasuna dagoela, eta, naturan desberdintasuna agerikoa izanda ere, errealitate guztien artean nolabaiteko identitatea dagoela. Izan ere, etengabeko isurian dauden errealitateen azpian errealitate iraunkor bat dago, aniztasunari batasuna ematen diona, errealitate desberdin guztiak batu egiten dituena. Errealitate iraunkor eta bat-egile horri printzipio (*arché*) esango diote lehenengo filosofoek, eta hura izango da, hain zuzen, haien espekulazioen xede nagusia.

Pentsalari joniarren artean Miletoko Tales da historiako lehenengo filosofotzat hartua izan dena. Hari buruz informazio gutxi izanda ere –haren testuak, ezer idatzi bazuen, ez dira gureganaino iritsi, eta Aristotelesek berak ez zituen zuzenean ezagutu–, badaude datu adierazgarriak haren bizitza eta izaerari buruz: Greziako Zazpi Jakintsuen zerrenda guztietan agertu zela besteak beste, bere hiriko legegintzaren inguruko kontuetan parte hartu zuela, eta egindako bidaietatik Egiptoko matematika eta Babiloniako taula astronomikoak eraman zituela Greziara. Badirudi, beraz, bere garaian legegizon, matematikari eta astronomo ospetsua izan zela –geometriaren teorema batek haren izena

du eta dokumentatuta dago K.a. 585eko eguzki-eklipsea iragarri zuela–.

Aristotelesen informazioa ontzat ematen badugu, Talesen ustez ura da aniztasunari batasuna ematen dion eta errealitate desberdin guztiak batu egiten dituen printzipio eta osagaia. Ura da, hain zuzen, naturaren printzipio iraunkor eta bat-egilea, alegia osagaia, non errealitate desberdinak sortu eta usteldu egiten diren. Izan ere, badaude naturaren printzipiotzat ura ezartzeko arrazoiak, besteak beste uraren garrantzia bizidun guztien bizitzan eta ugalketan, uraren presentzia nagusia Grezian eta inguruko herrietako egitura fisikoan, uraren garrantzia tradizio mitologikoetan, etab. Horretaz aparte, Talesen ustezko bi baieztapen gehiago ekarri dituzte iruzkingileek: lurra uraren gainean dagoela –Talesen garaian Ekialdeko mitologietan oso zabalduta zegoen ideia alegia– eta errealitate guztiak jainkoz beteta daudela –materiaren mugimendu propioa azaldu nahian proposatu omen zuena–.

Gorde diren lehenengo zatiak Anaximandrorenak dira. Anaximandro ere Miletoko herritarra izan zen, Talesen hirikide eta haren ikasle edo jarraitzailea. Badirudi bere hiriko kontuetan parte hartu zuela –Apoloniako kolonizazioa zuzendu omen zuen– eta alor askotan bere jakintza praktikoa ospetsua izan zela –lazedemoniarrei lurrikara bat zetorrela ohartarazi omen zien–. Iruzkingileen arabera, Anaximandrok lurraren lehenengo mapa osoa marraztu zuen eta Egipto edo Babiloniatik gnomon izeneko eguzki-erloju antzeko tresna bat ekarri zuen eguzkiaren nondik norakoa ezagutzeko eta distantzia handiak neurtzeko.

Iruzkigileen informazioa ontzat ematen badugu, Anaximandroren ustez naturaren aniztasunari batasuna ematen dion eta errealitate desberdin guztiak batu egiten dituen printzipioa (*archê*) ez da osagai jakin bat –ura, airea, lurra edo sua alegia–, mugagabea (*apeiron*a) baizik. Hitz horrek mugarik ez duena adierazten badu ere, ez du zehazten mugak denborazkoak ala espaziozkoak diren, eta espaziozkoak izatekotan, nola ulertu behar diren. Edonola ere, mugagabeak zehaztu gabeko zerbait adierazten du, eta Talesen jarrerarekiko abstrakzio-prozesuaren aurrerabidea hartu behar da. Anaximandroren esanetan, mugagabea betikoa, hilezkorra eta suntsiezina da, eta dena hartzen du bere baitan. Amaigabeko prozesu batean, mugagabearen baitatik sortzen dira aurkariak –Sinpliziok beroa eta hotza, lehorra eta hezea aipatzen ditu–, eta aurkarietatik gauza guztiak, bizi ondoren beharraren eta denboraren

kariaz berriro mugagabean hiltzen direnak. Esan daiteke Anaximandroren kosmogoniaren eskema guztiz arrazionala dela –fenomeno fisikoen azalpenean ez baitu kontuan hartzen jainkoen eragina, naturaren beraren legeak baizik–, eta eskema hori izango da, hain zuzen, presokratikoek jarraibidetzat hartuko dutena. Kosmogoniaren barruan, Anaximandroren beste bi alor gehiago merezi du aipatzea: lurraren kokamenari dagokionez, Anaximandrok baieztatuko du lurra, toki guztietatik distantziakide izanik –harrizko zutabe biribil baten forma duena–, geldirik dagoela –behar besteko arrazoi- printzipioaren lehenengo adierazpentzat har litekeena–; eta, gizakiaren sorrerari dagokionez, Anaximandrok esango du gizakiak arrainen barnean bizi izan zirela, umekien antzera, haurtzarora arte –planteamendu eboluzionistaren lehenengo adierazpentzat har litekeena–.

Miletoko hirugarren fisikaria Anaximenes dugu. Haren bizitzari buruz datu gutxi eta kontraesankorrak daude. Anaximenesen ustez, naturaren printzipioa airea da. Pentsa liteke Anaximandroren *apeiron*arekiko osagai konkretu bat ezartzea atzerapen bat izan zela, baina ideia horren kontra zenbait aipamen egin daiteke: lehenik eta behin, Anaximenesen aireak Anaximandroren *apeiron*en ezaugarriak hartuko ditu, besteak beste mugagabea, betikoa eta suntsiezina izatea eta bere baitan dena hartzea; eta bestalde, kondentsazio- eta arrarifikazio-prozesu fisikoen bidez –prozesu kuantitatibo sinple baten bidez alegia– Anaximenesek airearen bilakaerak –prozesu kualitatibo guztiak alegia– azalduko ditu, hain zuzen, airearen bilakaeraren kausa azaltzen saiatuko da, aurreko kosmogonien aldean aurrerapen handia suposatzen duena. Aipagarria da, bestalde, haren psikologia: Anaximenesen ustez, giza arima airea da, eta giza arimak gizakiaren batasunari eusten dion moduan, hala mundu osoari aireak eusten dio. Airea da, beraz, kosmosaren eta gizakiaren arteko lotura.

Heraklito Asia Txikiko Efeso hirian jaio zen familia aristokratiko baten barnean. Badirudi bere hirian oso ospe txarra izan zuela hirikideen artean, filosofoak adierazten zien mespretxuagatik –haren jatorri aristokratikoa agerian geldituko da haren ideia etiko kontserbadore eta demokrazia kontrakoetan–. Antzinako iruzkingileak ere ez zitzaizkion alde azaldu, baina modernoen artean, berriz, Heraklito izan da interes handiena sortu duena –ezaguna da Hegelen eta Nietzscheren iritziz Heraklito presokratikorik handiena izan zela–. Haren lana parado-

xaz eta anbiguotasunaz beteriko aforismo-sorta batez osaturik dagoenez, berehala ezarri zitzaion «Iluna« izengoitia, eta haren pentsamenduaren inguruan eztabaida eta interpretazio anitz sortu ziren. Edonola ere, agerikoa da Heraklitoren pentsamendua iraultzailea izan zela eta joniar aurreko pentsamenduarekiko aurrerapen handia ekarri zuela. Izan ere, joniar tradizioari jarraituz, naturaren printzipioaz galdetu bazuen ere, Heraklito izan zen giza pentsamenduari eta hizkuntzari buruz hausnarketa egin zuen lehenengo pentsalaria, eta izugarrizko ahalmen espekulatibo eta intuitiboa erakutsi zuen.

Batzuk dira aforismoen bidez Heraklitok adierazten dituen doktrinak: lehenengoz, *Logos*aren doktrina aipatu behar da. Haren pentsamenduaren testuinguruan *logos* kontzeptuak Heraklitoren diskurtsoa bera adierazten du –egiazko diskurtsoa alegia–, baita lengoaia komuna ere. Baina lengoaiaz aparte, *logos*ak neurri, proportzio edo arau unibertsala adierazten du, eta horren arabera errealitateko gauza guztiak gertatzen dira. Filosofoaren esanetan, *logos* agerikoa den arren –errealitatean eta lengoaian–, gizon gutxi batzuek antzematen dute –maiz izango dira Heraklitoren erasoak Pitagoras, Homero eta tradizioko beste pertsonaia askoren kontra–. *Logos* kontzeptua Heraklitoren mundu-ikuskerari dagokio, haren alderdi linguistiko, ontologiko, gnoseologiko eta etikoan. Efesoko filosofoaren beste funtsezko doktrina *aurkarien doktrina* dugu, tradizio presokratiko eta platoniarrarekin partekatu duen doktrina alegia. Baina tradizioan ez bezala, Heraklitoren pentsamenduan errealitatea bera da aurkakotasuna –«Den ororen aita da gerra, den ororen errege« (29 z., DK 53)–, eta aurkarien arteko tentsio dialektikoa da, hain zuzen, aurkarien arteko batasuna sortzen duena –aurkarien batasuna adibide askoren bidez irudikatuko du filosofoak, eta testuinguru horretan kokatu behar da, hain zuzen, Platonek jasotako *panta rei* esaldi ospetsua–. Aurreko doktrinari lotuta, esan liteke *logos* edo neurri unibertsalaren edukia aurkarien batasuna dela, etengabeko tentsioaren azpiko batasuna alegia. Heraklitoren hirugarren doktrina ospetsua *sua*rena da; sua da, haren iritziz, errealitate materialaren osagaia, eta suaren etengabeko bilakaeren bidez sortzen eta desagertzen dira gauza guztiak, beti *logos*aren arabera. Giza arima ere sua da, eta hezetasuna arimaren etsai, heriotza arimaren urtzea baita –doktrina bitxi horretatik ondorioztatuko du Heraklitok bere etikaren zenbait proposamen ausart–. Amaitzeko, aipagarria da alor etiko eta politikoan

Heraklitok tradizio aristokratikoaren balioak aldarrikatuko dituela, gehiengoarekiko beti mespretxuzko jarrera adieraziz.

Zati eta berri gutxi kontserbatu badira ere, agerikoa da filosofo presokratikoen artean Krotonako Alkmeon, haren pentsamenduaren originaltasunagatik eta haren jarrera zientifiko-enpirikoagatik nabarmendu zela. Krotonako filosofoaren lanek eragin handia izan zuten ondorengo filosofian, hipokratiarren eta Aristotelesen obretan gehien bat. Alkmeonen ikergai nagusia giza gorputzaren fisiologia izan zen: haren garaian ohikoa ez den xumetasun zientifikotik abiatuta –«agerikoak ez diren gauzei buruz, hilkorrak diren gauzei buruz, jainkoek badute ziurtasuna; baina gizakioi, gizakiak garen aldetik, aztarnen arabera epaitzea dagokigu« (1 z., DK B 1)–, Alkmeon saiatu zen azaltzen gaixotasunaren eta osasunaren mekanismoak –aurkarien doktrinan eta gorputz osoaren prozesu partzialak elkarri lotuta dauden ideian oinarrituta–, sentimenen eta loaren fisiologia, ugaltze prozesua, etab. Azpimarragarria da sentsazioen gunea ez zuela kokatu bihotzean, garunean baizik. Fisiologiaz aparte, psikologiaz eta astronomiaz ere idatzi zuen, baina horri buruzko berriak gutxi eta nahasiak dira, eta badirudi aldarrikatu zituen doktrinek ez zutela eragin handirik izan. Haren bizitzari buruz oso informazio gutxi dago.

V

Lehenengo filosofoek onartu zuten abiapuntutzat naturaren aniztasunaren azpian nolabaiteko batasuna dagoela, nolabaiteko identitatea, eta etengabeko isurian dauden errealitateen azpian errealitate material iraunkor bat dagoela, beraien espekulazioen objektu nagusia izan zena, hain zuzen. Naturaren printzipioari buruzko espekulazioan sakondu bazuten ere, Grezia Magnako presokratikoek heldu zieten zenbait ikergai berriri, besteak beste metodo filosofikoari, egiari, hizkuntzari, errealitatearen egitura formalari, etab., eta diskurtso filosofikoaren abstrakzio maila igo zuten. Grezia Magnako filosofoon artean Pitagoras eta Parmenides nabarmentzen dira.

Jenofanes Asia Txikiko Kolofon hirian jaio zen; Ziro mediarrak Kolofon hartu zuenean, Jenofanes Siziliara joan zen, 25 urte inguru zituela. Iruzkingileek diotenez, filosofoak ez zuen izan bizileku finkorik, eta hark berak esaten duenez, gutxienez 67 urtez hiriz hiri ibili zen,

hil arte. Badirudi harrera ona izan zuela leku guztietan bere jatorri aristokratikoari esker. Joniarrek ez bezala, Jenofanesek poema satirikoak idatzi zituen bertsotan. Iruzkingileen artean batzuek filosoforen izena kendu badiote ere, beste batzuek, berriz, teologo eta eleatar eskolako sortzailetzat hartu zuten. Jenofanesenak iritsi zaizkigun zatietan aipagarriena da tradiziozko erlijioari eta zenbait ohitura zaharri eginiko kritika. Izan ere, Jenofanesek gaitzetsi egin zituen Hesiodo eta Homeroren erlijioa, bai jainko-jainkosen portaera etikoa –«Homerok eta Hesiodok gizakientzat lotsagarrizko edo irainezko den oro jainkoei leporatu zieten: lapurreta, ezkontza-lohizkoa eta elkar engainatzea« (11 z., DK 11)–, bai jainko-jainkosen antropomorfismoa –«Beren jainkoak sudurtxapalak eta beltzak direla diote etiopiarrek; traziarrek, ordea, begiurdinak eta ile-gorriak direla« (14 z., DK 16)–, kirolari garaileei buruzko iritziak –«gizonen edo zaldien indarra baino baliagarriagoa da gure jakituria« (2 z., DK 2)–, herritarren luxu eta itxurakeria –«Lidiarrengandik lizunkeria gaiztoa ikasi ondoren (...) plazara joaten ziren purpuraz jantzirik (...) pinpirin, orrazkera dotorez harro eta marro, lurrin gogorren usaina botaka airera« (3 z., DK 3)–, etab. Tradiziozko irudiaren kontra, Jenofanesen jainkotasunaren irudi berriak, oso zehatza ez bada ere, baditu zenbait ezaugarri original: jainkoa bat, bakarra eta geldia izatea, giza itxurarik gabekoa eta adimenaren bidez dena mugitzeko gai izatea, besteak beste. Teologiaz eta etikaz aparte, zenbait gai fisikoz ere idatzi zuen, eta badirudi doktrina arruntak aldarrikatu zituela –lurraren lautasuna, eguzki anitzaren existentzia, zeruko esferak suzko hodeiz osaturik daudela, etab.–.

Pentsamendu filosofikoaren historian pitagorismoaren eragina oso handia izan bada ere, Pitagorasen bizitzari eta haren doktrinei buruzko informazioa oso iluna da. Iruzkingileen informazioaren arabera, Samos uhartean jaio zen Pitagoras, K. a. 570 urtearen inguruan. Badirudi Polikratesen tiraniatik ihes egin, Grezia Magnako Krotona hirira joan eta bertan sekta bat sortu zuela. Pitagorikoen sektak –aldi berean filosofikoa eta erlijiosoa baitzen– parte hartu eta eragin handia izan zuen Krotonako politikan, baina, Zilonen matxinadaren ondorioz, Metapontora joan beharrik-eta, bertan hil zen Pitagoras, urte gutxi pasa ondoren. Datu horiek alde batera utzita, gutxi da Pitagorasen bizitzari buruz egiazta daitekeen informazioa. Bi dira, gehien bat, iluntasunaren arrazoiak: alde batetik, Pitagorasen jarraitzaileen sekretismoa –K.a. V.

mendeko Filolao izango omen da sektaren doktrinei buruz idatziko zuen lehenengo filosofo pitagorikoa–; eta beste aldetik, pitagorikoen aurkikuntza guztiak Pitagorasi berari egoztearen ohitura zaharra. Asko dira, bestalde, pitagorismoaren inguruan kontuan har daitezkeen aspektu aipagarriak: ezaguna da astronomiaz, musikaz eta matematikaz interesa handia izan zutela pitagorikoek; baina ez da ahaztu behar sekta bat osatzen zutela –orfikoek bezala, arimaren metempsikosia eta erritoarau zorrotzak aldarrikatzen zituena alegia– eta jakinduria teorikoaz –matematika, musika eta astronomiaz– ez ezik, jakinduria praktikoaz –etika eta politikaz– ere sutsu interesatu zirela, lehentasuna izanik, kasu guztietan, gizakiaren aspektu soteriologikoak. Beraz, pitagorismoaz hitz egiten dugunean, garai, alor eta aspektu desberdinetako doktrinaz eta edukiez ari gara.

Pentsamendu filosofikoari berari dagokionez, pitagorismoaren doktrina matematikoa da arrakasta handiena izan duena. Agian musika-harmoniaren inguruko haien aurkikuntzek eraginda, pitagorikoek ondorioztatu zuten naturaren printzipioak eta osagaiak –aniztasunari batasuna eman eta gauza guztiak batu egiten dituena, alegia– bikoiti eta bakoititik sorturiko zenbakiak direla, bai formalki, baita materialki ere; eta errealitate fisikoa, errealitate matematikoetatik sortua, zenbakietara murritz daitekeela azken finean. Oraindik pentsamendu magikoaren eraginpean, beren doktrinetan pitagorikoek nahaztu zituzten zenbakien aspektu matematikoa bera –dudaezina da matematikaren oinarri arrazionalak ezarri zituztela eta Arkitas pitagoriko berantiarrak garaiko matematika bultzatu zuela– eta aspektu magiko-mistikoak –unitate geometrikoak eta aritmetikoak nahastu zituzten, *tetraktys*-en izenean zin egiten zuten, etab.– . Aipagarria da, amaitzeko, pitagorikoen ikuspegi orokorra dualista izan zela: haien ustez zenbakiak bikoitik eta bakoititik sortuak ziren, eta lehenengo hamar zenbakiei aurkari pare bana dagokie, errealitate osoaren oinarria osatzen dutenak, alegia. Hamar aurkariok dira mugatua/mugagabea, bakoitia/bikoitia, batekoa/anitza, eskuina/ezkerra, arra/emea, geldirik/mugimenduan, zuzena/makurra, argitasuna/iluntasuna, ona/txarra, karratua/laukizuzena. Pitagorikoen doktrinen eragina funtsezkoa izan zen ondorengo pentsamenduan, gehien bat platoniar filosofiaren historia osoan.

Parmenides Siziliako Elea hirian jaio zen; badirudi bere hiriko legegintzan jardun eta hirikideen artean ospe handia izan zuela. Hasie-

ran Pitagorasen jarraitzailea izan bazen ere, berehala gainditu zuen pitagorismoa eta bere pentsamendu propioa garatu zuen. Parmenides da, dudarik gabe, Greziako filosofiaren eta, orokorrean, mendebaldeko pentsamenduaren historian eragin handiena izan duen filosofo presokratikoa. Izan ere, hark eman zion hasiera *den*-aren metafisikaren historiari, ezarri zituen hizkuntza zientifikoaren oinarrizko baldintza logikoak, aurkitu zuen errealitatearen eta pentsamenduaren –izatearen eta pentsatzearen– baldintzak berberak direla eta proposatu zuen egiara bideratzeko metodologia sendo bat. Ondorengo filosofoek, beraz, ezinbestez abiatu behar izan zuten Parmenidesen hausnarketa filosofikotik, bai diskurtso filosofikoan sakontzeko, bai Eleako filosofoak berak plazaturiko aporia logiko-ontologikoak ezabatzen saiatzeko. Kontserbatu den Parmenidesen poema hexametrotan dago idatzita eta hiru atal ditu: Proemioa, Egiaren (*aletheia*ren) bidea eta Iritziaren (*doxa*ren) bidea. Kutsu mitiko-erlijiosoan eta era metaforiko-sinbolikoan idatzita, Proemioan Jainkosa izengabe batek poeman zehar esandakoa onesten du eta Egiaren eta Iritziaren bideetan garaturiko edukiak aurkezten ditu –«bai egia biribilaren bihotz izukaitzaz bai hilezkorren iritziez, non egiazko sinesmenik ez dagoen« (1. z, DK B 1)–. Poemaren edukien egiazkotasuna, beraz, Jainkosa batek bermaturik dago eta iluntasunetik argitasunerako igarotzea dakar. Proemio laburraren ondoren Egiaren bidea dator, poemaren atalik garrantzitsuena, interesgarriena eta filosofiaren historian eragin handiena izan duena, alegia. Hor, argumentu-logika bikain bati jarraituz, Parmenidesek *den*aren eta egiaren inguruko doktrina ausartak garatuko ditu; argumentuaren abiapuntua lau proposiziok osatzen dute: «badena bada«, «ez dena ez da«, «ezin daiteke esan badena ez denik« eta «ezin daiteke esan ez dena badenik«. Ziurtasunez ez dakigu zertaz ari den Parmenides *den*az eta *izate*az hitz egiten duenean, baina badirudi axioma haien bidez filosofoak errealitatearen, pentsamenduaren eta lengoaiaren oinarrizko arau logikoak adierazi nahi dituela, eta hiru mailetan oinarrizko arauak berberak direla adierazi –«... pentsa daitekeena eta izan daitekeena biak bat baitira« (3 z., DK 3)–. Bestalde, axiomak onartuz gero, haien ondorio logikoak onartu beharko dira, hots, *den*a jaio ez izana, ezilkorra, betea, bakarra, aldaezin eta osoa dela, esfera baten antzekoa alegia; eta horren ondorioz, ukatu beharko dira hutsa, aniztasuna eta mugimendua. Ondorengo filosofoek aurre egin beharko diote Parmenidesek eraikitako arrazoibide bikainaren eta zentzumenek jasotako informazioaren artean sorturiko

aporiari. Azkenik, Iritziaren bidetik esaldi sorta bat besterik ez da kontserbatu; poemaren atal horretan Parmenidesek kosmogonia, kosmologia, antropologia, biologia eta beste hainbat gairen inguruko doktrinak garatu omen zituen.

Parmenidesen jarratzaile zuzenak Eleako Zenon eta Samoseko Meliso filosofo italikoak izan ziren. Parmenidesek ez bezala, Zenonek eta Melisok prosa erabili zuten. Zenonek ospe handia izan zuen antzinatean bere eztabaida filosofikoetan erabilitako modu berriengatik –dialektikaren sortzaile gisa gogoratzen da–. Oso ezagunak dira aniztasunaren, espazioaren eta mugimenduaren kontrako argumentu aporetikoak–«Estadioa«, «Akiles eta dortoka«, «Gesi jaurtia« eta «Ilada mugikorrak«–. Meliso, bestalde, ospetsua izan zen bere garaian K. a. 441. urtean atenastarren kontrako flotako almirantea izateagatik. Parmenidesen postulatuak defenditu bazituen ere, aniztasunaren kontrako argumentu batek pluralismoaren eta atomismoaren abiapuntua ezarri zuen –«badirenak asko balira, horiek, nik bata deskribatzen dudan bezalakoak izan beharko lukete« (8 z., DK 8)–.

VI

Parmenidesen eragina ondorengo filosofian oso handia izan zen, pentsalari berriek saiatu behar izan baitzuten bat egiten Eleako pentsalariaren arrazoibidea –mugimendurik eta aniztasunik gabeko errealitate bakar bat ondorioztatzen zuena, alegia– eta sentimenen bidez antzemandako errealitate aberatsa. Eleatarrek ezarritako abiapuntu berriaren emaitzak pluralismoa eta atomismoa izan ziren, mundu-ikuspegi berriak, non Parmenidesen *den*-aren ezaugarriak partikula amaigabek –osagai edo sustraiek, haziek edo atomoek– partekatuko dituzten, batasunaren eta aniztasunaren, iraunkortasunaren eta aldaketaren, hilkortasunaren eta hilezkortasunaren arteko tentsioak gainditu ahal izanik. Filosofo pluralisten artean Enpedokles, Anaxagoras eta Demokrito ditugu aipagarrienak.

Enpedokles filosofo pluralista Siziliako Akragante hirian jaio zen; bere hirikideen eta greko guztien artean berehala bihurtu zen elezaharretako pertsonaia liluragarri, bere baitan filosofo, mago, sendagile eta erretorikoen gaitasunak bildu omen baitzituen. Erlijioaren eta filosofiaren bitartean kokaturik, haren pentsamenduan nabariak dira

eragin desberdinak, besteak beste orfismoa eta pitagorismoa, joniar filosofia eta Parmenidesen ontologia. Bertsotan idatzitako *Naturaz* eta *Garbikuntzak* obren zatiak kontserbatu dira, eta pertsonaiaren beraren baitan bezala, bi obretan ere nahastu egiten dira eduki poetiko eta arrazionalak, eduki mitiko eta filosofikoak.

Joniar tradizioari jarraituz, Enpedoklesek naturaren printzipioaz –aniztasunaren batasunaz– galdetu zuen eta abiapuntutzat Parmenidesen *den*aren ezaugarriak onartu zituen –jaio ez izana, ezilkorra, betea eta aldaezina, alegia–; baina Parmenidesek ez bezala, errealitate bakar bat ezarri beharrean, Enpedoklesek lau osagai edo sustrai ezarri zituen: airea, lurra, sua eta ura. Enpedoklesen kosmogoniaren arabera, lau suatraiok etengabeko prozesu kosmiko baten menpe daude; prozesu horretan, *Gorroto* eta *Maite* printzipio antagonikoen nagusitasun alternatiboaren ondorioz, lau sustraiak banantze osotik batasun osora pasatzen dira –*Gorroto*ak sustraiak banandu eta *Maite*ak batu egiten baititu–. *Maite*-aren nagusitasuna goren-mailara iristen denean sustraiek, guztiz nahastuta, esfera bat osatzen dute; eta esfera osatutakoan, *Gorroto*aren eragina hasten da, lau sustraiak guztiz banandu arte. Transizioaldietan, hain zuzen, sortzen dira mundua, bizitza eta errealitate partikular guztiak. Enpedoklesen kosmogonian, beraz, batu egiten dira sentimenen datuak –sustraien nahasketaren ondorioz gauza guztiak sortu, aldatu eta desagertu egiten baitira– eta Parmenidesen arrazoibide ontologikoa –lau sustraiek Paremenidesen *den*aren ezaugarriak jasotzen baitituzte–. Kosmogoniari ez ezik, *Naturaz* izeneko obran Enpedoklesek biologiaren inguruko ikerketari ere garrantzi handia eman zion, eta alor desberdinak landu zituen, besteak beste izaki bizidunen sorrera eta eboluzioa, sentimenen fisiologia, elikaduraren prozesua, giza adimena, etab.

Garbikuntzak izenburuko liburuan, berriz, Enpedoklesek orfismotik eta pitagorismotik jasotako doktrina etiko-erlijioso eta erritu-prozesuak aldarrikatu zituen –besteak beste arimaren metempsikosia, haragia eta babak jatearen debekua, etab–. Akragantiar guztiei zuzenduta, arimaren garbikuntza eta gizakien zoriontasuna izan zituen helburu. Beste ikuspegi batetik abiatuta, *Garbikuntzak* obrak bat egiten du *Naturaz* obran garaturiko edukiekin.

Anaxagoras Klazomene joniar hirian jaio zen. Atenaseko giro kulturalak erakarrita, hiri horretara joan eta Periklesen ilustrazioaren

ordezkari nagusienetariko bat izan zen. Hala ere, Peloponesoko gerratea piztu zelarik, arrazionalismoaren kontrako herri erreakzioaren ondorioz, Anaxagoras atzerriratua izan zen Lampsako hirira, eta urte gutxi pasa ondoren hantxe hil zen. Kontserbatu diren zatiak *Naturaz* ohiko izenburuko liburuari dagozkio. Enpedokles bezala, Anaxagoras ere saiatu zen bat egiten joniar kosmologoen espekulazioa –Anaximenesen pentsamenduaren eragina oso agerikoa da Anaxagorasen kosmologian– eta eleatar filosofoen printzipio ontologikoak. Baina Enpedoklesek ez bezala, naturaren printzipiotzat sustrai edo osagai kopuru jakin bat ezarri beharrean, Anaxagorasek aldarrikatu zuen errealitatearen osagai guztiak betidanik existitu direla. Bestalde, osagai haiek mugagabeak dira, etengabe zatigarriak alegia, Parmenidesen hutsaren kontrako doktrinarekin bat egiten duena. Materia etengabe zatigarria izanik, ezinezkoa da osagaiak banantzea; beraz, gauza orok gauza orotan hartzen du parte. Anaxagorasek proposaturiko kosmologiaren arabera hasieran osagai guztiak zeuden nahastuta –hezea eta lehorra, beroa eta hotza, argitsua eta iluna, etab.–, haien artean nagusiak airea eta eterra zirela. Adimena (*Nous*) printzipio eragileak sortua, materia jiraka eta biraka hasi eta jatorrizko masa nahastutik errealitate partikularrak bereizten hasi ziren. Anaxagorasen kosmologian errealitate partikularrak osagai eta nolakotasun anitzez osaturiko *hazi*z beterik daude; osagai nagusien arabera haziak itxura, zapore eta kolore desberdinetakoak izaten dira; eta, era berean, hazien arabera sortzen dira gauzen arteko desberdintasunak, beti kontuan hartuta osagairik hutsik ez dagoela. Doktrina horren bidez, Anaxagorasek azaldu ahal izan zituen materiaren bilakaerak –«nola sortuko litzateke ilea ile ez denetik eta haragia haragi ez denetik?«–. Bestalde, Anaxagorasen kosmologiaren arabera jaiotza eta heriotza ez dira ezer, gauza guztiak nahaste eta banantze prozesuen ondorioak baitira, eta suntsitu ondoren itzultzen dira osatu ziren materiara. Adimena, berriz, bakarra, hutsa eta autonomoa da, materiatik guztiz banandua; hala ere, izaki arimadunek parte hartzen dute Adimenean.

Kosmogonia ez ezik, Anaxagorasek biologiaren inguruko aspektu desberdinak ere landu zituen, besteak beste sentimenen eta pertzepzioaren fisiologia –Alkmeoni jarraituz garunean bildu zituen sentimenak eta ez bihotzean–, giza adimenaren jatorria, bizidunen eboluzioa, etab.

Atomismoa filosofo presokratikoek garaturiko azken doktrina handia da. Lehenengo atomismoaren ordezkariak Leuzipo eta Demokrito dira. Miletoko Leuziporen bizitzari buruz oso datu gutxi dago, zenbait obra egozten zaio, baina *Adimenaz* izenburuko zati bat besterik ez da kontserbatu. Demokritoren bizitza eta obra askoz ezagunagoak dira. Traziako Abdera hirian jaioa, Demokrito Leuziporen ikasle izan zen, baina haren lanak berehala gainditu zuen maisuarena. Badirudi bidaiari handia izan zela eta bere garaiko mundu ezaguna bisitatu zuela. Oso agure hil zen. Demokrito oso idazle emankorra izan zen –52 obra bederen egozten zaizkio– eta bere jakintza entziklopedikoak ospe handia eman zion bere garaian. Zoritxarrez 300 inguru zati besterik ez da kontserbatu. Zati gehienak aforismoak dira eta etikaren inguruko zenbait ohiko alderdi aipatzen dituzte.

Hala ere, atomisten doktrinetan aipagarriena atomoei eta hutsari buruzko doktrina da. Filosofo pluralisten kasuan bezala, atomistak saiatu ziren bat egiten Parmenidesen *den*aren ezaugarriak –jaio ez izana, ezilkorra, betea eta aldaezina, alegia– eta sentimenen bidez jasotako datuak –gauzen jaiotza eta usteldura, mugimendua, aldaketa eta aniztasuna, alegia–. Irteera izan zen atomoak eta hutsa onartzea. Izan ere, atomoek eleatar *den*aren ezaugarri guztiak betetzen dituzte, baina bakarra izan beharrean zenbatekoz anitzak dira. Bestalde, hutsa ez da parmenidestar *ez-den* erabatekoa, erlatiboa baizik, hutsa beharrezkoa baita haren barnean atomoak mugi daitezen. Atomoak desberdinak dira itxuraz, norabidez eta kokamenez, eta haien desberdintasunen arabera –eta hutsaren arabera– sortzen da mundu fisikoaren aniztasuna. Gauza materialen arteko desberdintasunak sortzen dira, beraz, haien atomoen ezaugarriak desberdinak direlako. Hutsean zehar atomoak beren kabuz mugitzen dira norabiderik gabe, baina, zurrunbilo bat osatzen denean, atomoak zurrunbiloaren erdira zuzentzen dira eta, elkar jotzearen ondorioz, elkartzen dira eta osatzen dituzte errealitate materialak. Atomistek emandako azalpenak, beraz, azalpen mekanikoak dira, eta modu berean azaldu zuten munduaren –edo, hobeto esanda, mundu anitzen– sorrera. Hala ere, atomistek ez zuten pentsatu gauzak halabeharrez osatzen direnik; aitzitik, Leuziporena kontserbatu den zati bakarrak beharraren presentzia aipatzen du: «Ezer ez da alferrik gertatzen; aitzitik, dena arrazoi batengatik eta beharraren menpe.« (1 z., DK 2). Amaitzeko, aipatu behar da Demokritoren psikologia ere doktrina atomistaren

testuinguruan kokatzen dela; gainontzeko errealitateak bezala, giza arima atomoz osaturik dago, baina arimaren atomoak gai dira gorputzaren beste atomoei mugiarazteko eta gorputz osoan zehar mugitzeko beste atomoekin elkartu gabe. Leuzipo eta Demokritoren doktrina atomista horiek jarraipena izango dute Epikuroren eta Lukrezioren pentsamenduan.

Amaitzeko, presokratiko berantiarren pentsamenduan aipamen berezia merezi du Apoloniako Diogenesek. Haren bizitzari buruz oso datu gutxi kontserbatu dira, baina *Hodeiak* izenburuko komedian Aristofanesek haren doktrinak parodiatu zituen. Diogenes oso pentsalari eklektikoa izan zen, –haren pentsamenduan Anaximenesen, Anaxagorasen eta atomisten doktrinak dira nabarmenenak–. Anaximenesek bezala Diogenesek pentsatu zuen jatorrizko printzipioa airea dela, baina atomistei jarraituz hutsa onartu zuen. Eta Anaxagorasek bezala, Ulermena (*Noesis*) printzipio eragiletzat ezarri zuen, baina materiatik bananduta ezarri beharrean, materiari egokitu zion. Kosmogoniaz aparte beste hainbat gaiz ere idatzi zuen, anatomiari buruz kontserbatu den zati luzean ikus daitekeen bezala. Diogenesen obran dugu, beraz, joniar pentsamenduan hasita atomisten sisteman borobildu zen garai filosofiko luze baten adierazgarririk onena.

VI

Lan honen helburua ez da izan, inolaz ere, testu presokratiko guztien edizioa argitaratzea, pentsalari presokratikoen zatien eta haiei buruzko berri adierazgarrienen antologia on bat prestatzea baizik. Era berean, lana zuzenduta dago irakurle adituari ez ezik, Greziako filosofian, poesian eta kulturan interesaturiko irakurle orori. Hori dela eta, dokumentazio bibliografikoa handia izan den arren, ez ditugu islatu oharretan lanaren gauzatzean etengabe sortu zaizkigun eztabaida filosofiko-filologikoak. Denborazko eta espaziozko mugek, baita lanaren arduradunen mugek –gure mugek, alegia– ere, eraman gaituzte ohar gutxi, labur eta zehatzak egitera. Edonola ere, prestaturiko oharrak baliagarriak dira testuen testuingurua argitu eta testua bera hobeto ulertzeko. Presokratikoen zatien eta haiei buruzko berrien antologia prestatzeko A. Bernabé-ren antologia ederra izan dugu kontuan. Jatorrizko

testuetarako H. Diels-en y H. Kranz-en *Die Fragmente der Vorsokrati - ker* (1985ek edizioa) obra klasiko ederra erabili dugu –edizio horren zatien zenbakikuntza parentesien artean adierazi dugu–. Eta beti izan ditugu kontuan C. Eggers Lan-en, A. Bernabé-ren eta C.J. Vogel-en itzulpen eta iruzkin ederrak. Bestalde, erabilitako bibliografiaren parte bat –gure ustez garrantzitsuena dena eta gehien erabili duguna, alegia– *Bibliografia* atalean agertzen da. Espero dugu, azkenik, gure lana abiapuntua izan dadila beste batzuek zuzendu eta handitu ditzaten orrialde hauen edukiak.

Javier Aguirre eta Felipe Juristi

Bibliografia

TESTU BILDUMAK ETA ITZULPENAK

BERNABÉ, A., *De Tales a Demócrito. Fragmentos presocráticos*, Alianza, Madrid 1988.

DIELS, H. ETA KRANZ, W., *Die Fragmente der Vorsokratiker*, I-III, Weidman, Zürich-Hildesheim 1985 (1go. arg. 1903).

DUMONT, J.-P., *Les écoles présocratiques*, Gallimard, Paris 1991.

EGGERS LAN, C. eta JULIÁ, V., *Los filósofos presocráticos* (3 ale), Gredos, Madrid 1978.

KIRK, RAVEN eta SCHOFIELD, *Los filósofos presocráticos*, Gredos, Madrid 1974, itzul. J. García Fernández.

VOGEL, C. J., *Greek Philosophy. A Collection of texts selected and supplied with some notes and explanations*, I, Leiden 1963 (3. arg.).

OBRA OROKORRAK ETA ARTIKULU BILDUMAK

ALEGRE GORRI, A., Estudios sobre los presocráticos, Anthropos, Barcelona 1985

BARNES, J., *Los presocráticos*, Cátedra, Madrid 1992, itzul. E. Martín López. (Bibliografia kritiko eta gaurkotua, 695-731 orrialdeetan).

CORNFORD, *Principium Sapientiae*, La balsa de la Medusa, Visor, 1988, itzul. R. Guardiola eta F. Giménez.

FARRINGTON, B., *Ciencia Griega*, Icaria, Barcelona 1986 (2. arg.), itzul. Elsa A. Nikos.

FREEMAN, K., *The pre-socratic Philosophers*, Oxford 1953.

FURLEY, D. J. eta ALLEN, R. E. (arg.), *Studies in Presocratic Philosophy*, Londres 1970.

GIGON, O., *Los orígenes de la filosofía griega*, Gredos, Madrid 1971, itzul. M. Carrión.

GUTHRIE, W. K. C., *Historia de la filosofía griega*, I-II, Gredos, Madrid 1984, itzul. A. Medina.

JAEGER, W., *La teología de los primeros filósofos griegos*, FCE, Mexico 1972 (2. bir.), itzul. J. Gaos.

MOURELATOS, A. P. D. (arg.), *The Presocratics*, Garden City, N Y, 1974.

OÑATE, T., *El nacimiento de la filosofía en Grecia*, Dykinson, Madrid 2004.

MILETOKO TALES[1]

Talesen pentsamenduari buruzko berriak

1. ARISTOTELES[2], *Metafisika*, I, 3, 983 b (11 A 12)[3]: Filosofatu zuten lehengoen artean, gehienek gauza guztien printzipio bakarrak materia-izaerakoak zirela uste zuten. (…) Talesek, horrelako filosofiaren aitzindariak, ura dela esaten du (eta horregatik adierazi zuen, bestalde, lurra ur gainean dagoela). Halako suposizioa izan zuen, agian, izaki guztien elikagaiak hezeak direla, eta berotasuna bera ere uretatik sortu eta uretan bizi dela ikusten zuelako (gauza guztien sorburua gauza guztien printzipioa baita). Horregatik suposatu zuen hori, gauza guztien haziek ere izaera hezea dutelako, eta ura, gauza hezeentzat, haien izaeraren printzipioa delako.

   Batzuen ustez, jainkotasunaz eztabaidatu zuten lehengoek ere –antzinakoek eta gaurko belaunalditik oso urrun dauden horiek– horrelako iritzia izan zuten naturari buruz, Ozeano eta Tetis genesiaren gurasoak egin baitzituzten, eta jainkoen hitz-zinaren lekukoa, ura –(olerkariek) Estigia deiturikoa–. Zaharrena baita estimagarriena. Hala ere, ez dago batere garbi naturari buruzko <iritzi> hori hasierako eta antzinako iritzia izan zen ala ez; dena dela, Talesek kausa lehenaz horrela adierazi omen zuen.

2. PLUTARKO, *Isis eta Osiris* 34 (A 11). Talesek bezala, Homerok ere ezarri zuen ura den ororen printzipiotzat eta genesiatzat, egiptoarrengandik hala ikasi baitzuen.

3. HERAKLITO HOMERIARRA, *Homerori buruzkoak* 22. Izaera hezeak, gauza bakoitzaz erraz antzaldatzen denez, itxura asko hartu ohi ditu. Izan ere, lurrintzen zaion zatia aire bihurtzen da, eta airetik ilaunen dena eter egiten da, baina ura, itxirik eta lohiturik, lur bilakatzen da. Hori dela eta, Talesek baieztatu zuen ura osagaia zela, lau osagaietatik kausa moduko egokiena alegia.
4. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* 294a28 (A 14). Beste batzuen ustez lurra ur gainean dago kokatuta. Hori da, hain zuzen, tradizioak gureganaino ekarri digun adierazpenik zaharrena, Miletoko Talesek eman zuena: ur gainean dagoelako ez dela erortzen, egurra edo horrelako beste zerbait bezala —izan ere, horrelako gauzak ez dira berez airearen gainean egoten, baina bai uraren gainean—. Lurrari buruzko arrazoinamendua lurrari berari eusten dion urari buruzko arrazoinamendu bera ez balitz bezala!
5. SENEKA, *Naturako gaiak* 3.14 (A 15). Talesena uste okerra da, lurra uraren gainean dagoela esaten baitu, eta itsasontzi baten modura ibiltzen dela, eta haren mugimenduak bultzatzen duela mugitzera, ikara egiten duenean.
6. ARISTOTELES, *Arimari buruz* 411a7 (A 22). Batzuek esaten dute arima osotasunean dagoela nahasturik. Agian horregatik uste izan zuen Talesek gauza guztiak jainkoz beterik daudela.
7. ARISTOTELES, *Arimari buruz* 405a19 (A 22). Itxura denez, Talesek ere —gogoratzen dutenaren arabera— arima mugimendu-eragile zela uste zuen, esan baitzuen, behintzat, iman harriak arima duela, burdina mugiarazten duelako.
8. AEZIO, *Filosofoen iritziak* IV 2, 1 (A 22 a). Talesek baino lehenago inork ez zuen adierazi arima beti mugimenduan dabilen edo bere burua mugitzen duen izaerakoa denik.

Oharrak

[1] Talesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 11. atalean daude bilduta (I, 67-81 orr.). Berariazko bibliografia: Cappelletti, A. J., *Ciencia jónica y pitagórica*, Caracas 1980. Davies, C., «Thales of Miletus. The beginnings of Greek thought«, *History Today (HT)* 20,1970, 86-93. Dicks, D. R., «Thales«, *Classical Quarterly (CQ)* 9, 1959, 294-309. Maddalena, I.: *Ionici Testimonianze e frammenti*, Florencia 1963. West, M. L. «Three presocratic cosmologies«, *CQ* 13, 1963, 154-76;

[2] Zati eta berri bakoitzaren hasieran adierazten da iturria.

[3] Diels-Kranzen edizioaren atala lehenengo zatian eta lehenengo berrian adieraziko da; zalantzarik ez badago, besteetan zatiaren eta albistearen zenbaki ordinala besterik ez da adieraziko.

ANAXIMANDRO[1]

Anaximandroren zatiak

1. SINPLIZIO, *Fisika*, 24, 13 (12 B 1). Izakien[2] printzipioa mugarik eza[3] dela esan zuen…, eta izakiei izatea eman zitzaien horretan heriotza ere iristen zaie beharraren kariaz. Izan ere, elkarri ordain zuzena ematen diote zuzentza-ezagatik, denboraren kariaz.
2. HIPOLITO, *Heresia guztien gezurtabidea*, I 6, 1 20 (B 2). Hau (mugarik ezaren izaera) betikoa da eta ez da sekula zahartzen.
3. ARISTOTELES, *Fisika* III 4, 203b13 (B 3). Hilezkorra... eta suntsiezina (mugarik eza).
4. AEZIO, II 20, 1 (B 4). Zirimola-hodi.
5. Ibidem, III 10, 2 (B 5). Harrizko zutabe baten antzekoa da lurra.

   Hitz askeak: «ernalgarri«, «hartzen du bere baitan«, «gobernatzen du«, «geruza«.

Anaximandrori buruzko berriak

1. SINPLIZIO, *Fisika* 24, 13 (12 A 9). Anaximandrok ... esan zuen izakien printzipioa eta osagaia mugarik eza dela, eta bera izan zen aurrena printzipioari halako deitura jarri ziona. Eta esaten du hura ez dela ez ur ezta osagai deituriko besteren bat ere, beste izaera mugagabe bat baizik, eta hortik sortzen direla zeruak eta haietan diren munduak; «izakiei izatea eman zitzaien horretan heriotza ere iristen zaie beharraren kariaz. Izan ere, elkarri ordain zuzena ematen diote zuzentza-ezagatik, denboraren kariaz«, horrela gai horietaz hitz oso poetikoak erabiliz. Agerikoa da, lau osagaien elkarrekiko bilakaera ikusita, hark ez zuela onetsi lauotako bat substrato gisa, haietaz aparteko beste zerbait gisa baizik; baina hark ez du ulertzen sorkuntza osagaiaren bilakaeraz gertatzen denik, betikoa den mugimenduaren kariaz, aurkarien bereizketaz baizik. Aurkariak beroa eta hotza, lehorra eta hezea, eta gainerakoak dira.

2. HIPOLITO, *Heresia guztien gezurtabidea* I 6, 1-7 (A 11). Anaximandrok... izakien printzipioa mugarik ezaren izaera bat dela zioen, eta handik sortzen direla zeruak eta haietan dagoen ordena; hura betikoa da eta ez da zahartzen, eta mundu guztiak inguratzen ditu. Denbora aipatzen du, sortzea, izatea eta hiltzea mugaturik baleude bezala. Izakien printzipioa eta osagaia mugarik eza dela esan zuen, aurrena izanik *printzipio* hitza erabiltzen; eta, horretaz gain, etengabeko mugimendua darabilela eta hartan direla zeruak sortuak. Lurra goian dago eta ez dio ezerk eusten, baina geldi dagoela, gauza guztietarainoko distantzia berdina duelako; eta haren forma okerra dela, alegia biribila, harrizko zutabe baten antzera; eta lurrazala dugu gainean, baina bada beste bat beste aldean. Izarrak suzko biribilak dira, kosmosaren sutatik bereiziak eta airez inguratuak. Horretan barne-bide batzuk daude, tutuen antzeko arnasa-zuloen modukoak, eta horietan ageri dira izarrak. Horregatik, zuloak ixten direnean eklipseak sortzen dira. Ilargia batzuetan betea, eta besteetan behera ageri da, zuloen ixtearen edo irekitzearen arabera. Ekiaren biribila lurrarena halako 27 da eta Ilargiarena halako 18; kosmosaren alderik goienean Ekia dago eta alderik behekoenean izar geldiak daude. Animaliak Ekiak lurrundutako hezetasunetik sortzen dira. Gizakia beste animalia baten antzekoa sortu izan zen hasieran, arrain baten antzeko hain zuzen. Haizeak airetik bere isuririk arine-

nak bereiztean sortzen dira, eta behin bilduz gero mugitu egiten dira; euria, Ekiaren eraginez lurraren gainean gertatzen den lurrunketaz; eta tximistak, hodeiak jotzen dituen haizeak beraiek zarrastatzen dituenean.

3. HERMIAS, *Filosofo jentilen satirak*, 10 (A 12). Anaximandrok, Talesen hirikideak, betiereko mugimendua hezetasuna baino printzipio zaharragoa dela esaten du, eta horren eraginez izaki batzuk sortuak eta beste batzuk deseginak direla.
4. AEZIO, *Filosofoen iritziak*, I 3, 3 (A 14). Anaximandrok izakien printzipioa mugarik eza dela dio, hortik sortzen baitira gauza guztiak eta gauza guztiak hara desegiten; eta horregatik jaiotzen dira mundu zenbatezinak eta berriro desegiten dira sortu diren hartan.
5. ARISTOTELES, *Fisika* III 4, 203b10 (A 15). Hau (mugarik eza) omen da beste izakien printzipioa, «dena hartzen du bere baitan eta dena gobernatzen du« eta, gainera, jainkozkoa da, «hilezkorra eta menderaezina« baita, (...) Anaximandrok eta fisiologo gehienek dioten modura.
6. ZENTSORINO, *Jaiotza-datari buruz* 4, 7 (A 30). Miletoko Anaximandrok uste zuen ezen bai arrainak bai arrainen antzeko animaliak berotutako uretatik eta lurretik sortu zirela; hantxe moldatu zirela gizakiak eta barnean bizi izan zirela, umekien antzera, haurtzarora arte. Orduan, haiek haustean, berez elika zitezkeen gizon-emakumeak sortu ziren.
7. SAN AGUSTIN, *Jainkoaren Hiria*, VII, 2. Anaximandrok ez du uste gauza bakoitzak printzipio bakarra duenik. (…) Gauza bakoitzaren printzipioak mugagabeak direla uste du, eta zenbatezineko munduak sortzen dituztela eta gauza guztiak haiengan dutela sorburu. Mundu horiek desegiten diren neurrian sortzen direla pentsatzen du, eta ez duela axolarik bakoitzaren existentziari eman zaion iraupenak, gauzen ekintzek ez baitute onartzen jainko-agindurik.

Oharrak

[1] Anaximandroren zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 12. atalean daude bilduta (I, 81-90 orr.). Berariazko bibliografia: Asmis, E., «What is Anaximander's *apeiron*?«, *Journal of the History of Philosophy (JHP)* 19, 1981, 279-97. Davies, J. C., «Anaximander of Miletus«, *HT* 20, 1970, 263-9. Kahn, C. H., *Anaxi - mander and the Origins of Greek Cosmology*, N. Y. 1960. Kirk, G. S., *The apeiron of Anaximander*, Londres 1962. Seligman, P., «Some Problems in Anaximander«, *CQ.* 5, 1955, 21-38.

[2] Testuinguru honetan *tò ón* formak oraindik ez du jasoa Parmenidesen poeman jasoko duen esanahi konplexua; beraz, testuinguru honetan *izaki* terminoak zuzen adierazten du *tò ón*; Parmenidesen testuetan, berriz, *badena* itzuliko dugu.

[3] *Tò ápeiron*

ANAXIMENES[1]

Anaximenesen zatiak

1. PLUTARKO, *De prim. frig.* 947 F. (13 B 1). Izan ere, (Anaximenesek) dio hotza estututakoa eta kondentsatutakoa dela; eta beroa (...) arraroa eta lasaia. Esaten duenez, ez arrazoirik gabe, gizakiak ahotik gauza beroak eta hotzak botatzen ditu. Hatsa, izan ere, hoztu egiten da ezpainek bera estutu eta kondentsatzen dutenean; baina, behin aho berotik kanporatuz gero, berotu egiten da, arrarotzean.

2. AEZIO I 3, 4 (B 2). Anaximenesek (...) izakien sorburua airea dela baieztatu zuen. Izan ere, dena han sortzen eta dena han hiltzen da. «Nola gure arimak –dio–, airea izaki, eusten dion gure batasunari, hala mundu osoari hatsak eta aireak eusten diote«.

3. *Ibídem* I 22, 1 (B 2a). Ekia orri bat bezain laua da.

Anaximenesi buruzko berriak

1. TEOFRASTO, Sinplizioren arabera, *Fisika* 24, 26 (13 A 5). Miletoko Anaximenesek, Euritratoren seme eta Anaximandroren adiskide, azpiko natura bakarra eta mugagabea dela zioen, baina ez zehaztugabea, Anaximandrok esan bezala, zehaztua baizik, eta airea deitzen dio; bestalde, (airea) desberdin egiten da substantzietan arrarotze eta kondentsazio bidez, hau da, arraroago egitean, su bihurtzen da, baina kondentsatzean, haize, gero hodei eta areago ur, gero lur, gero harri, eta are gainerakoa ere, gauza haien guztien hondarrean. Eta mugimendua, aldaketa sortzen duena alegia, hark ere betikoa egiten du.

2. HIPOLITO, *Heresia guztien gezurtabidea* I 7 (A 7). Anaximenesek, hura ere Miletokoa eta Euritratoren seme, printzipioa aire mugagabea zela esan zuen, eta handik sortuak direla bai sortzen ari diren gauzak bai izan direnak eta izango direnak ere, bai jainkoak bai jainkozkoak, eta gainerakoak haren ondorengoak direla. Airearen itxura honako hau da: guztiz uniforme dagoenean ikusmenari ikusezin egiten zaio, baina hotzaz, beroaz, hezeaz eta mugimenduaz nabaritu egiten da. Izan ere, beti ari da mugitzen, ez bailitzateke aldatzen den guztia aldatuko, mugituko ez balitz. Kondentsatzean eta arrarotzean desberdin azaltzen da, formarik xumeenera aldatzen denean, su bihurtzen baita; haizeak, era berean, kondentsatzen ari den airezkoak dira. Hodeia, trinkotze bidez, airetik osatzen da, eta ura ere bai, gehiago trinkotzen denean; baina are gehiago kondentsatzen denean lurrera da bihurtzen, eta kondentsazio-neurria handiena denean harriak dira sortzen. Beraz, sorkuntzaren eragilerik garrantzitsuenak aurkariak dira: hotza eta beroa. Lurra laua da, aireak eramana, eta, era berean, bai Ekia, bai Ilargia eta bestelako izarrak, suzkoak izanik, airearen gainean dabiltza arrapaladan lauan zehar. Izarrak lurretik dira sortuak, hortik igotzen den hezetasunagatik, eta bera arrarotzean sua da sortzen, eta goia jotzen duen sutik izarrak osatzen dira. Lurrezko izakiak ere badira izarrak dauden tokian eta haien parean jiraka dabiltza. Dio izarrak ez direla mugitzen lur azpitik, beste batzuek irudikatu duten bezala, lurraren inguruan baizik, nola kapela jirabiraka ibiltzen den gure buruaren inguruan. Ekia ez da lur azpian egoteagatik ezkutatzen, lurraren goialdeen azpian egoteagatik eta

beraren eta gure arteko distantzia handiagoaren ondorioz baizik. Izarrek, berriz, ez dute berotzen, oso distantzia handia dagoelako. Haizeak sortzen dira, airea, kondentsatzean, haiek mugitua denean; kontzentratuz eta gero eta lodiagoa eginez hodeiak osatzen dira, eta horrela ur bihurtzen. Hodeietatik eroritako ura gogortzean gertatzen da txingorra, eta elurra, hodeiak beraiek, urez hanpaturik egonik, gogortzen direnean. Tximistargia, haizearen bortizkeriaz hodeiak bereizten direnean, haiek bereiztean distira gorri eta suzkoa sortzen baitira. Ortzadarra sortzen da Eki-izpiak estututako airearen gainera erortzen direnean; eta lurrikara, lurra beroak eta hotzak guztiz hunkiturik dagoenean.

3. ARISTOTELES, *Metafisika* I 3, 984a5 Anaximenesek eta Diogenesek baieztatzen dute airea uraren aurrekoa dela eta gorputz bakunen printzipio nagusia airea dela.

4. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II, 14, 3 (A 14). Anaximenesek esaten du izarrak iltzatuta daudela iltzeak kristalinoan bezala.

5. *Ibidem* II 20, 2 (A 15). Anaximenesek Ekia suzkoa dela baieztatu zuen.

6. *Ibidem* II 23, 1 (A 15). Anaximenesek esaten du izarrek beren norabideari jarraitzen diotela, airearen kondentsazioak eta bere aurkakoak bultzaturik.

7. *Ibidem* II 25, 2 (A 16). Anaximenesek Ilargia suzkoa zela esaten du.

8. *Ibidem* III 4, 1 (A 17).

Anaximenesen ustez, hodeiak sortzen dira airea gero eta lodiagoa egiten denean, eta trinkatzen denean orduan euria estutzen du; txingorra, ura beherako bidean gogortu egiten denean, eta elurra, hezetasunean haizea sartzen denean.

9. ARISTOTELES, *Metereologia* 365b6 (A 21). Anaximenesek dio lurra laurdenkatu egiten dela, hezetasuna hartzean eta baita lehortzean ere, eta dardarak hartzen du puska laurdenkatuak bere gainera erortzen direnean. Izan ere, lehorteetan eta euria ugari egiten duenean sortzen dira dardarak. Lehortea denean, esan bezala, lehortzearekin batera laurdenkatzen da, baina urarengatik gehiegi bustitzean, puskaka erortzen da.

10. FILOPONO, *Aristotelesi buruzko iruzkinak, Arimari buruz* 9, 9 (A 23). Batzuek arima airezkoa dela esaten dute, hala nola Anaximenesek eta estoikoren batzuek.

Oharrak

[1] Anaximenesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 13. atalean daude bilduta (90-95 orr.). Berariazko bibliografia: bibliografía orokorrari ondoko artikulua gaineratu dakioke: Classen, C. J., «*Anaximander and Anaximenes: The Earlest Greek Theories of Change?*«, *Phronesis (Phr.)* 22, 1977, 89-102.

HERAKLITO[1]

Heraklitonen zatiak

1. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 132 (22 B 1)
   Beti indarrean bada ere, arrazoi[3] hau ulertzeko ezgai azaltzen dira gizakiak, bai entzun aurretik bai entzundakoan. Izan ere, den-dena arrazoi horren arabera gertatzen bada ere, ezjakinak dirudite, hitzetan eta ekintzetan adituak diren arren, nik horrelako hitz bakoitza eta ekintza bakoitza zehatz-mehatz eta haren izaeraren arabera nolakoa den adierazten dudanean. Baina gainerako gizakiak ez dira ohartzen esna egonik egindakoaz, lo egonik egindakoaz ahazten diren moduan.

2. KLEMENTE, *Stromateis* V 105 (B 34)
   Entzuna ulertzeko ezgai, gorrak dirudite.
   Ongi dagokie halako erran zaharra:
   «Hemen izanik, han da oraino«.

3. *Ibidem* II 8 (B 17)
   Izan ere, gehienek ez dituzte ulertzen topatzen dituzten
   halako gauzak,
   eta irakatsita ere, ez dituzte ezagutzen,
   baina hala iruditzen zaie.

4. MARKO AURELIO, IV 46 (B 72a)
   Gehienbat etengabeko harremana duten horrekin,
   osotasuna gobernatzen duen arrazoi horrekin,
   ez daude ados.

5. HIPOLITO, IX 9 (B 55)
   Begi-belarriz ikas daitezkeenak
   ditut nik orobat maiteenak.

6. POLIBIO XII 27(B 101a)
   Belarriak baino begi-soak,
   lekuko zehatzagoak.

7. KLEMENTE, *Stromateis* V 141 (B 35)
   Beharrezkoa da jakituria maite duten gizonak
   kontu askoren jakitunak izatea beraiek denak.

8. TEMISTIO, *Or.* 5 p. 69 (123)
   Naturak bere burua
   ezkutatzea du gustukoa.

9. HIPOLITO, IX 9 (B 54)
   Ikusten ez den harmonia,
   ikusten dena baino sendoagoa.

10. KLEMENTE, *Stromateis* IV 4 (B 22)
    Urreketariek lur asko zulatu
    baino gutxi aurkitu.

11. *Ibidem* II 17 (B 18)
    Ezustekoa dena ez baduzu espero,
    ez duzu sekula aurkituko,
    aurkitzen eta iristen zaila baita.

12. PLUTARKO, *Coriolano* 38 (B 86)
    Fede ezak bultza
    eta gal ezagutza.

13. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 126 (B 107)
    Lekuko eskasak dira gizakientzat
    arima arrotza[4] dutenen begi-belarriak.

14. PLUTARKO, *Apoliniar orakuluez* 404d-e (B 93)
Delfosen santutegia duen Jainkoak[5]
ez du azaltzen, ez du ezkutatzen,
seinaleak ematen ditu.

15. PLUTARKO, *Colotesen kontra* 20, 1118c (B 101)
Neure barnean arakatu nuen.

16. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 1 (B 40)
Erudizioak ez du zuhurtzia irakasten,
bestela irakatsiko baitziekeen Homerori eta Pitagorasi,
eta Xenofanesi eta Hekateori.

17. *Ibidem* VIII 6 (B 129)
Beste edozein gizakik bainoago, Pitagoras Mnesarkoren semeak,
ekin zion ikertzeari, eta idatzi horiek laudatu ondoren
bere zientzia sortu zuen:
orotariko jakituria, maltzurkeria.

18. FILODEMO, *Erretorika* I, 57 eta 72 (B 81)
(Pitagoras) iruzurtien buru.

19. KLEMENTE, *Stromateis* V 9 (B 28b)
Justiziak kargu hartuko die
gezur-egileei eta gezur-asmatzaileei.

20. *Ibidem* V 9 (B 28a)
Ospetsuenek sinesmen hutsak
ezagutu eta gordetzen dituzte.

21. HIPOLITO, IX 9, 5 (B 56)
Oker dabiltza gizakiak ageriko gauzei buruzko ezaupidean, Homero, grekoen artean jakintsuenetakoa, bezala. Hori, izan ere, zorriketan ziharduten mukizu batzuek engainatu zuten eta tronparazi, esan baitzioten: «Ikusi eta harrapatu genituen horiek, utzi egin ditugu; ikusi eta harrapatu ez genituen horiek, ordea, gurekin daramatzagu«.

22. PLUTARKO, *An. seni. resp.* 787c (B 97)
Zakurrek, benetan, ezagun ez dutenari zaunka egiten diote.

23. ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 179. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 133 (B 114+2)
Adimena gidari dutenek oinarri hartu behar dute ororena den horretan, nola estatu batek bere legedian, are oinarrizkoagoa baita berau. Izan ere, diren lege guztiek bat eta bakarra dute sorburu: lege jainkoarena; zeren han-hemen zabaltzen baita, eta batzuek peitu dute eta besteek sobera. Ororena denari behar zaio jarraitu, baina, arrazoimena ere orotan ororena izanik, gehienek norberarena bailitzan bizi dute.

24. PLUTARKO, *Superstizioari buruz* 166c (B 89)
Esna daudenentzat mundua bat eta ororena da,
baina lo dagoen bakoitza bere mundu propiora jiratzen da.

25. PSEUDO ARISTOTELES, *Munduari buruz* 5, 396b (B 10)
Elkartzekoak direnak:
oso eta oso ez dena,
batera eta banaka,
aurkia eta ifrentzua,
gauza orotatik bat
eta bat orotatik.

26. HIPOLITO, IX 9, 1 (B 50)
Ez ni entzunda, arrazoia baizik,
onartzen du jakitunak oro bat dela.

27. *Ibidem* IX 9, 2 (B 51)
Ez dute ulertzen nola nork, bere buruarekin bananduta egonik, bat egiten duen bere buruarekin: aurkiaren arteko harmonia, arkuaren eta liraren artekoa bezalakoa.

28. ORIGENES, *Zeltsoren kontra* VI 42 (B 80)
Jakin behar da orotan dagoela gerra,
eta justizia gatazka dela,
eta dena gertatzen dela
gatazkaren eta beharraren arabera.

29. HIPOLITO, IX 9, 4 (B 53)
Den ororen aita da gerra, den ororen errege:
batzuk jainko izendatu ditu, besteak, gizaki;
batzuk esklabo egin ditu, besteak, aske.

30. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 1 (B 42)
Homerok ongi merezia du lehiaketatik kanpo bidalia izatea
eta astin-astin eginda uztea. Arkilokok ere bai.

31. TEOFRASTO, *De vertig.* 9 (B 125)
Garagardoa ere desegiten da, astintzen ez bada.

32. HIPOLITO, IX 10, 4 (B 59)
Txarrantxariaren arrasteluan, ibilbide zuzena eta okerra bat dira
eta bera.

33. *Ibidem* IX 10, 4 (B 60)
Bidean gora, bidean behera, bat eta bera.

34. PORFIRIO, *Homeriar kontuak, Iliada* IV 4-ri (B 103)
Zirkuluaren lerroan hasiera eta amaiera bat dira.

35. HIPOLITO, IX 10, 5 (B 61)
Itsas ura, urik garbiena eta zikinena:
arrainentzat edateko ona da eta bizigarria;
gizakientzat, edateko txarra eta hilgarria.

36. KLEMENTE, *Protreptiko* 92, 4 (B 13)
Zerriek atseginago dute ur lohia ur garbia baino.

37. ARISTOTELES, *Nikomakorentzako Etika* X, 5 (B 9)
Astoek lastoa nahiago dute urrea baino.

38. KOLUMELA, VIII, 4 (B 4)
Zoriona gorputzaren gozamena balitz, idiak zoriontsuak direla
esan beharko genuke, jateko basa-ilarrak aurkitutakoan.

39. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* I 8 (B 48)
Arkua: izenez, bizi; egitez, herio[6].

40. ARIO DIDIMO, Eusebioren *Praeparatio euangelican* XV 20 (B 12)
Ibai beretan sartzen direnak, ur besteek eta besteek bustitzen
dituzte.

41. PLUTARKO, *Apoloniorentzako doluminak* 106e (B 88)
Bat bera balitz bezala dago gurean bizi dena eta hilik dena,
lo dagoena eta esna dagoena, gaztea eta zaharra,
ezen bata aldatuta bestea baita, eta bestea berriro aldatuta, bata.

42. TZETZES, *Iliada* 11ri *oharra* (B 126)
Gauza hotzak berotu, beroa hoztu;
hezea lehortu, lehorra hezetu.

43.HIPOLITO, IX 10, 2 (B 57)
Hesiodo da gizaki gehienen maisu.
Orotan jakitunentzat dute bera,
gaua eta eguna ulertzeko gai ez zena,
biak bat baitira[7].

44.ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 177 (B 111)
On eta atsegin egin zuen gaixotasunak osasuna,
goseak, asetasuna; nekeak atsedena.

45. KLEMENTE, *Stromateis* IV 9 (B 23)
Justiziaren izena ez lukete ezagutuko,
halakorik ez balego.

46.HIPOLITO, IX 9, 4 (B 58)
Sendagile horiek, ebaki eta erre egiten dutenak,
guztiz kexu dira emandako soldata egokia ez dela pentsatzen baitute.
Baina gauza berberak egiten dituzte haiek eta gaixotasunek!

47. *Ibidem* IX 10, 6 (B 62)
Hilezkorrak, hilkor; hilkorrak, hilezkor;
batzuek besteen heriotza bizi,
besteek batzuen bizitza hil.

48. KLEMENTE, *Stromateis* IV 141 (B 26)
Gizon batek gauean kriseilua pizten du beretzat,
begiak lauso baititu.
Eta bizirik egonik,
lotan heriotza ikusten du;
eta esna egonik,
lotia ikusten du.

49. *Ibidem* III 21 (B 21)
Heriotza da esna egonik ikusten duguna,
Eta lo egonik, ametsa.

50. KLEMENTE, *Protreptico*,34, 5 (B 15)
Dionisoren omenez egingo ez balute prozesiorik
eta lotsariei kantatuko ez baliete,
lotsagarriena egingo lukete.
Hades eta Dioniso bat eta bera dira,
eta hura omentzeko erotu eta bakanalak egiten dituzte.

51. KLEMENTE, *Stromateis* V 104. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 294, 4 (B 30)
Mundu hau, ororentzat berbera,
ez zuen ez Jainkoak ez gizakiak egin;
aitzitik, beti izan da, da eta izango da
dirakien sua, neurriz irazekia eta
neurriz iraungia.

52. PLUTARKO, *De Exil*. 604a (B 94)
Ekiak ez du bere neurririk gaindituko.
Bestela, Eriniek, Justiziaren mirabeek,
damuaraziko dute.

53. KLEMENTE, *Stromateis* V 105 (B 31)
Sua, aurrena, itsaso bilakatzen da,
eta itsasoaren erdia lur
eta beste erdia haize errea. (...).
Lurra itsasoa bezala zabaltzen da,
eta lur sortu aurretik zegoen
arrazoi berberaren arabera neurtzen da.

54. PLUTARKO, *De E apud Delphos* 388e(B 90)
Gauzak oro suaren ordain dira eta sua gauza ororena,
urrearena salgaiak eta salgaiena urrea bezala.

55. HIPOLITO, IX 10, 7 (B 65)
Sua aseezina eta asebetea.

56. PLOTINO, IV 8, 1 (B 84ab)
a) Aldatuz hartzen da atseden.
b) Atsekabetsua da besteentzako nekeak hartzea
eta haien agindupean bizitzea.

57. AEZIO, II 21 (B 3)
(Ekia) giza oinekoa da zabal.

58. ARISTOTELES, *Metereologia*, II 2, 355a (B 6)
Ekia egunero berria da.

59. PLUTARKO, *Kamilo* 19 (B 106)
Egun ororen izaera bakarra da.

60. PLUTARKO, *Aq. an ing. util.* 957a (B 99)
Ekirik ez balego, gaua izango litzateke gainontzeko izarrei esker.

61. ESTRABON, I 6 (B 120)
Egunsentiaren eta ilunabarraren arteko mugak, Hartza, eta Hartzaren aurre-aurrean, Zeus distiratsuaren muga.

62ab. *Iliada* XVIII 251-ri oharra. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* I 23 (105+38)
a) Homero astrologoa zen.
b) Tales izan zen astroak ikasten aritu zen lehena.

63. PLUTARKO, *Platoniar kontuak* 1007d (B 100)
Urtaroek gauzak oro daramatzate.

64. KLEMENTE, *Stromateis* VI 17 (B 36)
Arimentzat herioa ur bihurtzea da, uren herioa lur bihurtzea, baina ura lurretik sortzen da eta arima uretatik.

65. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 7 (B 45)
Arimaren mugak ez dituzu oinez ibilian aurkituko, zernahi den ibilitako bidea; hain da sakona haren arrazoia.

66. ESTOBEO, *Florilegium* III 5, 8 (B 118)
Arima lehorra, jakintsuen eta onena.

67. *Ibidem* III 5, 7 (B 117)

Gizon bat horditzen denean, haur batek eramana da, balantzaka, jakin gabe nondik nora doan, arima hezea baitu.

68. PLUTARKO, *Koriolano* 22 (B 85)
Zaila bihotz-arimaz borrokatzea: nahi dena arimaren truke erosten baita.

69. ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 176 (B 110)
Gizakiei nahi duten oro gerta dakien ez zaie onurazko.

70. PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 943d (B 98)
Arimak usnaka doaz Hadesetik.

71. HIPOLITO, IX 10, 6 (B 63)
Altxatu egiten dira berriro eta hilen eta bizien beilari bihurtzen.

72. KLEMENTE, *Stromateis* IV 144 (B 27)
Gizakiek, hil ondoren, espero eta irudikatzen ez dituzten gauzak izango dituzte.

73. PLUTARKO, *Questionum Convivalium* IV 668f (B 96)
Gorpuak simaurra baina botatzekoagoak dira.

74. HIPOLITO, IX 10, 8 (B 67)
Jainkoa egun-gaua, uda-negua, gerra-bakea, ase-gosea. Baina berriro itxuraldatzen da, sua bezala, intsentsu hautsekin nahasten denean, bakoitzaren gustuaren arabera deitzen da.

75. ARISTOTELES, *Sentimenaz* V 443 (B 7)
Gauzak oro ke bihurtuko balira,
sudur-mintzek bereiztuko lituzkete.

76. HIPOLITO, IX 10, 7 (B 64)
Oro zuzentzen du tximistak.

77. PSEUDO ARISTOTELES, *Munduaz* 6, 401a (B 11)
Animalia oro kolpe batez da gobernatua.

78. KLEMENTE, *Pedagogo* II 99, 5(B 16)
Inoiz sartzen ez den horretatik, nola ezkuta liteke inor?

79. HIPOLITO, IX 10, 7 (B 66)
Gauzak oro epaitu eta kondenatuko ditu suak, iristen denean.

80. ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 174 (B 108)
Hitz egiten entzun ditudanetatik, inor ez da iristen ulertzera, jakituria beste gauza guztietatik bereizirik dagoela.

81. KLEMENTE, *Stromateis* V 115 (B 32)
Bat eta bakarra den jakitunak nahi du eta ez du nahi Zeus izenez deitua izan.

82. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 1 (B 41)
Bat da jakituria: gauzak oro gauza ororen bidez gidatzen dituen adimena ezagutzea.

83. ARISTOKRITO, *Teosofia* 68 (B 5)
Alferrik garbitzen dituzte beren buruak besteen odolaz zikinduz, norbait lokatzetan sartuta lokatzez garbituko balitz bezala. Eta gizakiren bat horrela jokatzen duela ohartuko balitz, erotzat hartuko luke hura. Eta estatuei egiten diete otoitz, hormekin hizketan ariko balira bezala, jakiteke zer diren jainkoak eta zer diren heroiak.

84. KLEMENTE, *Protreptiko* 22, 2 (B 14b)
Gizakien iritziz misterioak direnetan sarbideratzen dira, sakrilegio eginez.

85. JANBLICO, *Egiptoko misterioei buruz* 1, 11 (B 68)
(Lizun erritoak) sendagarriak dira.

86. MARKO AURELIO, IV 46 (B 74)
Ez da (ez hitz egin ez jokatu behar gure) gurasoen semeok bezala.

87. ORIGENES, *Zeltsoren kontra* VI 42 (b 78)
Giza izaerak ez du ulermenik,
jainkotiarrak, bai.

88. PORFIRIO, *Homeriar kontuak*, *Iliada* IV 4-ri (B 102)
Jainkoarentzat den oro da eder, on eta zuzena, baina gizakiek batzuk zuzengabetzat hartzen dituzte eta beste batzuk zuzentzat.

89. ORIGENES, *Zeltsoren kontra* VI 42 (b 79)
Jainkotasunaren aurrean gizona ume da deitua;
haurra gizonaren aurrean bezala.

90. HIPOLITO, IX 9, 4 (B 52)
Denbora jokatzen duen haurra da, dama-jokoan.
Haurrarena da erregetza.

91. ESTOBEO, *Florilegium* IV 40, 23 (B 119)
Gizakiarentzat izaera bere demonioa da.

92. KLEMENTE, *Stromateis* V 59 (B 29)
Onenek gauza bat aukeratzen dute ororen aurrean:
betiereko ospea, gauza hilkorren ordez.
Baina gehienak abereen gisa dira haziak.

93. *Ibidem* IV 16 (B 24)
Guduan eroritakoak jainkoek eta gizakiek goresten dituzte.

94. *Ibidem* IV 49 (B 25)
Heriotza handiagoari are ohore handiagoa dagokio.

95. GALENO, *De dignoscendis pulsibus* VIII 773 (B 49)
Bat bakarra mila bat da niretzat, onena bada.

96. KLEMENTE, *Stromateis* III 14 (B 20)
Behin jaioz gero, bizi eta beren helburua lortu nahi dute, eta gehiago ere atseden hartu; eta semeak uzten dituzte, hauek lor dezaten helburua.

97. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* I 88 (B 39)
Prienen jaio zen Bias, Teutamesen semea,
zeinaren ospea besteena baino handiagoa zen.

98.PROKLO, *Alc May.* 255 or. (B 104)
Zein da haien adimena edo zentzua?
Herrien bertsolariei sinisten diete
eta jendetza maisutzat hartzen,
jakiteke gehienak gaiztoak direla
eta gutxienak onak.

99. DIOGENES LAERZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 2 (B 43)
Gehiegikeria sutea baino lehenago itzali behar da.

100. *Ibidem* IX 2 (B 44)
Harresiaren alde bezala bere legearen
alde borrokatu behar du herriak.

101. KLEMENTE, *Stromateis* V 115 (B 33)
Bakarraren nahimenari men egitea
ere bada legea.

102. ESTRABON, XIV 25 (B 121)
Merezi lukete Efesioko heldu guztiek urkatuak izatea eta hiria haur txikiei uztea, Hermodoro erbesteratu baitzuten, haien artean baliagarriena, esanez: «Ez dadila gutako inor baliagarriena izan, eta baldin eta hala bada, izan dadila erbestean beste batzuen ondoan«.

103. TZETZES, Aristofanesen *Pluto*ri iruz. (B 125a)
Ez dakizuela zuei efesiotarroi aberastasunik falta,
froga dadin zein gaiztoak zareten.

104. TEOFRASTO, *Metafisika* 7a (B 124)
Arranpuluka jaurtitako hondakinak, munduko ordenarik ederrena.

105. KLEMENTE, *Stromateis* II 24 (B19)
Ez dakite ez entzuten ez hitz egiten.

106. PLUTARKO, *De rec. rat. aud.* 41a (B 87)
Gizaki ergela harri eta haragi geratzen da edozein hitz entzunda.

107. ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 175 (95+109)
Ezjakintasuna, ezkutuan hobe.

108. SUDA (B 122)
Hurbiltasuna.

109. ESTOBEO, *Florilegium* III 1, 180 (B 115)
Arimarena da bere burua garatzen duen arrazoi bat.

110. *Ibidem* III 1, 179 (B 47)
Ez dezagun uste okerrik izan gairik garrantzizkoenei buruz.

111. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* IX 7 (B 46)
Iritzia, gaitz sakratua.

Oharrak

[1] Heraklitoren zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 22. atalean daude bilduta (139-190 orr.). Berariazko bibliografia: Cappelletti, A.: *La filosofía de Heráclito de Éfeso*, Caracas, 1969. García Calvo: A., *Razón común*, Madril, 1985. Heidegger, M. eta Fink, E.: *Heráclito*, Bartzelona, 1986. Kirk, G. S.: *Heraclitus. The Cosmic Fragments*, Cambridge, 1962. Marcovich, M.: *Heraclitus. Greek Text with a short commentary*, Editio maior, Merida, 1967 (editio minor, gaztelaniaz, Merida, 1968). Mondolfo, R.: Heráclito, Mexiko, 1966.

[2] Zatien ordena A. Bernabérena da (M. Marcovichen eta García Calvoren edizioetan oinarritua): 1-50 zatiek *logos*-ari buruzko doktrina metafisikoa jasotzen dute –*logos*aren deskribapena, erudizio hutsalari kritika, *logos*aren unibertsaltasuna eta aurkarien batasunaren doktrina–; 51-93 zatiek, suari buruzko doktrina (fisika, psikologia eta teologia); eta 94-114 zatiek, etikari eta politikari buruzko doktrinak.

[3] *lógos*

[4] *bárbaros*

[5] Apolo jainkoa

[6] Hitz jokua: *biós*, arku; *bíos*, bizitza.

[7] Hesiodoren *Teogonia* 123-124 pasartean Gaua eta Eguna pertsonaia desberdinak dira.

KROTONAKO ALKMEON[1]

Alkmeonen zatiak

1. DIOGENES LAERTZIO, VIII 83 (B 1). Krotonako Alkmeonek, Piritoren semeak, hala esan zien Brotinori, Leonteri eta Batilori: agerikoak ez diren gauzei buruz, hilkorrak diren gauzei buruz, jainkoek badute ziurtasuna, baina gizakioi, gizakiak garen aldetik, aztarnen arabera epaitzea dagokigu.

1a. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 25 (B 1a). (Alkmeonek) dio gizakia gainontzeko (animali-)engandik bereizten dela, hark bakarrik ulertzen duelako. Besteek sentimendua dute, baina ez dute ulertzen.

2. PSEUDO ARISTOTELES, *Problemak* 17, 3, 916a33 (B 2). Alkmeonek dio heriotzaren kausa hau dela: ez dira gai hasiera eta amaiera elkarrekin lotzeko.

3. AEZIO, V 14, 1 (B 3). Alkmeonek esaten zuenez, mando arrak antzuak dira haien hazia arina eta hotza delako, eta mando emeak, berriz, ume-ontziaren ahoa ez zaielako irekitzen. Benetan, horrela hitz egin zuen hark.

4. *Ibidem* V 30, 1 (B 4). Alkmeonek dioenez, osasuna indarren arteko berdintasun orekatua da, hezearen eta lehorraren artekoa, hotzaren, beroaren, mikatzaren, gozoaren eta beste gainontzekoen artekoa; bataren nagusitasunak, haien baitan, berriz, gaitza dakar, bikote bakoitzaren indar baten nagusitasuna suntsitzailea baita. Gaitza, izan ere, bero edo hotz gehiegiak sortzen du, janari soberak nola

janari faltak; eta zabal daiteke odoletan, bizkar-muinetan edo garunetan. Kanpoko eragileek ere sor dezakete gaitza: jatorri edo izaera nolabaiteko urek edo nekeak edo indarkeriak edo antzekoek. Osasuna, haren iritzian, berezkotasunen arteko oreka neurtua da.

5. KLEMENTE, *Stromateis*, VI 16 (B 5). Errazagoa da etsaiarengandik gordetzea lagunarengandik baino.

Alkmeoni buruzko berriak

1. DIOGENES LAERTZIO, VIII, 83 (A 1). Krotonako Alkmeonek ere entzun zion Pitagorasi, eta komentatzen dituen kontu gehienak, behintzat, medikuntzaren ingurukoak dira; hala ere, batzuetan fisiologiari ere ekiten dio; alegia, «giza gauzarik gehienak bikoteka gertatzen dira« esaten duenean.

2. ARISTOTELES, *Metafisika* I 5, 986ab (A 3). Badirudi Alkmeon Krotoniarrak ere horrela (pitagorikoek bezala) pentsatzen zuela eta, dudarik gabe, edo horrek pitagorikoengandik hartu zuen doktrina hori, edo haiek Alkmeonengandik, Alkmeonek (...) pitagorikoen antzera azaldu baitzuen bere doktrina: giza kontu gehienak bi direla esaten du, baina ez haiek bezala kontrakoak zehatz-mehatz adieraziz, burura datozkion bezala baizik; adibidez, txuria-beltza, gozoa-mingotsa, ona-txarra, handia-txikia. Horrek zehaztu gabe hitz egin zuen gainerako kontrakoez; pitagorikoek, berriz, zenbat eta zein ziren adierazi zuten. Beraz, Alkmeonengandik eta pitagorikoengandik ondoriozta daiteke den guztiaren printzipioak kontrakoak direla.

3. AEZIO, *Filosofoen iritziak* V 3, 3 (A 13). Alkmeonek hazia burmuinaren zati bat dela dio.

4. ARISTOTELES, *Animalien Historia* VII 1, 581a12 (A 15). Hasten da arra hazia lehendabizi ekoizten, gehienez hamalau urte bete dituenean. Une berean gazte-ilea ere hasten zaio. Hazia ekoiztu behar duten landareak bezala, lehendabizi loreak erakusten dituzte eta. Hala dio Krotonako Alkmeonek.

5. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 25 (A 5). Sentsazioa ez dela antzekotasunez gertatzen diotenen artean, Alkmeon, lehendabizi, animaliekiko (gizakiaren) desberdintasuna definitzen duena. (B 1a zatia), (...). Entzuten dugu belarrietan hutsa dagoelako, eta huts horretan hotsa dago eta aireak oihartzun egiten du. Burmuinetaraino eramaten dugulako, sudurraz usaintzen dugu airea, arnasa hartzen dugun bitartean. Mihiaz zaporeak bereizten ditugu; izan ere, mihiak, beroa eta biguna izanik, bere beroa kutsatzen du; eta, zulotsua eta suabea izateagatik, zaporea hartu eta eramaten du. Begiek inguruka duten uretan zehar ikusten dute: nabaria da sua dutela, jotakoan txinpartaka hasten baitira. Distiragatik nola gardentasuna-

gatik ikusten dute, irudia islatzen dutenean: zenbat eta garbiagoak izan, are eta gehiago orduan. Zentzumen guztiak burmuinekin nola-bait loturik daude. Horren kariaz elbarritzen dira haiek mugitzen dituztenean edo tokiz aldatzen direnean; izan ere, eten egiten ditu sentsazioak ibiltzen diren bideak. Ukimenari buruz, ordea, ez zuen esan ez nola ez zerez sortzen den.

6. AEZIO, *Filosofoen iritziak* V 24, 1 (A 18). Alkmeonek dio odola ibiltzen den zainetatik apartatzen denean logalea sortzen dela, eta esnatzea odol-zabaltzea dela, eta erabateko odol-apartamentua heriotza dela.
7. ZIZERON, *De nat. deor*. Y 11, 27. Krotonako Alkmeonek jainkotzat zituen, arimaz gainera, Ekia, Ilargia eta gainerako astroak. Ez zuen ulertzen hilkor diren gauzei hilezkortasuna leporatzen ziela.

Oharrak

[1] Alkmeonen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 24. atalean daude bilduta (210-6 orr.). Berariazko bibliografia: Stella, L. A.: «Importanza di Alcmeone nella storia del pensiero greco«, *Memorie della Reale Academia dei Lincei* 6, VIII 4, 1939, 233-87. Vlastos, G.: «Isonomia«, *American Journal Of Philo - logy (AJPh)*, 74, 1953, 337-66.

KOLOFONEKO XENOFANES[1]

1. ATENEO, XI, 462 C (B 1)[2]
   Orain, bai, garbi dago zorua, eta garbiak dira denon eskuak
   eta edalontziak. Batek koroa txirikordatuak janzten ditu
   buru inguruan; besteak lurrin gozoa botatzen du edalontzian.
   Antoisina tente dago, pozez beterik; beste ardo bat dago,
   sekula ez duela hutsik egingo esaka,
   gozo-gozo anforetan, lore usainduna.
   Erdian, intsentsua, lurrin santua dariola;
   ur berria dago, gozoa eta aratza.
   Ogi horiak eskura daude eta taxuzko mahaia,
   gaztaz eta ezti lodiz mukuru.
   Aldarea, erdian, alde guztietatik loreak eskainka,
   eta kantua eta jai-giroa nagusi da etxe inguruan.
   Baina lehendabizi, gizon zentzudunek
   eresiak abestu behar dizkiote jainko bati,
   hitz garbiz eta gai jainkozkoz.
   Isurketak eta otoitzak eginda,
   zuzen eta harrokeriarik gabe
   jokatu ahal izateko indar eskea
   –hauxe baita ohikoena–,
   egin ondoren, ona da edatea,
   neurrian eta, adinekoa ez izanik,

etxera miraberik gabe
itzultzeko modua egiten bada.
Eta gizonen artean laudatzekoa da
edan ondoren zuzentasuna erakusten duena,
oroitzapenak eta bertutearekiko xerak
uzten dioten neurrian, arduratzen ez dena,
ez Titanen, ez Zentoien, ez Zentauroen arteko guduez,
antzinakoen ipuinak baitira, edo borroka bortitzez,
horietan ez baitago onuragarrizko ezertxo ere;
beti da, ordea, ona jainkoekikoak egitea.

2. *Ibidem* X, 462 F (B 2)
Baina oinen arintasunaz norbaitek irabaziko balu,
hala pentatlonean, Zeusen baso sakratuan bertan,
Olinpian, Pisa ibaiaren ondoan,
nola borrokan,
ukabilen norgehiagoka gorrian,
edo pankrazioa deitzen den lehiaketa ikaragarrian,
ospetsuago izango litzateke erkideen artean,
toki gorena izango luke biltzarretan,
eta hiriak bere altxorretik emango lioke jaten,
eta opari bat hartuko luke, preziatua benetan;
zaldiekin irabaziko balu ere, lortuko luke
hori guztia, ni bezain duina ez bada ere,
gizonen edo zaldien indarra baino baliagarriagoa
baita gure jakituria.
Baina arinkeriaz ere horixe pentsatzen da,
zuzena ez bada ere, indarra maiteagoa izatea
benetako jakituria baino.
Izan ere, jendetzaren artean balego borrokari bat ona,
edo pentatlonean edo ukabilka edo oinen arintasunean
–estimatuena baita giza lehiaketetan diren
indar-erakustaldien artean–
inork eramango ez liokeena,
ez horregatik izango luke hiriak harmonia handiagorik.
Atsegin txikia legoke hirirako
jokalari batek irabaziko balu Pisaren ondoan,
halako balentriek ez baitute hiriko altxorra aberasten.

3. *Ibidem* XII, 526 A (B 3)
Lidiarrengandik lizunkeria gaiztoa ikasi ondoren,
tirania gogorrik gabe bizi zirelarik,
plazara joaten ziren purpuraz jantzirik,
mila baino ez gutxiago,
pinpirin, orrazkera dotorez harro eta marro,
lurrin gogorren usaina botaka airera.

4. *Ibidem* XI, 18, 782 A (B 5)
Inork ez lioke edalontzi batean ardo boteaz nahasketari ekingo,
ura botako luke lehendabizi eta ardoa gero.

5. *Ibidem* IX, 368 E (B 6)
Antxume izterra bidalita zezen gizenaren pernil lodia
jaso baitzenuen, ongi merezitako oparia,
bere itzala Grezia osoraino iritsiko den
gizonarentzat, eta ez da atertuko
greziar kantaririk gelditzen den bitartean.

6. DIOGENES LAERTZIO, VIII 36 (B 7)
Orain beste gai bat harturik, bidea erakutsiko dut.
(...)
Eta behin batez, bera igarotzean kume bat zigortzen zuten tokitik,
errukitu nonbait animaliari eta hitz hauek esan omen zituen:
«Geldi hadi, ez ezak jo, benetan adiskide baten arima duk eta:
haren ahotsa entzun eta hura bera etorri zaidak gogora«.

7. *Ibidem* IX 18, 19 (B 8)
Badira dagoeneko hirurogeita zazpi urte,
greziar lurraldeak kezkaturik naramala batetik bestera.
Nire jaiotzatik hara igaroak ziren hogeita bost,
gauza hauetaz benaz hitz egiten asmatzen badut bederen.

8. *Etym. Gen.*, V.: *geras* (B 9)
Gizon adinean sartuxea baino ahulagoa.

SATIRAK

9. ATENEO, *Epit*., II 54e. (B 22)
Negu aroan, horrelako hitzak esan behar dira sutondoan,
ohe bigunean etzanik, asebeterik,
ardo gozoa edanean eta barbantzu janean:

«Nor zara eta nondik zatoz? Zenbat urte dituzu, laguna?
Zein zen zure adina medoarra etorri zenean?

10. HERODIANO, *Bi neurriko bertsoei buruz*, p. 296, 6 (B 10)
Antzinatik denek Homerorengandik ikasi dute eta...

11. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra*, IX 193. (B 11)
Homerok eta Hesiodok gizakientzat lotsagarrizko
edo irainezko den oro jainkoei leporatu zieten:
lapurreta, ezkontza lohizkoa eta elkar engainatzea.

12. KLEMENTE, *Stromateis*, V 109. (B 14).
Baina hilkorrek uste dute jainkoak jaio egin direla,
eta haien jantzi, ahots eta gorputza dutela.

13. *Ibidem* V 110 (B 15).
Baina idi, zaldi edo lehoiek eskuak balituzte,
eta pintatzerik balute esku horiekin, gizonek bezala,
jainkoen irudiak marraztuko lituzkete
eta haien gorputzak egingo, zaldiek zaldien antzera,
idiek idienera, bakoitzaren itxura islatu nahian.

14. *Ibidem* VII 22 (B 16).
Beren jainkoak sudur-txapalak eta beltzak direla diote etiopiarrek;
traziarrek, ordea, begi-urdinak eta ile-gorriak direla.

15. ESTOBEO, *Eglogak*, I 8, 2. (B 18)
Jainkoek ez zieten hasieratik gauza guztiak erakutsi hilkorrei,
baizik eta denborarekin, bilatzean, onena zer den aurkitzen dute.

NATURARI BURUZ

16. AEZIO VI 5 (B 27)
Den oro lurretik sortzen eta lurrean amaitzen baita.

17. *Ibidem* III 4, 4 (B 30)
Uraren sorleku da itsasoa, eta haizearen sorleku,
hodeien artean ez (bailitzateke jotzen duen
haizearen indarra sortuko) itsaso handirik,
ez ibai korronterik, ez Eterreko euri tantarik ez balego,
itsasoa baita hodei, haize eta ibaien sorburu.

18. KLEMENTE, *Stromateis*, V 109 (B 23)
Jainkoa bakarra da, gizakien eta jainkoen artean handiena;
haren irudia eta haren pentsamendua hilkorren desberdina.

19. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra*, IX 144 (B 24)
Dena ikusten du, dena ulertzen, eta dena entzuten.

20. SINPLIZIO, *Fisika* 23, 19 (B 25)
Ahaleginik gabe, bere adimen hutsez, eragina du osotasunean.

21. *Ibidem* 23, 10 (B 26)
Eta beti da toki berean, batere mugitzeke,
ez dagokio batetik bestera ibiltzea.

22. AKILES TAZIO, *Isagoge*, 4p. 34, 11 (B 28)
Lurraren goi-muga hau, gure oinetan ikusten dena,
lurraren mugakide da, baina behe aldera zabaltzen da
kaburik gabe.

23. SINPLIZIO, *Fisika* 188, 32 (B 29)
Lur eta ur, sortzen eta hazten den oro.

24. HERAKLITO HOMERIARRA, *Homerori buruzkoak*, c. 44 (B 31)Ekia, gainaldean, lurrari beroa emanez.

25. OHARRA BLT *Eust. Ad Hom.* (B 32)
Iris deitzen dutena hodeia da bera ere,
purpura, gorri eta beilegi bistara.

26. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* X 314 (B 33)
Denok baikara sortuak lurretik eta uretatik.

27. *Ibidem* VII 49 (B 34)
Baina, jakina, ez da gizonik halakorik ikusi duenik,
ez jainkoei eta bestelako kontuei buruz diodana
ezagutzen duenik. Izan ere, osotasuna adieraztera
ailegatuko balitz ere, ez litzateke hartaz ohartuko:
ustea da denoi oparitu zaiguna.

28. PLUTARKO KERONEAKOA, *Sinposio*, (B 35)
Haiek –usteak–, egia gordintzat har daitezela...

29. HERODIANO, *Bi neurriko bertsoei buruz*, p. 296, 9 (B 36)
Hilkorrei azaldu zaizkien gauzak oro ikustekoak dira.

30. HERODIANO, *Adierazpen bereziei buruz*, 30, 30 (B 37)
Leize-zulo batzuetan ere ur tantak isurtzen dira.

31. *Ibidem* 41, 15 (B 38)
Jainko batek sortu izan ez balu ezti horia,
pikuak gozoagoak direla esango lukete.

32. POLUX IX, 83 (B 4): Fedon argostarra izan zen txanpon-egile lehena, (...) edo lidiarrak izango ziren, bestela, Xenofanesek dioen bezala.
33. DIOGENES LAERTZIO I 23 (B 19): Astroak aztertu eta eklipseak eta solstizioak iragarri zituen lehendabizikoa Tales zela uste dute batzuek… eta horrexegatik, hain zuzen, miretsi zuten bai Xenofanesek eta bai Herodotok.
34. *Ibidem* I 111 (B 20): Kolofoneko Xenofanesek dio entzun izana duela (Epimenides) ehun eta berrogeita hamalau (urtez bizi izan zela).
35. AULO GELIO III 11, 1 (B 13): Batzuek, Filokoro eta Xenofanes horien artean direla, Homero Hesiodo baino zaharrago izan zela idatzi zuten.
36. ARISTOTELES, *Erretorika* B 23, 1399b6 (A 12): Xenofanesek baieztatu zuen bekatu berbera egiten dutela bai jainkoak jaio direla bai hil egiten direla diotenek, batean zein bestean une batez jainkoak ez baitira existitzen.

Xenofanesen pentsamenduari buruzko berriak

1. DIOGENES LAERTZIO, IX 18 (A 1). Bertsotan elegiak eta janboak idatzi zituen Hesiodori eta Homerori buruz, gezurtatuz jainkoei buruz haiek esandakoa.
2. ARISTOTELES, *Erretorika* I 400b5 (A 13). (...) Eleatarrek galdegin ziotenean ea sarraskirik eskaini behar ote zioten ala ez Leukoteari[3], hil-kantak abestearekin batera, Xenofanesek gomendatu zien jainkotzat baldin bazuten, ez abesteko hil-kantarik, eta gizakitzat baldin bazuten, ez eskaintzeko sarraskirik.
3. ARISTOTELES, *Metafisika* I 5, 986b21 (A 30). Xenofanesek, batasunaren dogma hau haiek baino lehenago aipatu zuenak —Parmenides haren ikaslea izan zela esaten baita— ez zuen ezer argitu; eta ez dirudi izaera bi hauei heldu zienik ere; aitzitik, ortzi osoari begiraturik, Jainkoa Bata dela baieztatu zuen.
4. SINPLIZIO, *Fisika* 22, 24-26 (B 31). Teofrastok dio Xenofanesek (...) uste zuela printzipioa bat dela, eta badena (*tò òn*) bat eta dena (*pan*) dela.
5. PSEUDO PLUTARKO, *Saski-naskia* 4 (A 32). Xenofanesek (...) adierazten du denboraz lurra etengabe lurperatzen dela eta poliki-poliki itsaso aldera mugitzen dela. Eta Ekia txinparta txiki ugarien bilkura dela ere badio. Eta horrekin batera jainkoei buruzko iritzia azaltzen du, alegia haien artean ez dagoela nagusigorik, ez baita zilegi jainko bat jaun baten mendeko aurkitzea. (…). Eta adierazten du lurra mugagabea zela eta zati batean ere ez dagoela airez inguratua; haren arabera, den oro, lurretik sortu zen; eta Ekia eta izarrak, hodeietatik sortzen direla dio.
6. HIPOLITO, *Heresia guztien gezurtabidea* I 14, 3 (A 33). Xenofanesek esaten du ezer ez dela jaiotzen, ez hiltzen, ez ibiltzen, eta aldaketarik gabe dena bat dela. Jainkotasuna betikoa eta bakarra dela ere badio, alde guztietan berdina, mugatua eta biribila, eta zati guztiak dituela sentimenez joak. Ekia egunero sortzen dela berriro, suzko pusken bidez; lurra mugagabea dela eta ez dagoela inguraturik, ez airez, ez zeruz; eta Ekia eta Ilargia mugagabeak direla, eta den oro lurretik sortua dela. Itsasoa gazia dela zioen, bertara nahasten diren gauza askorengatik. (...). Xenofanesek lurra itsasoarekin nahasten dela uste du, baina denboraren kariaz hezetasuna galtzen dela, eta

frogagarri gisa honako hau esaten du: barneko aldean eta mendietan maskorrak aurkitu direla, Siziliako harrobietan arrain baten eta foka batzuen aztarnak, Parosen, harkaitz baten barruan, erramu batena eta, horrekin batera, xafla batzuk Maltan, itsas animalia klase guztiekin. Dioenez, dena aspaldi basatza omen eta aztarna lokatzetan lehortu zen. Gizaki guztiak hil egiten direla itsasora eroritako lurra basatza bihurtutakoan; gero beste belaunaldi bat sortzen dela eta aldaketa hori mundu guztietan gertatzen dela gaineratu zuen.

7. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II 13, 14 (A 38). Xenofanesek dio astroak sutan dauden hodeiek sortuak direla eta, egunez itzaltzen badira ere, gauez ikatzak bezala irazekitzen direla, goiznabarrak eta ilunabarrak irazekitzea eta iraungitzea baitira.

8. *Ibidem* II 18, 1 (A 39). Xenofanesek dio itsasontzien gainetik azaltzen diren izar moduko horiek, batzuek *Dioskuroak*[4] deitzen dituztenak, mugimenduagatik distira egiten duten hodeitxoak direla.

9. *Ibidem* II 24, 9 (A 41 a). Xenofanesek dio eki asko eta ilargi ugari dagoela, lurraren latitude, sail eta toki guztietan, eta batzuetan diskoa inor bizi ez den lurralde batera joaten dela eta, horrela, hutsean zehar balebil bezala, eklipsea sortzen duela dirudiela. Ekia zuzen-zuzenean joaten dela, baina distantziagatik inguruka dabilela dirudiela.

10. *Ibidem* V 1, 1 (A 52). Xenofanesek eta Epikurok deuseztatu egiten dute azti-lana.

Oharrak

[1] Xenofanesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 21. atalean daude bilduta (113-139 orr.). Berariazko bibliografia: Eisenstadt, M.: *The Philosophy of Xenophanes of Colophon*, Austin 1970. Gentili, B. eta Prato, C.: *Poetae elegiaci.Testimonia et fragmenta*, Leipzig 1979, 144-183. Lesher, L. H.: «Xenophanes' Scepticism«, *Phron*. 23, 1978, 1-21. Rivier, A., «Remarques sur les fragments 34 et 35 de Xénofane«, *Revue de Philosophie (RPh)* 30, 1956, 37-61. Rodríguez Adrados, F.: Líricos griegos. Elegíacos y yambógrafos arcaicos. Madril 1959 (2. arg. 1981), 75-92. Untersteiner, M.: *Senofane. Testimonianze e frammenti*. Florentzia 1956.

[2] Zati gehienak hexametro daktilikotan eta elegiazko diktikotan daude idatzita. Zatien ordena Gentili eta Pratorena da.

[3] Leukotea («jainkosa zuria«) Inoren izengoitia da. Kadmoren alaba, bere semearen gorpuarekin jaurtiki zen itsasora eta jainkosa bihurtu zen. Marinelen babeslea.

[4] San Telmoren sua.

PITAGORAS[1]

Pitagoras eta jarraitzaileei buruzko berriak

1. DIZEARKO (Wehrli 33) Porfirioren *Pitagorasen Bizitza* 19 (14 A 8a). Bere jarraitzaileei esaten ziena ez dago ziur jakiterik, haien artean isiltasuna ohikoa baitzen. Alabaina, honako baieztapen hauek ezagutzera eman ziren: lehena, arima hilezkorra dela; aldatu egiten dela beste izaki bizidunengana eta, denbora garai batez, gertatutakoa berriro dela gertatzen, beraz, ezer ez dela erabat berri; eta azkenik, pentsatu behar dela bizidun guztiak kideko direla. Badirudi Pitagoras izan zela lehendabizikoa halako usteak sartu zituena Grezian.
2. EUDOXO, Porfirioren Pitagorasen Bizitza 6 (14, A 9). Horrenbeste egiten zuen ihes hilkintzetatik eta hiltzaileengandik, izaki bizidunik jateari uko egin ez ezik, ez zela ez harakinengana ez ehiztariengana hurbildu ere egiten.
3. DIOGENES LAERZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* VIII 20 (14 A 9). Izaki bizigabeen sarraskia egiten zuen, baina batzuek esaten dute oilarren eta ardi-bildotsena besterik ez zuela egiten, baina aharienik inolaz ere ez.
4. JANBLIKO, *Protreptiko* 21 (58 C 6). 1. Eliza batera zoazenean, jar zaitez belauniko eta ez ezazu ez esan ez egin eguneroko bizitzarekin zerikusi duen ezer. 2. Bidean bazabiltza, ez zaitez eliza batean sar ez belauniko jar, ezta atarira iristen bazara ere. 3. Egin itzazu sarraskiak eta jar zaitez belauniko oinutsik. 4. Urrun zaitez errepideetatik eta

ibil zaitez xendeetan zehar. 5. Urrun zaitez melanuro arrainetik, infernuko jainkoena baita. 6. Jarri galga zeure mihiari, jainkoenganako errespetuagatik. 7. Haizeak ibiltzen direnean, jar zaitez belauniko Ekoren aurrean. 8. Sua ez berpiztu labainaz. 9. Ken ezazu zuregandik ozpin-ontzi oro. 10. Zamaren bat jasotzen ari den gizonari lagun iezaiozu, baina utzi bakean lurrean utzi nahi duena. 11. Oinetakoak janzterakoan, jar ezazu lehendabizi eskuineko oina; oinak garbitzerakoan, ezkerrekoa. 12. Pitagorastarren gaiez ez mintzatu argirik gabe. 13. Ez deserokatu balantza. 14. Aberritik irtetean, ez ezazu burua itzul, Eriniak zurekin baitoaz. 15. Ez pixarik egin Ekiaren aldera. 16. Ez garbitu jarlekua erretxinadun egurrez. 17. Hazi ezazu oilarra, baina ez sarraskitu, zeren Ilargiari eta Ekiari emana baitago. 18. Ez zaitez kenize[1] baten gainean eser. 19. Ez eman bazkarik hegazti atzapar-okerrari. 20. Bide batean ez bitan bana. 21. Ez ezazu onar enara bat zeure etxean. 22. Ez eraman eraztunik. 23. Ez ezazu jainko baten irudia eraztunean graba. 24. Ez begira ispiluan kriseilu baten argira. 25. Jainkoei dagokienez, ez ezazu ezer miragarririk zalantzan jar, ezta jainkoen doktrinarik ere. 26. Ez eman barre eutsiezinari. 27. Ez azalkalik moztu sarraski batean. 28. Zeure eskuina ez eskaini txitean pitean. 29. Estalkiak kentzean, bildu itzazu eta lisatu ordura arte bete duzun tokia. 30. Ez ezazu bihotzik hozka. 31. Ez garunik jan. 32. Moztutako zure atzazal eta ileen gainean tu egin. 33. Ez barbarinik jan. 34. Kendu eltzeak errautsen gainean utzitako arrastoa. 35. Urrea duen emakumearekin ez zaitez elkartu ondorengotza izateko asmoz. 36. Hobets ezazu «irudia eta pausoa«, eta ez «irudia eta obolo hirukoa«. 37. Ez jan babarik. 38. Sar ezazu malba, baina ez jan. 39. Ez jan izaki arimadunik.

5. PORFIRIO, *Pitagorasen bizitza* 37 (18 A 2). Izan ere, bi eratakoa zen irakaskuntzaren modua: jarraitzaileen artean batzuk matematikariak ziren deituak, eta besteak, akusmatikoak. Matematikariek ezagutzaren doktrina zabalagoa eta sakonagoa jasoa zuten; akusmatikoak, berriz, idazkien doktrina gorenetan bakarrik ziren heziak, azalpen sakona entzun izan gabe.

6. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* 268a10 (58 B 17). Izan ere, pitagorastarrek dioten modura, osotasuna eta gauzak oro hiruko zenbakian definitzen dira, amaierak, erdialdeak, eta hasierak osatzen baitute osotasunaren zenbakia eta zenbaki hori hirukoa da.

7. ARISTOTELES, *Metafisika* 985b23 (58 B 4-5). Pitagorastarrak deiturikoak lehenengoak izan ziren matematikak lantzen, eta aurrera eraman zituzten; eta haietan hazita, matematiken printzipioak gauza guztien printzipioak direla uste izan zuten. Eta haien artean berez lehenengoak zenbakiak direnez gero, eta den eta bilakatzen den guztiarekin hauetan suaren, lurraren eta uraren baitan baino berdintasun gehiago ikusten omen zutenez (zenbakien afekzio jakin bat Zuzentasuna zen; beste bat, Arima eta Adimena, eta beste bat Aukera, eta nolabait esateko, berdin gainerako guztiak), eta gainera harmonien afekzio eta proportzioak zenbakietan ikusten zituztenez –gainerako gauzak beren berezko izaera osoan zenbakien antzekoak agertzen baitziren, eta zenbakiak natura osoaren lehenengoak baitziren–, orduan zenbakien osagaiak den guztiaren osagaiak direla pentsatu zuten, eta ortzi osoa harmonia eta zenbakia zela. Horrela, bada, batetik zenbakiak eta harmoniak, bestetik Ortziko afekzioak eta atalak eta ordena osoa hartuz, bi hauen artean aurkitzen zituzten egokitzapen guztiak bildu eta haien sisteman antolatu zituzten. Eta inon zerbait falta bazen, sutsu desiratzen zuten aurkitzea haien doktrina osoa ongi lotuta gera zedin. Adibidez, hamarrekoa burutua dela eta zenbakien izaera osoa hartzen duela dirudienez gero, Ortzian higitzen diren Gorputzak ere hamar direla esaten dute, eta agerian daudenak bederatzi bakarrik direnez gero, hamargarrena *Antilurra*[2] izendatzen dute. Baina askoz zehatzago azaldu dugu hori jadanik beste leku batzuetan? Orain berriz aipatzen baditugu, ezartzen dituzten printzipioak zein diren eta hauek nola erortzen diren aipatutako kasuetan ulertzeko da. Izan ere, badirudi haiek ere pentsatzen dutela zenbakia printzipioa dela, den guztiaren materia gisa ez ezik, afekzioak eta egokiera gisa ere, eta zenbakiaren osagaiak Bikoitia eta Bakoitia direla, bata mugatua eta bestea mugagabean eta Bata bi hauetatik sortzen dela (bikoitia eta bakoitia baita), eta zenbakia Batetik eratortzen dela, eta ortzi osoa, jadanik, esana den bezala, zenbakiek eratua dela.

Baina filosofo haien arteko beste batzuek printzipioak hamar direla esaten dute, baina sailkatuta.

Mugatua	Mugagabea
Bakoitia	Bikoitia
Batekoa	Anitza

Eskuina	Ezkerra
Arra	Emea
Geldirik	Mugimenduan
Zuzena	Makurra
Argitasuna	Iluntasuna
Ona	Txarra
Karratua	Laukizuzena

8. *Ibidem* 987a13-27. Pitagorastarrek (...) baieztatu zuten printzipioak bi direla, baina beraiena den ñabardura berezia gehitu zuten: ez zuten uste izan Mugagabea eta Mugatua [eta Bata] beste horrenbeste izaera desberdin direnik, sua edo lurra edo bestelako zerbait bezala, Mugagabea Bera eta Bata Bera predikatzen direnen gauza horien substantzia[3] direla baizik, eta hortik dator zenbakia ere gauza guztien substantzia izatea. Izan ere, horrela adierazi zuten kausei buruz, eta sinpleegi burutu bazuten ere, arinki definitzen zutelako, zerkiari buruz hitz egiten eta definitzen hasi ziren; horrela, lehenengo gauza non aipatutako definizioa ematen zen, huraxe dela gauzaren substantzia pentsatzen zuten, norbaitek bikoitza lehenengoz bikoan ematen delako bikoitza eta diada gauza bera dela pentsatuko balu bezala. Baina, dudarik gabe, ez da gauza bera bikoitza izatea eta diada izatea; bestela, Batekoa gauza anitz izango da, beraiei gertatu zitzaiena, hain zuzen ere.

9. *Ibidem* 989b29-990a30. Pitagorastarrak deiturikoak naturaren filosofoak baino printzipio eta osagai urrunagoez baliatzen dira (eta arrazoia zera da: ez zituztela printzipioak sentimenezko gauzetatik hartu, Errealitate Matematikoak mugimendugabeak baitira, astronomiari dagozkionak izan ezik); hala ere, naturari buruzkoak dira haien eztabaida eta ikasketa guztiak; Ortziaren genesia azaltzen dute, eta horren zatiei, eta afekzioei eta jarduerei dagokiena zorrotz aztertzen dute, hauetan printzipioak eta kausak ahitzen dituztelarik, gainerako naturaren filosofoekin bat bailetozen «den-a»[4] sentimenezko errealitatea eta Ortzi deiturikoak inguratzen duena <dela esaten dutenean>. Hala ere, esan bezala, printzipioak eta kausak nahikoak direla esaten dute den guztitik nagusienetara ere igotzeko, eta haietara naturari buruzko azalpenetara baino gehiago egokitzen direla. Baina ez dute inola ere esaten, Muga eta Mugagabea, eta Bakoitia eta Bikoitia bakarrik direlarik azpigai[5], mugimendua nola

sortuko den; edo nola den posible mugimendurik eta aldaketarik gabe genesia eta usteldura izatea ere, edo nolakoak diren ortzian zehar mugitzen diren gorputzen jarduerak; gainera, norbaitek onesten badie edo erakusten badu luze-zabalera printzipio horietatik sortzen dela, hala ere, nola izango dira gorputzetatik batzuk arinak eta beste batzuk astunak? Suposatzen eta esaten dutena kontuan hartuz gero, ez dute gehiago esaten gorputz matematikoez sentimenezko gauzez baino. Beraz, Suari, edo Lurrari edo honelako beste gorputzei buruz ez dute ezer esan, sentimenezko gauzei buruz, ene ustez, ezer berezirik aipatzen ez dutelako. Gainera, nola onar daiteke Zenbakiaren afekzioak eta Zenbakia bera ortzian diren eta –hasieratik eta orain– sortzen diren gauzen kausak izatea, eta mundua osatzen duen Zenbaki horretaz aparte bestelako zenbaki bat bera ere ez izatea? Iritzia eta Aukera alde horrexetan jartzen dituztenean, eta pixka bat gorago edo beherago Zuzengabekeria eta Bereizketa edo Nahasketa, eta hori frogatzeko haietako bakoitza zenbaki bat dela esaten dutenean (baina toki hori jada osaturiko luze-zabaleraz beterik dago, afekzio horiek toki bakoitzari dagozkiolako), orduan zenbaki bera ote da ortzian dagoen hori <eta> gauza haietako bakoitzarekin bat egiten omen duena, edo bestelako <zenbaki> bat ote da?

10. *Ibidem* 1083b8-19. Pitagorastarren azalpenak arestian aipaturikoek (*Platonen, Espeusiporen eta Jenokratesenek, hain zuzen*) baino zailtasun gutxiago ekartzen du, baina, bestalde, zailtasun bereziak ekartzen ditu. Izan ere, zenbakia banandutzat ez hartzeak zentzugabekeria asko ezabatzen du, baina gorputzak zenbakiz osatuak direla eta zenbaki hori matematikoa dela pentsatzea lekuz kanpokoa da, ez baita egia magnitude zatiezinak daudela baieztatzea; eta horrela izango balitz ere, unitateek, behintzat, ez lukete magnituderik izango. Bestalde, magnitude bat nola osa liteke errealitate zatiezinez? Hala ere, zenbaki matematikoa unitatez osatzen da; baina haien ustez diren guztiak Zenbakia dira; edo, behintzat, gorputzak zenbakiz osatuak balira bezala ezartzen dizkiete teoremak gorputzei.

11. *Ibidem* 1090a20-35. Pitagorastarrek, zenbakien afekzio asko sentimenezko gorputzetan ematen direla ikusita, diren guztiak zenbakiak direla baieztatu zuten, ez bananduak existitzen direnik, diren guztiak zenbakietatik sortuak direla baizik. Zergatik, baina? Zenbakien afekzioak harmonian, ortzian eta beste gauza askotan ematen dire-

lako. Aitzitik, Zenbaki Matematikoa bakarrik existitzen dela baieztatzen dutenek ezin dute horrelakorik ondorioztatu beren hipotesietatik; hain zuzen ere, zientzia matematikoak horretaz arduratzen ez direla baino ez zuten esaten. Baina guk horretaz arduratzen direla baieztatzen dugu, lehenago esan bezala. Eta argi dago Errealitate Matematikoak ez direla bananduak existitzen; izan ere, bananduak existituko balira, beraien afekzioak ez lirateke gorputzetan emango. Horrela, bada, aurreko horri dagokionez, Pitagorastarrei ezin zaie gaitzezpenik egin; baina beste kontu bat da gorputz fisikoak zenbakietatik sortaraztea –hots, ez pisurik ez arintasunik ez duenetik, pisua eta arintasuna duena–; izan ere, badirudi beste ortzi eta beste gorputz batzuez ari direla, ez sentimenezkoez.

12. ARISTOTELES, *Fisika* III 4, 203a10 (58 B 28). Batzuek diote mugagabea bikoitia dela, horrek, bakoitiak mugaturik, mugagabetasuna ematen baitie izakiei. Horren froga da zenbakietan gertatzen dena, gnomonak[6] bataren inguruan eta batetik kanpo jartzen direnean, kasu batean sortzen den irudia beti da desberdina, eta bestean, beti bat.

13. SINPLIZIO, *Fisika* 455, 20 (58 B 28). Hauek (*pitagorastarrek*) mugagabetzat hartzen zuten zenbaki bikoitia, bikoiti den oro, iruzkingileek dioten bezala, zati berdinetan zatitu daitekeelako, eta zati berdinetan zatitu daitekeena mugagabea da biko zatiketari dagokionez. Izan ere, bitako zatiketa mugagabea da, baina bakoitiak, gehitzean, mugatu egiten du, zati berdinetan zatitzeko ahalmena kentzen baitio.

14. ARISTOTELES, *Fisika* IV 6, 213b22 (58 B 30). Pitagorastarrek hutsa badela esan zuten eta zeruan sartzen dela mugagabetik hasita, horrek arnasa eta hutsa emango balizkio bezala. Honek izaerak desberdintzen ditu, hutsa jarraikorraren mugarri eta bereizle balitz bezala, eta zenbakietan aurkitzen da lehendabizi, hutsak haien izaerak bereizten baititu.

15. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* 293a17 (58 B 37). Gehiengoak (lurra) erdian dagoela esaten duen bitartean (…), Italiakoek, pitagorastarrak deiturikoek alegia, alderantziz esaten dute, erdian sua dagoela baieztatzen baitiote, eta lurrak, izarretako bat izaki, erdiaren inguruan daraman mugimenduaren kariaz gau eta eguna sortzen dituela. Gainera, horren aurkari den beste lur bat ipintzen dute, *Anti* -

lurra izenaz deitzen diotena; gertakarieetarako arrazoiak eta zioak bilatu beharrean, gertakariak beren arrazoibideetara eta iritzietara ekartzen dituzte eta haietara egokitzen saiatzen dira.

16. *Ibidem* 290b12 (58 B 35). Esandakotik nabaria da (astroen) mugimenduen kariaz harmonia sortzen den baieztapena –beren hotsak bateratuak sortzen direlakoan– bere egileek dotoreziaz eta trebeziaz esana dagoela, baina ez da egiazkoa. Izan ere, derrigorrezkoa iruditzen zaie batzuei hain gorputz handiek hotsa sortzea mugitzean, gure artean tamaina berdinik ez duten eta halako abiadura handian ibiltzen ez diren gorputzek ere sortzen baitute; baina eguzkia eta ilargia izanik, baita izarrak ere –eta hain handia izanik haien multzoa eta haien tamaina eta hain arina haien abiadura–, ezinezkoa da izugarrizko soinu handirik ez sortzea. Hori suposatuta, eta (izarren) abiadurkk, beren distantzien arabera, musika-eskalen proportzioan daudela, baieztatzen dute harmoniko gertatzen dela izarren hotsa beren ibilbide inguratzailean. Eta zentzugabea zirudienez guk halako hotsik ez entzutea, baieztatzen dute horren kausa dela hots hori gu jaio orduko existitzea, eta hortaz ez bereiztea bere aurkaritik, isiltasunetik alegia, ahotsa eta isiltasuna aditzen baitira beraien arteko desberdintasunaz; hortaz, gizakiei ere gertatzea forjariei gertatzen zaien bezala: ohituragatik ez direla ohartzen egiten duten hotsaz.

17. ARISTOTELES, *Arimari buruz* 404a16 (58 B 40). Badirudi pitagorastarrek esandakoa ere pentsamendu berera datorrela, haietako batzuek baizioten arima airean dauden hauts-pinportak direla; beste batzuek, haiek mugiarazten dituena. Haiei buruz hitz egiten dute etengabe mugimenduan agertzen direlako, haize-izpirik ez izanik ere.

18. *Ibidem* 407b27 (44 A 23). Beste teoria bat ere iritsi zaigu arimari buruzko (…), harmonia bat dela baitiote. Izan ere, harmonia aurkarien nahasketa eta konposaketa da, eta gorputza aurkariz osatuta dago.

19. *Ibidem* 407b20 (58 B 39). Haiek saiatzen dira esaten arima zein errealitate mota den, baina bere baitan jasotzen duen gorputzari buruz ez dute ezer zehazten, litekeena balitz bezala, pitagorastarren kontakizunetan gertatzen dena, nolanahiko arimak nolanahiko gorputza janztea.

Oharrak

[1] Pitagorasen berriak Diels-Kranzen edizioaren 14. atalean daude bilduta (96-105 orr.); Filolaorenak, 44. atalean (398-419 orr.), eta pitagoriko ezezagunenak, 58. atalean (446-80). Berariazko bibliografia: Burkert, W., *Lore and Science in Ancient Pythagoreanism*, Cambridge 1972. Dodds, E. R., *Los griegos y lo irracional*, Madril 1989. Philip, J. A., *Pythagoras and early Pythagoreanism*, Toronto 1966. Raven, J. E.: *Pythagoreans and Eleatics*, Cambridge 1948. Thesleff, H., *An Introduction to the Pythagorean Writings of the Hellenistic Period*, Abo 1961; *The Pythagorean Texts of the Hellenistic Period*, Abo 1965. Vogel, C. J. de: *Pythagoras and early Pythagoreanism*, Assen 1966.

[7] *Choinix, -íkos, he*: hazi lehorretarako neurri bat.

[8] Antilurrari buruz, Ikus. 15. berria, Aristoteles, *Zeruari buruz* 293a17 (58 B 37).

[9] *Metafisikaren* 1go. liburuan Aristotelesek bere doktrina filosofikotik abiatuta eta bere hiztegi filosofikoa erabiliz aztertzen du aurreko filosofoen pentsamendua; *ousía* eta *aitía* –kausa– terminoak ez dagozkio pitagorastarren pentsamenduari, Aristotelesenari baizik.

[10] *Tó òn*

[11] *Hypokeímenon*, subjektu.

[12] Gnomona L forma duen lerro bat da; karratuari edo laukizuzenari gaineratuta haien tamaina aldatzen du, baina ez haien forma. Pitagorastarrek zenbakien errepresentazio geometrikoetan erabiltzen zuten.

PARMENIDES[1]

Parmenidesen zatiak

1. SEXTO ENPIRIKO**,** *Matematikarien kontra,* VII 111 (B 1)[2]

Nire gogoak ahal bezain urrun eraman ohi nauten
behorrak nire ondoan zebiltzan Jainkosaren
oso bide ospetsura hurbildu nindutenean
–gizon jakituna hiri orotatik eramaten duen bidera–.
Baninderraion bideari, handik baininderamaten
gurdiari uztarturiko behor adituek;
baina neskatxak zitzaizkidan bide-erakusle.
Gurtardatzak txirula-soinua zegien gurpegietan,
hain zegoen goria –alde bakoitzetik bi gurpil
biribilek bultzatua baitzen–, Ekiaren alabek,
Gauaren jauregia atzean utzita, lasterka,
argitara gidatu nindutenean,
bekoki-estalgarri zuten oihala eskuz albora eginik.
Han dira Gauaren eta Egunaren bideen ateak,
harrizko ateburua eta atalasea dituzte mugarri.
Haiek, eter goian altxatuak, atetzar handiek itxiak dira;
eta haien erabilera bikoitzeko giltzak
ordain-emaile oparoa den Zuzentzak gordetzen ditu.
Hitz amultsuz mintzatuz neskatxek haren gogoa
irabazi zuten trebetasunez, maratila-kizkia
une batez aska zezan ateetatik.

Ateek, atetzarren artean, zabaldura handia
sortu zuten irekitakoan, jiratuz, orain bata
gero bestea, brontzezko ardatzak beren orpoetan,
iltze eta ziri lodiz eutsiak. Handik barna, neskatxek
gurdia eta behorrak gidatzen zituzten gurtarrastoek
irekitako bidean aurrera zuzen.
Eta Jainkosak harrera argia egin zidan;
nire eskuin eskua berean ipini, horrela
adierazi eta hau esan zidan:
«Oi gazte, gurtzain hilezkorren laguntzaile, behorrek
gure etxeraino ekartzen zaituzte: ongi etorri!,
ez baita patu gaiztoa bide hau hartzera bultzatu zaituena,
(gizakien ohiko ibilbidetik apartekoa baita),
Zuzenbidea eta Zuzentza baizik.
Beharrezkoa da zu denaz jabetzea, bai egia
biribilaren bihotz izukaitzaz bai hilezkorren
iritziez, non egiazko sinesmenik ez dagoen.
Dena dela, halako horiek ere ikasiko dituzu,
beharrezkoa dela iritziak ustezkoak izatea,
iritziak oro orotan sartzen baitira.

2. PROKLO, *Timeo* I, 345, 18-20 (B 2)
Neronek esango dizut, bada, eta entzun ezazu arduraz,
pentsatzeko bide bakar biak zein diren:[3]
bata, badena eta ezin daiteke ez izatea[4],
limurtzearen ibilbidea da, egiaren laguntzaile.
Bestea, ez dena eta beharrezkoa da ez izatea[5];
eta adieraziko dizut, beraz, bide hori guztiz ulergaitza dela;
izan ere, ez dena[6], behintzat, ezingo zenuke ezagutu
–eginezina baita–, eta ez duzu erakutsiko.

3. PLOTINO, V 1, 8 (B 3)
... pentsa daitekeena eta izan daitekeena biak bat baitira[7].

4. KLEMENTE, *Stromateis*, I, 8 (B 4)
Begira ezazu, ordea, agerian ez dagoena
ulermenean irmoki dagoela, ezin moztuko
baituzu badena badenetiko lotura estua,
ez duzu barreiatuko modu orotan ordenaturik,
ez bera bilduz ere.

5. PROKLO, *Parm*., 708, 16 (B 5)
Axolarik ez zait nondik hasi,
berriz sorburura itzuliko bainaiz.

6. SINPLIZIO**,** *Fisika*, 86, 27-8; 117, 4-13 (B 6)
Beharrezkoa da esan eta pentsa daitekeena izatea,
izatea baita, baina eza ez da[8]; eman iezaiozu
horri gogo, ikerbide horretatik urrundu
baitzaitut aurrena; eta gero, bigarren honetatik:
ezer ez dakien hilkor zenbait galdurik baitabiltza
bertatik, bi burudun bailitzan, beren baitako
ezinak okerra baitu zuzen;
horiek, gorrak eta itsuak bezala dira eramanak,
txundituta, abururik gabeko jendetza,
izan eta ez izan, biak, bat eta ez bat zaiena;
horien guztien bidea itzulerakoa da.

7. PLATON, *Sofista* 242 A; SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra*, VII 111 (B 7)
Sekula ez baituzu hau onartuko: ez direnak
badirela; baina zuk, urrun ezazu gogoa
ikerbide horretatik, eta esperientzia handiko
ohiturak ez zaitzala behar ikerbide horretara,
begi itsua, belarri burrunbaria eta
zure mihia erabilaraziz.
Aitzitik, epai ezazu arrazoiz nik esandako
gezurtapen oso argudiatua.

8. SINPLIZIO, *Fisika*, 145, 1-28; 146, 1-24 (B 8)
Bide baten aipamena soilik gelditzen zaizu:
badela[9]; eta horren gainean zantzuak ugari
dira: jaio ez izana izanik, ezilkorra ere
badela, eta betea, bakarra, geldia eta
guztiz osatua; ez zen izan eta ez da izango,
orain oro baita bat, bakar, etengabea.
Zeren zein sorburu bilatuko zenioke?
Nola eta nondik da hazi? Ez denetik sortu denik
ez dizut utziko ez esaten ez pentsatzen,
ez dena ez baita ez esangarri ez pentsagarri.
Izan ere, zein beharrek bultzatuko zuen halakorik

lehenago edo geroago jaiotzera,
ezerezetik sortuta? Beraz, beharrezkoa da
guztiz izatea ala inolaz ere ez izatea.
Fedearen indarrak inoiz ez du onartuko
ez denetik ez denaz aparteko ezer sortzea;
horregatik ez dio uzten Zuzentzak, burdinak
lasaituta, ez jaiotzen ez hiltzen; aitzitik,
menperatu egiten du; baina kontu horien
erabakia hemen da: bada ala ez da;
hala ere, erabakita dago, beharra bezala,
bide bat, pentsaezina eta esanezina dena,
baztertzea (ez baita egiazko bidea), eta
hortaz, bestea izatea eta benetakoa izatea.
Baina, orain badena nola izan liteke gero?
Nola sortuko litzateke? Izan ere, sortu bazen,
orduan ez da orain, eta gero izango bada ere ez.
Hortaz, sorrera iraungitzen da, eta heriotza
ez da ikusten. Zatigarri ere ez da, orotan
baita berdin, hemen ez da gehiagorik, ez litzateke
bestela etengabe izango; han ez da gutxiagorik,
dena da izanez betea. Etengabe da,
badenak badena baitu ukitzen. Geldia da,
ordea, katea indartsuen mendeko, hasierarik
eta bukaerarik gabea da, sortzea eta
hiltzea urrun baitira oso, egiazko usteak
hara bidaliak. Bera, berean bereari eutsiz,
berez da eta hala dirau, Behar onak osorik
lotzen duten kateen menpe baitauka; horregatik
ez da zilegi badena guztiz burutua ez izatea,
peiturik ez baitu: izatekotan oro izango luke peitu.
Pentsatzea eta hura, zeinarengatik pentsamendua den,
biak badira bat, badena gabe –non adierazitakoak
adiera duen– ez baituzu aurkituko pentsatzea.
Izan ere, badenetik kanpo, ezer ez da
eta ezer ez da izango, Patuak, behintzat, hura
kateaz lotu baitzuen osoa eta geldia
izateko; beraz, izenak izango dira denak,
hilkorrek, egiak zirelakoan, ezarri zituzten

horiek: sortzea eta hiltzea, izatea eta
ez izatea, eta tokiz aldatzea eta
kolore distiragarriz mudatzea. Baina, azken muga bat
dagoenez, guztiz osatua da edonon, esfera
ondo biribildu baten orearen antzekoa,
erditik orotara distantziakide, ez handiagoa
hemen ez txikiagoa han izatea beharrezkoa baita.
Izan ere, ez dago ezer, ez izanik, berdina
izaten eragotziko dionik; ezta, izanik ere,
handiagoa hemen edo txikiagoa han
egingo duenik, orotan ezin bortxatuzkoa baita;
edonon berdina izanik, bere mugak ditu berdintzen.
Hemen amaitzen dizut egiaren inguruko
hitzaldi fidagarria eta hausnarketa.[10]
Ikas itzazu gaurdanik hilkorren iritziak,
nire hitzen ordena tronpatzailea entzunik.
Bi formari izena ezartzeari eman zioten gogo;
haietako bati ez zaio ezarri behar
–eta horretan tronpatuak dira oso–,
Itxuraz kontrajarriak, iritzi eta ezaugarri
desberdinak banandu zizkieten: bateko, sugarraren
distira zerutiar, atsegina dena, oso arin,
orotan bere baitaren berdin, baina bestearen
desberdin. Beste hura, berriz, kontrakoa da berez:
gau itxi, eta itxuraz lodi eta pisudun.
Hona dakarkizut antolamendu sinesgarri hori,
ez dadin zure buruan hilkorren iritzirik pausa.

9. *Ibidem* 180, 9-12 (B 9)
Bestalde, gauza oro argi eta gau deitua
izan denez eta batari zein besteari haien
ahalmenen arabera dagokiena ezarri
zaienez, oro dago une berean argiz eta
gau ilunez betea, bietatik berdin harturik,
ez baita ezer bateko eta besteko ez denik.

10. KLEMENTE, *Stromateis*, V, 138 (B 10)
Goi zeruaren izaera ezagutuko duzu,
baita han diren ezaugarri guztiak ere, eta

eki gartsuaren su hutsaren emaitza suntsitzaileak,
eta nondik sortu ziren. Era berean ezagutuko
dituzu ilargi aurpegi-biribilaren lan
alderraiak eta haren izaera, baita zeru
ingurutzailea ere, nondik den jaioa,
eta nola jarri zuen Behar gidariak
izarren mugak zaintzen.

11.SINPLIZIO, *Zeruari buruz*, 559, 21-24 (B 11)
Nolatan lurra eta ekia, ilargiarekin batera,
goi zerua eta esne-bidea, Olimpo
garaiezina eta astroen indar beroa
jaurti ziren sortzera.

12.SINPLIZIO, *Fisika*, 39, 14; 31, 13 (B 12)
Izan ere, (eraztunik) txikienak su hutsez
dira beteak, eta horien gainekoak, gauez,
baina ondoan sugar parte bat da zabaltzen, eta
erdian da oro zaintzen duen jainkosa; oro baitu
mende, erditze mingarria eta ernaltzea,
arra emearengana baitu bultzatzen, edo
bestela, emea arrarengana.

13. *Ibidem* 39, 18 (B 13)
Eros asmatu zuen, gainerako jainkoen aurre-aurrena.

14.PLUTARKO, *Koloteren aurka*, 1116a
Gau argia Lurraren inguruan, argi urruna, alderraia.

15.PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 929b
Beti bere begia eki-izpiei emana.

16.TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 3 (B 16).
Izan ere, nola bakoitzak duen bere atal
herratuen nahasdura,hala jartzen da pentsamendua
gizakiaren baitan, gauza bera baita gorputz atalen
izaerak ezagutzen duena gizakien baitan
–guztien eta bakoitzaren baitan–,
nagusia dena pentsamendua baita.

17.GALENO, *Izurriteak*, VI 48 (B 17)
Eskuinetara, mutikoak; ezkerretara, neskatoak.

18. ZELIO AURELIANO, *Gaixotasun kronikoak*, IV, 9 (B 19)
Arrak eta emeak maitasunaren haziak
batera nahasten dituztenean, bi odol ezberdinek
zainetan nahastutako ahalmenak, oreka
gordez gero, gorputz ongi eginak sortaraziko ditu.
Nahastutako hazien ahalmenak elkarrekin
lehian ariko balira, eta bateratuko
ez balira umekian, zigortu egingo dute
gero jaioko den ume sexu-bikoitza.

19. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 558, 8 (B 19)
Horrela jaio ziren, ustez, gauza haiek eta orain
badira, eta gero, hortik abiatuta, amaituko
dira, haziz geroz; eta gauza haiei, gizonek izen
esanguratsua eman zioten bakoitzari.

Parmenidesen pentsamenduari buruzko berriak.

1. ARISTOTELES, *Metafisica* I 3, 946b1-3. Horrela, bada, dena bata dela baieztatzen dutenen artean inor ez zen horrelako kausaz <formaz> ohartu, Parmenides ez bada, akaso; eta horrek bata bakarrik ez, kausak nolabait bi direla onartzen zuen neurrian.

2. *Ibidem* I 5, 986b18-987a2 (A 24). Badirudi Parmenidesek Bata kontzeptua den aldetik aipatu duela, eta Melisok, materia den aldetik (hori dela eta, batak mugatua dela esaten du eta besteak mugagabea dela). Jenofanesek, batasunaren doktrina hura haiek baino lehenago aipatu zuenak, (Parmenides haren ikaslea izan zela esaten baita) ez zuen ezer argitu; eta ez du ematen bi izaera haiei heldu zienik ere; aitzitik, ortzi osoari begiratuta Bata Jainkoa dela baieztatzen du. <Filosofo> horiek, bada, esan dugun bezala, oraingo ikerketarako albo batera utzi behar ditugu; horietako bi, Jenofanes eta Meliso, arruntegiak izateagatik; Parmenidesek, ostera, areago ikusten omen zuela ematen du: denaz gain ez dena ezer ez dela sinestuta, gauza bakar bat dela pentsatzen du nahitaez, dena, alegia, eta besterik ez (...); baina fenomenoak kontuan hartzera behartuta, eta kontzeptua den aldetik Bata dela eta sentsazioa den aldetik, berriz, Anitza delako ustetan, hark ere ezartzen du bi direla kausak eta bi direla printzipioak: beroa eta hotza, sua eta lurra, esaterako; eta haietatik beroa denaren aldera kokatzen du eta hotza, ostera, ez-denaren aldera.

3. *Ibidem* III 4, 1001a35-b1. Izan ere, denaz besterik ez dago, eta horrela, Parmenidesek esandakoaren arabera, nahitaez gertatuko da den guztia bat izango dela, eta bat hori badena izango dela.

4. PLUTARKO, *Koloteren aurka* 1114b (10. zatian). (Parmenidesek) mundu ordenatu bat deskribatu du, eta argitasuna eta iluntasuna osagaiak nahastuz, horietatik hasita eta horien bidez gertakariak oro azaltzen ditu, gauza asko esan baitzituen lurrari, ekiari eta ilargiari buruz, eta gizakien sorrera ere adierazten du.

5. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II 7, 1 (A 37). Parmenidesek dio badirela koroa batzuk bata bestearen gainean ixten direnak, bata arina denaz egina, bestea lodia denaz; eta badira beste batzuk haien artean argiaren eta iluntasunaren nahasketaz. Harresi moduan denak

inguratzen dituen hori sendoa da, eta haren inguruan suzko koroa bat. Nahastura dutenetan koroa erdialdekoena –zeinaren inguruan beste suzko koroa bat dagoen– mugimenduaren sorburu eta eragilea da koroa guztietarako, eta berak Jainko gidari eta giltzen jabedun deitzen dio, eta Zuzentza eta Behar. Eta lurretiko jarioa da airea, presio handiagokoa denez, airera joana, eta suzko arnasa da ekia, baita esne-bidea ere. bi horiez nahastuta da ilargia, airez eta suaz, hain zuzen. Eta gainerakoaren inguruan, eterra, goi-goian, eta haren azpian zeru deitzen dugun suzko aldea da, eta horren azpian lurraren inguruan dena.

6. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 1ss. (A 46). Parmenidesek, orokorrean, ez zuen ezer zehaztu, baizik eta, bi izanik osagaiak, ezagutza <osagai> nagusiaren araberakoa dela. Izan ere, non eta beroa edo hotza nagusitzen den, modu batetik edo bestetik sortuko da pentsamendua: hobea eta garbiagoa beroaren araberakoa, horrek ere nolabaiteko neurria behar badu ere (*16. zatia*). Izan ere, hautematea eta izatea biak bat hartzen du; horregatik, oroitzapenak eta ahazmenak ere haietatik sortzen dira, nahasduraren bidez (...). Horren ifrentzuari ere, berez, sentsazioa ematen dio, esaten baitu gorpu batek ez duela ez argirik ez berorik ez soinurik hautematen, surik ez duelako, baina bai hautematen dituela hotza eta isiltasuna eta ifrentzuak. Beraz, orokorrean, baden orok badu ezagutza.

7. AEZIO, *Filosofoen iritziak* IV 3, 4. (A 45). Parmenidesek arima suzkoa dela dio.

Oharrak

[1] Parmenidesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 28. atalean daude bilduta (217-246 orr.). Berariazko bibliografia: Albertelli, P.: *Gli Eleati. Testimonianze e frammenti*, Bari, 1939. Calogero, G.: *Studi sull'Eleatismo*. Roma, 1932. Calvo, T.: «Truth and Doxa in Parmenides«, *Archiv für Geschicht eder Philosop - hie* 59, 1977, 245-60. Cornford, F. M.: *Platón y Parménides*, Madrid, 1989 (1go. arg. ingelesez, 1939); itzul.: Francisco Giménez García. García Calvo, A.: *Lecturas presocrá - ticas*, Madril, 1981, 183-221. García Lobo, A.: *Parménides. Texto griego, traducción y comentario*, Buenos Aires, 1985. Lomba Fuentes, J.: *El oráculo de Narciso*, Zaragoza, 1986. Montero Moliner,F.: *Parménides*, Madril, 1960. Mourelatos, A. P. D.: *The Route of Par menides*, New Haven, 1970. Owen, G. E. L.: «Eleatic Questions«, *CQ* 10, 1960, 84-102. Tarán, L.: *Parmenides. A text with traslation, commentary and cri - tical essays*, Princeton 1965.

[2] Poemaren *Proemioa*

[3] *Egiaren bidea* hasten da.

[4] *he mèn hópos éstin te kaì hos ouk ésti mè eînai*

[5] *he d' hos ouk éstin te kaì hos chreón ésti mè eînai*

[6] *tó mè eòn*

[7] *...tò gàr autò noeîn éstin te kaì eînai*

[8] *ésti gàr eînai, medèn d' ouk éstin*

[9] *hos éstin*

[10] *Egiaren bidea* amaitu eta *Iritzia - ren bidea* hasten da.

ELEAKO ZENON[1]

Zenonen zatiak

1. SINPLIZIO, *Fisika*, 141, 1-8 (B 1)
   Tamainarik ez balu denak (*tò ón*), ez litzateke izango. Dena bada, den bakoitzak nolabaiteko tamaina eta lodiera behar ditu izan, eta batetik bestera tartea behar da egon. Eta tartera gelditu den horri buruz, argudio bera; horrek ere tamaina izango baitu eta den beste bat tartera. Eta berdin da hori behin bakarrik esatea edo etengabe esaka aritzea, (den oro) ez baita azkena izango horretan, eta beti izango du besteren bat tartera. Beraz, (diren gauzak) asko badira, derrigorrezkoa da handiak eta txikiak izatea: hain txikiak, tamainarik deus ez izateraino, eta hain handiak, infinituak izateraino.

2. *Ibidem* 139, 11-15 (B 2)
   Den beste bati erantsiko balitzaio, ez litzateke horregatik handiagoa egingo, ezen, tamainarik gabea izanik, erantsia izanagatik, ezingo litzateke tamainara erantsi, eta, beraz, erantsia hutsaren hurrengoa izango litzateke. Baina beste bati kenduta ere, ez da ezertan txikiagoa izango, eta, era berean, erantsita ere ez da handituko. Agerikoa da, beraz, eransten dena ez dela, ezta kentzen dena ere.

3. *Ibidem* 140, 29-33 (B 3)
   (Diren gauzak) asko badira (*estin*), derrigorrezkoa da diren horiek (*hósa estî*) bezainbeste izatea, ez gehiago ez gutxiago. Baina diren

horiek (*hósa estî*) bezainbeste badira (*estin*), mugatuak izango dira. (Diren gauzak) asko badira, diren gauzak (*tà ónta*) infinituak izango dira, beti baitaude diren batzuk tartean, eta, era berean, beste batzuk azken haien tartean, eta horrela diren gauzak infinituak dira.

4. DIOGENES LAERTZIO, IX 72 (B 4)
   Mugitzen dena ez da mugitzen dagoen tokian, ezta ez dagoen tokian ere.

5. SINPLIZIO, *Fisika*, 551, 13-15
   Denak bere tokia badu, garbi dago toki horrek ere bere tokia izango duela, eta horrela infinituraino.

Zenonen pentsamenduari buruzko berriak

1. DIOGENES LAERTZIO, VIII 57 (A 10). Aristotelesek, *Sofista*-n, dio Zenonek dialektika asmatu zuela.

2. PLATON, *Parmenides* 127d-e. Sokratesek, berari (Zenoni) entzun ondoren, lehen argibidearen lehen hipotesia irakurtzeko eskatu zion eta, irakurri ondoren, galdetu zuen: Zein zentzutan baieztatzen duzu esaten duzun hori, badirenak asko badira beharrezkoa dela berdinak eta desberdinak izatea eta hori, berez, ezinezkoa dela?«.

3a. SINPLIZIO, *Fisika* 99, 13 (A 21). Zenon... saiatu zen frogatzen diren gauzak (*tà ónta*) ezin daitezkeela asko izan, diren gauzetan (*en tois ousin*) ez dagoelako batasunik, eta *asko* banakoen multzoa delako.

3b. FILOPONO, *Fisika* 42, 9 (A 21). (Zenon) saiatzen da frogatzen diren gauzetan aniztasuna ezinezkoa dela. Zeren –dio– aniztasunik bada, aniztasuna banakako askoren multzoa denez, derrigorrezkoa da aniztasuna lortzeko banakako asko egotea. Beraz, frogatzen badugu ezinezkoa dela banakako asko egotea, argi dago ezin daitekeela aniztasunik izan, aniztasuna banakakoetatik <osatzen> baita. Ezinezkoa bada aniztasuna, beharrezkoa da bata edo aniztasuna egotea; baina aniztasuna izatea ezinezkoa bada, bata izatea geratzen da.

4a. ARISTOTELES, *Fisika* 239b9 (A 25). Lau dira Zenonen argibideak, argitu nahi dituztenei arazoak sortzen dizkien mugimenduari buruz. Lehendabizikoa, ez dagoela mugimendurik, mugitzen denak bukaeraraino iritsi baino lehen erdiraino iritsi behar baitu.

4b. ARISTOTELES *Topikoak* 160b7 (A 25). Arrazoibide asko ditugu Zenonenak bezalako iritzien aurka, alegia ez dagoela mugimendurik ezta estadioa ibiltzerik ere.

5. ARISTOTELES, *Fisika* 239b14 (A 26). Bigarren arrazoibidea mugimenduaren aurka, Akiles deitzen da, eta dio lasterketa batean motelena ez duela arinenak harrapatuko, derrigorrezkoa baita jazarlea lehendabizi iristea jazartua abiatu den puntura, halako moldez non derrigorrez motelenak abantaila baitarama.

6. *Ibidem* 239b30 (A 27). Hirugarrena da jaurtitako gezia geldi dagoela. Hala gertatzen da, izan ere Zenonek onartzen baitu denbora unetxoz beterik dagoela. Hori onartzen ez bada, ondorioa balio gabea izango da.

7. *Ibidem* 239b33 (A28). Laugarrena, estadioan kontrako norabidean mugitzen diren gorputz berdinei buruzkoa da. Batzuk estadioaren atzealdetik abiatzen dira, beste batzuk, erdialdetik, eta abiadura bera dute, eta orduan halako denbora bi denbora erdiaren berdin da.
8. ARISTOTELES, *Metafisika* III 4, 1001b7-14. (A 21) Gainera, Bata Bere Baitan zatiezina baldin bada, orduan Zenonek esandakoaren arabera ez da ezer izango, Zenonen ustez gehiketaren eta kenketaren bidez, handiago eta txikiago egiten ez duena ez baitago badirenen artean, badena luze-zabal bat delakoan, argi denez. Eta luze-zabal bat baldin bada, gorputzezkoa da, honek norabide guztietan izatea baitu. Aitzitik, gainerako luze-zabalek –azalera eta lerroa, esaterako– handitu egiten dute gehiketa modu batez egiten bada, beste modu batez egiten bada, ordea, ez; eta puntuak eta unitateak, inola ere ez. Baina Zenon bere gauzak ikusteko moduan traketsa denez, baliteke zatiezina den zerbait ere izatea, eta horrela bada, erantzun dakioke Zenoni: zatiezina den zerbait gehituta ez da handiago egingo, baina bai gehiago izango.

Oharrak

[1] Zenonen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 29. atalean daude bilduta (247-258 orr.). Berariazko bibliografia: Bayle, P.: «Zeno of Elea«, *Hist. and. Crit. Dictio.*, Indianapolis 1965. García Calvo, A.: *Lecturas presocráticas*, Madril, 1981, 148-155. Lee, H. D. P.: *Zeno of Elea*, Cambridge, 1936. Untersteiner, M.: *Zenone. Testimonianze e frammenti*, Florentzia, 1963. Vlastos, G.: «Zeno of Elea», P. Edwards (arg.), *Encyclop. of Philosophy*, NY, 1967.

MELISO[1]

Melisoren zatiak

1. SINPLIZIO, *Fisika* 162, 24-26 (B 1).

   Bazen hura beti zen eta beti izango da, sortu izan bazen, derrigorrezkoa baita sortu baino lehenago ezer ez izatea. Beraz, ezer ez bazen, ez zen ezer sortuko ezetik abiaturik.

2. *Ibidem* 109, 20-24 (B 2)
   Alabaina, sortu izan ez bazen, bada, beti izan da eta beti izango da, alegia ez du hasierarik eta ez amaierarik, infinitua baita. Ezen, sortu izan balitz, hasiera izango luke (noizbait hasiko baitzen sortzen) eta amaiera ere bai (noizbait amaituko baitzen sortzen). Baina hasi ez eta amaitu ere ez zenez, beti zen eta beti izango da, eta ez du ez hasierarik ez amaierarik. Izan ere, ezin daiteke oro ez den hura beti izatea.

3. *Ibidem* 109, 31-32 (B 3)
   Baina beti denez, beharrezko zaio tamaina amaigabea izatea.

4. *Ibidem* 110, 3-4 (B 4)
   Hasiera eta amaieradun oro ez da ez betikoa, ez amaigabea.

5. *Ibidem* 110, 5-6 (B 5)
   Bat ez balitz, beste bat izango luke mugarri.

6. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 557, 16-17 (B 6)
   Izan ere, amaigabea balitz, bat izango litzateke; bi izango balira, ez lirateke amaigabeak izango, bata bestearen mugarri izango bailitzateke.

7. SINPLIZIO, *Fisika* 111, 19-112, 15 (B 7)
(1) Beraz, betikoa da, amaigabea, bat eta guztiz homogeneoa. (2) Eta ez da hilko, ez handituko, ez antzaldatuko, ez du ez gorputz-minik ez bihotz-saminik pairatuko; halakorik jasaterik balu, ez bailitzateke bat izango. Aldatuko balitz, derrigor ez litzateke homogeneo izango; aitzitik, hilko litzateke lehenago bazena eta oraindik ez dena sortuko litzateke. Hamar mila urtetan ile bat bera aldatuko balitzaio, dena galduko litzateke denboraren baitan. (3) Baina antzaldatzea ere ez du zilegi, lehen zuen antza (*kosmos*) ez baita galduko eta orain ez denik ez da gero sortuko. Eta ezer sortzen ez denez, ezta galtzen edo aldatzen ere, nolatan gerta liteke badiren gauzen antzaldaketa? Zerbait desberdina sortuko balitz, antza ere bestelakoa izango bailitzateke. (4) Minik ere ez du, ez bailitzateke oro izango minik balu. Izan ere, min duen gauzak ez du beti izaterik, eta ezin du osasuna duenaren adinako indarrik izan, ez bailitzateke homogeneo izango minik balu. Izan ere, sufrituko luke, zinez, zerbait eman edo zerbait kenduko balitzaio, eta ez litzateke jadanik homogeneo izango. (5) Osasuntsu denak ere ezingo luke sufritu, hilko bailitzateke osasuntsu dena –alegia badena–, eta ez dena sortuko litzateke. (6) Eta sufritzeari buruz esaten dena berdin esan daiteke min izateari buruz. (7) Hutsik ere ez dago, hutsa ez baita ezer eta eza, behintzat, ezin liteke. Eta ez da mugitzen, ez bailuke nora mugitzerik izango; aitzitik, badena betea da. Izan ere, hutsik balego, hutsera zuzendu zitekeen, baina, hutsik ez denez, ez du nora zuzendurik. (8) Trinkoa eta urria ere ezin liteke, urri dena ez baitago trinko dena bezain beterik, baizik eta urri dena, behintzat, trinko dena baino hutsago gertatzen da. (9) Betearen eta ez betearen egin behar den desberdintasuna honakoa da: zerbaitek toki egiten badio zerbaiti edo bera hartzen badu barnean, ez da betea; aitzitik, ez badio ezeri tokirik egiten edo ez badu ezer hartzen barnean, betea da. (10) Ondorioz, betea behar du izan, eta ez hutsa. Eta betea bada, ez du nora mugitzerik.

8. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 558, 21-559, 12 (B 8)
(1) Arrazoibide hura da, beraz, soilik bat dagoen frogarik handiena. Hala ere, honako hauek ere badira frogak: (2) <diren gauzak> asko balira, <asko> horiek, nik bata deskribatzen dudan bezalakoak izan beharko lukete. Lurra, ura, airea, sua, burdina eta urrea balira, eta

gauza bat biziduna bada eta bestea hila, eta bat beltza eta bestea zuria, eta gizakiek benazkotzat hartzen duten gainerakoa oro; zinez halakorik balego, eta guk zuzen ikusi eta entzungo bagenu, beharrezkoa litzateke bakoitza lehendabizikoan ageri zitzaigun bezalakoxea izatea, eta ez dadin ez alda ez bestelakorik egin, baizik eta beti den bezalakoa. Hala ere, zuzen ikusten, entzuten eta ulertzen dugula diogu. (3) Hala ere, beroa hoztu eta hotza berotu egiten dela iruditzen zaigu, gogorra bigundu eta biguna gogortu egiten dela, eta biziduna hil eta ez bizidunetik sortzen dela, eta halako guztiak aldatu egiten direla, eta lehen zenak ez duela orain denarekin antzik, baizik eta, burdina gogorra hatzak higatzen duela, eta horrelaxe urrea, harria eta sendotasuna erakusten duen oro; eta uretatik sortzen direla lurra eta harria. Beraz, hau gertatzen da: diren gauzak (*tà ónta*) ez ditugula ez ikusten ez ezagutzen. (4) Hala ere, iritziok ez datoz bat elkarrekin. Izan ere, esana daukagu, alde batetik, <diren gauzak> asko direla eta betierekoak, eta itxuradun eta gorpuzdunak, baina, beste aldetik, iruditzen zaigu, une oro ikusten dugunez, horiek denak antzaldatu eta aldatu egiten direla. (5) Argi dago, beraz, ez dugula zuzen ikusten, eta ez dela zuzena diren gauzak asko izatea, ez bailitzateke aldatuko benetakoa balitz; aitzitik, bakoitza iruditzen zaigun bezalakoa litzateke, ez baitago ezer indartsuagorik benetan dena (*tou eóntos*) baino. (6) Baina antzaldatzen badira, badena (*tò eòn*) hil egin da eta ez dena sortu egin da. Beraz, (diren gauzak) asko balira, haiek bata bezalakoak behar lukete izan.

9. SINPLIZIO, *Fisika* 110, 1-2; 6-7 (B 9)
   Beraz, baldin bada, bat izan behar da. Eta, bat izatekotan, ez du gorputzik izango. Lodiera balu, zatiak izango lituzke eta ez litzateke jadanik bat izango.

10. *Ibidem* 109, 33-34 (B 10)
    Badena zatigarri balitz, mugituko litzateke; baina mugituko balitz, ez litzateke izango.

Oharrak

[1] Melisoren zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 30. atalean daude bilduta (258-276 orr.). Berariazko bibliografia: Loenen, J.: *Parmenides, Melissus, Gorgias* Assen, Assen, 1959. Reale, G:: Melisso, testimonianze e frammenti, Florentzia, 1970. Ikus. Parmenidesen eta Zenonen bibliografia.

ENPEDOKLES[1]

Enpedoklesen zatiak

NATURARI BURUZ

1. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 122 (31 B 2)[2]
   Estuak baitira gorputz-zatietan zehar isuri diren trebeziak ,
   eta asko pentsamenduak eraso eta lausotzen dituzten gaitz-okerrak.
   Oharturik beren bizialdian bizitzaren zati labur bat,
   geroxeago baino askoz lehenago hilko diren horiek
   kea bezalaxe doaz egan, bakoitzak
   harat-honat ibilita aurkitu zuenaz soilik limurtuta,
   baina harro aldarrikatzen dute den-dena aurkitu dutela:
   gizonak ez dira iristen halako gauzarik ikustera,
   ezta nahita entzutera ere, eta ezin jabetu horretaz adimena.
   Baina zuk , benetan, honainoxe etorri zara eta, ezagutuko duzu,
   baina hilkor ulermenak jaso dezakeena baino gahiagorik ez.
2. *Ibidem* VII 124 (B 3)
   Ken iezadazue, o jainkook, mihitik haien eromena,
   zabal ezazue nire ezpain sakratuetatik iturri garbi aratza;
   eta zuri, Musa elur-besoa, oroimen oparoko birjina,
   otoitz degizut: aldi laburreko gizakiek
   entzutea duten guztia, bidal iezadazu
   Debozioaren etxetik nire gurdi erraza bultzatuz.
3. HIPOLITO, VIII 31 (B 131)
   Izan ere, aldi laburreko gizakiren batengatik,
   Musa jainkotiar hori, gure arrangurak

zure bihotzera iritsi baziren, zatoz, berriro ere,
Kaliope[5], otoizka ari zaizun honengana,
jainko zoriontsuei buruz
hitz zuzena esan dezan.

4. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen bizitzak* VIII 60 (B 1)
Entzudak, Pausanias, Ankito jakintsuaren seme horrek.

5. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 124 (B 3)
Sekula ez zaituzte behartuko, behintzat, hilkorrengandik
datozen ohore ospetsuaren loreak hartzera,
ausardiaz, zilegi den baino gehiago hitz egiteko baldintzapean,
eta orduan jakinduriaren gailurrean eseri.
Ea bada, ikus ezazu arta oroz, gauza bakoitza nola argitzen den,
eta ikusmenari ez eman arrazoi gehiago entzumenari baino,
ezta oihartzunez jotako entzumenari mihi zorrotzari baino gehiago;
eta gainontzeko gorputz-zatietatik, ulerbide diren aldetik,
ez baztertu konfiantza;
aitzitik, uler ezazu gauza bakoitza haren argibidearen bidez.

6. KLEMENTE, *Stromateis* V 18 (B 4)
Hala ere, gizaki zikoitzek joera handia dute botere dutenengan
konfiantzarik ez edukitzeko;
baina zuk, gure Musaren bermeek aholkatzen zaituzten bezala,
uler ezazu, nire arrazoibidea zure erraietan mamitu ondoren.

7. AEZIO, I 3, 20. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* X 315 (B 6)
Entzun itzazu, lehendabizi, gauza ororen
lau sustraiak: Zeus distiratsua,
Hera bizi-emaile eta Aidoneo; eta Nestis,
haren malkoez hilkorren iturria bustitzen duena[6].

8. SINPLIZIO, *Fisika* 157, 25 eta 161, 14. PLUTARKO, *Amat*., 13, 756d. KLEMENTE, *Stromateis* V 15 (B 17)
Kontu bikoitz bat esango dizut: behin batean hazi zen askotik bat bakarrik izateko;
eta beste batean, berriz, banandu egin zen batetik asko izateko:
bikoitza da hilkorren jaiotza, bikoitza suntsipena,
bata gauza ororen biltzeak sortu eta hiltzen baitu,

eta bestea, gauzak berriro banantzen direnean, ezdeustu egiten da behin hazita.
Eta aldaketa etengabekoak ez dira nekatzen,
batzuetan Maitek bultzaturik denak[7] bat eginda,
beste batzuetan, berriz, Gorroto garratzak gauza bakoitza bitan bananduta.
Horrela, bat askotik sortzera ohituta dagoen neurrian
eta, halaber, bat banatzean, aniztasuna gauzatzen den neurrian,
halaxe sortzen dira eta haien bizialdia ez da iraunkorra.
Baina aldaketa etengabekoak nekatzen ez diren neurrian,
horregatik dira, betiko, ezin aldatuak beren zikloan.
Ea bada, entzun nire hitzak, ikasteak adimena handitzen baitu.
Lehen esan nuenez, nire kontakizunaren mugak zehaztean,
kontu bikoitz bat esango dizut:
behin batean hazi zen askotik bat bakarrik izateko;
eta beste batean, berriz, banandu egin zen batetik asko izateko:
sua, ura, lurra eta airearen altuera eskerga,
eta Gorroto gorri, horietatik bereiz,
osotasunean indar eginez, Maite haien artean,
haren berdina bai luzean nola zabalean.
So egiozu zorrotz adimenaz, harrimenak
ez dezala zure begirada zurrun,
hura bera berezkotzat hartzen baita hilkor kideengan ere,
eta haren kariaz burura jaiotzen zaizkie maite pentsamenduak
eta ekintza ohoragarriak egiten dituzte
eta Poz edo Afrodita izena eman diote.
Haien artetik joan-etorrita ere, gizon hilkor batek berak ere ez du oraindik
ikusi; baina zuk, entzun ezazu erne engainagarria ez den nire arrazoibidea.
Izan ere, horiek guztiak[8] berdinak dira eta adinekoak,
baina bakoitzak bere maila du eta bere izaera,
eta aldika nagusitzen dira denboraren jirabiran.
Eta horietaz gain ez da ezer sortzen ez suntsitzen,
etengabe hilko balira, ez bailirateke izango.
Eta zerk bultzatuko luke den oro haztera? Non luke sorburu?
Eta nola desagertuko lirateke, ezer ez baitago haiez husturik?
Direnak dira haiek denak, baina ibiliaren ibiliaz,
elkarrekin trukatzen dira, baina beti berdinak izanik.

9. PSEUDO ARISTOTELES, MXG 2, 28, 976b (B 12)
Zeren ez denetik ezinezkoa baita ezer sortzea,
eta badena hiltzea eginezina eta ez jakina,
beti izango baita, behintzat,
nornahik noiznahi finkatu nahi duen tokian.

10. AEZIO, I 18, 2. PSEUDO ARISTOTELES, MXG 2, 28, 976b (B 13)
Osotasunaren ezer ez dago hutsik ezta beteta ere.

11. HIPOLITO, VII 29 (B 16)
Lehen ziren moduan badira orain, eta izango dira,
eta inoiz, nik uste, ez da hustuko,
ez bataz eta ez besteaz[9], denbora agortezina.

12. PLUTARKO, *Colotesen kontra*, 1111f. AEZIO, I 30, 1 (B 8)
Eta beste kontu bat esango dizut: hilkor guztietan inorena
ez dago jaiotzarik, ezta heriotza zorigaiztokoaren amaierarik ere,
nahastutakoaren nahasketa eta banaketa besterik ez baizik,
eta "jaiotza" gizakiek emandako izen bat da.

13. *Ibidem* 1113a (B 9)
Eta haiek, nahasketaren kariaz
giza karantzaz eterrera azaltzen direnean –edo basapiztia,
zuhaixka edo txori itxuraz bestela–,
orduan "jaiotzea" dela esaten dute,
eta banatzen direnean, bestalde, "hiltze zorigaiztokoa":
ez dute hitz zuzenik erabiltzen, eta neronek ere
ohitura bera hartzen dut.

14. SINPLIZIO, *Fisika* 159, 13. ARISTOTELES, *Sorkuntzaz eta usteldurаz* I 1, 314b. GALENO, *De simpl. med. temp*. II 1. PLUTARKO, *De primo frig.* 13, 949f. ARISTOTELES, *Metafisika* III 4, 1000a (B 21)
Goazen, bada, hasieran esandakoaren testigantzatzat
begira ezaiozu ondoko honi,
ea hasierako esanetan egon ote zen egur gutxi
itxurari dagokionez: ikus itzazu ageriko Eki
argitsu eta erabat beroa,
beroz eta argi distiratsuz blai dauden
hilezkor guztiak, baita euria ere,
ilun eta oso hotza toki guztietan, lurretik

gauza sendo eta errotuak sortzen diren bitartean.
Gorrotoan gauza guztiak itxura desberdinekoak dira eta bananduta doaz,
baina Maitean elkarrekin dabiltza[10] eta elkar irrikatzen dute.
Horien baitatik sortu da izan dena, badena eta izango den guztia:
zuhaitzak, gizonak eta emakumeak,
piztiak, txoriak eta uretan hazitako arrainak,
eta betikotasunean bizi diren jainkoak,
lore eta ohore franko jasotzen dituztenak.
Direnak dira haiek denak, baina ibiliaren ibiliaz,
desberdindu egiten dira, nahasketak aldatzen baititu.

15. SINPLIZIO, *Fisika* 159, 27 (B 23)
Nola pintatzaileek margotzen dituzten zinpeko taulak
–lanerako oso gizon adimenez jantziak baitira–
eta eskuetan harturik kolore askotako margoak
eta, harmonia gordez, denak nahastu ondoren,
hemendik pixka bat gehiago edo hortik gutxiago,
haietatik burutzen dituzte gauza guztien antza duten irudiak,
zuhaitzak asmatuz, eta gizon eta emakumeak,
piztiak, txoriak eta uretan hazitako arrainak,
eta betikotasunean bizi diren jainkoak,
lore eta ohore franko jasotzen dituztenak;
horrela, zure barnean zabal ez dadila
beste nonbait izaki hilkorren beste iturri bat dagoen gezurra,
ugari azaltzen diren horiena, behintzat.
Aitzitik, hori guztia gorde ezazu argiro buruan,
jainko baten partez entzun baitzenuen kontakizuna.

16. *Ibidem* 33, 18 (B 26)
Aldika nagusitzen dira zikloaren jirabiran,
elkar ahultzen eta handitzen dute patuaren aldian,
direnak baitira haiek denak, baina ibiliaren ibiliaz,
gizakiak sortzen dira, baita beste pizti espezieak ere,
batzuetan Maitek bultzaturik denak mundu ordenatu batean bilduta,
beste batzuetan, berriz, Gorroto garratzak gauza bakoitza bitan bananduta,
harik eta, batean elkarturik, sakonetik osotasuna sortu arte.
Horrela, bat askotik sortzera ohituta dagoen neurrian

eta, halaber, bat banatzean, aniztasuna gauzatzen den neurrian,
halaxe sortzen dira eta haien bizialdia ez da iraunkorra.
Baina aldaketa etengabekoak nekatzen ez diren neurrian,
horregatik dira, betiko, ezin aldatuak beren zikloan.

17.PLATON, *Gorgias* 498e (B 25)
Izan ere, beharrezkoa dena,
bi aldiz esatea da ona.

18.PLUTARKO, *De def. orac.* 418c (B 24)
…mutur bat bestearekin lotuz,
nire kontakizunaren bide bakar bat burutu ez dadin,

19.PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 926d. SINPLIZIO, *Fisika* 1183, 28 (B 27)
Han ekiaren irudi ederra ere
ez da bereizten, ez lurraren
indar bilotsua, ezta itsasoa ere.

20.ESTOBEO, *Eglogak* I 10, 11. ARISTOTELES, *Metafisika* III 4, 1000a (B36)
Haiek elkartzean, Gorroto mugatik gertu kokatu zen.

21.PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 926d. SINPLIZIO, *Fisika* 1183, 28 (B 27)
Han ekiaren gorputz-atal bizkorrak ere
ez dira bereizten.
(...)
Horrela, tinko finkatu zen Harmoniaren gordeleku trinkoan
Esfero biribila, inguratzen duen lasaitasunaz alai.

22.HIPOLITO, VII 29. SINPLIZIO, *Fisika* 1124, 1. ESTOBEO, *Eglogak* I 15, 2(B 29-28)
Haren bizkarretik ez baitira bi adar altxatzen,
ez oinik, ez belaun azkarrik, ez ugal-zatirik,
baizik eta Esfero bat zen, <edonon> berdina,
edonon berdina, behintzat, eta guztiz mugaezina,
Esfero biribila, inguratzen duen lasaitasunaz alai.

23. ARISTOTELES, *Metafisika* III 4, 1000b. SINPLIZIO, *Fisika* 1184, 12 (B 30)
Baina Gorroto handia bere atalen baitan haziz geroztik
ohore bila altxatu zenean, itun artatsu batek hari
ezarritako txandaren denbora amaituta…

24. SINPLIZIO, *Fisika* 1184, 2 (B 31)
Jainkoaren atal guztiek, banan-banan, dar-dar egin baitzuten.

25. SINPLIZIO, *Fisika* 160, 26. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 16 (B 22)
Izan ere, haiek guztiak konkordian daude beren atalekin
–Distiratsua eta lurra, zerua eta itsasoa–.
Atalak, haietatik urrunduta, hilkorren baitan hezi dira.
Era berean, nahasketarako egokienak diren horiek
tinko finkatzen dira elkarrekin, Afroditak antzekoak egin baititu.
Baina etsairik handienak elkarrengandik gehien banantzen direnak dira,
jatorriari, nahasketaren egiturari
eta zigilaturik duten irudiari dagokienez,
guztiz arrotzak bizikidetzarako eta oso sumiduak
Gorrotoren seme-alabak izateaz,
hartan sortu baitziren.

26. SINPLIZIO, *Fisika* 1124, 9 (B 20)
Hori, hilkor atalen kopuruan egiten da nabarmena; batzuetan, Maiteren kariaz
gorputza osatzea tokatu zaien
atal guztiak batean elkartzen dira,
bizitzaren lorean; beste batzuetan, ordea, Bekaitz
gaiztoek zatiturik, bakoita bananduta dabil alderrai,
bizitzaren itsasoak bultzaturik.
Patu bera dute landareek eta uretan bizi diren
arrainek, mendietan gordetzen diren
basapiztiek eta hegan egiten duten hegaztiek.

27. KLEMENTE, *Stromateis* V 48 (B 38)
Goazen, bada, aurrena (...) esango dizut,
eta nondik egin zen agerikoa orain ikusten dugun oro,
lurra eta uhin apartsudun itsasoa, eta aire hezea
eta eterreko Titana, bere biribilean dena ixten duena.

28. HERODIANO, *Schema. Homerici*, Sturz-en *Et. Gud.* 745 (B 51)
Gorantz arin baino arinago *(ateratzen da kea).*

29. ARISTOTELES, *Sorkuntzaz eta usteldurаz* II 6, 334a; *Fisika* II 4, 196a (B 53)
(airea) bere bidean, batzuetan honela aurkitu baitzen,
askotan, bestela.

30. *Ibidem* II 6, 334a (B 54)
Eterra, bestalde, sustrai handiz lurraren sakonean sartzen zen.

31. *Ibidem* II 6, 333a (B 37)
Lurrak bere gorputza handitzen du, eta eterrak eterra.

32. PROKLO, *Timeo* II 8, 26 (B 52)
Lur azpian su asko erretzen dira.

33. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* II 13, 294a (B 39)
Infinituak balira benetan lurraren sakontasuna
eta eter zabala, askoren mihiek hutsalez
esaten duten bezala,
osotasunaren ezer gutxi ikusten dutenen ahoek isurita ...

34. PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 920c (B 40)
Eki puntazorrotzekoa eta ilargi bihozbera.

35. MAKROBIO, *Saturnalia* I 17, 46 (B 41)
Baina hura[11], behin bilduz gero,
jiraka ibiltzen da zeru zabalaren inguruan.

36. PLUTARKO, *Apoliniar orakuluez* 400b (B 44)
Olinpora bidaltzen ditu bere izpiak,
izukaitz aurpegiz.

37. *Anecdota Graeca*, Bekker I 337, 13 (B 47)
Jaunaren zirkulu sakratua
behatzen du[12] bere aurrean.

38. FILON, *Probidentziari buruz* II 70. PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 929e (B 43)
Nola tximista, ilargiaren
zirkulu zabala joz geroz.

39. AKILES TAZIO, 16, 43, 6M (B 45)
Lurraren inguruan jira eta bira dabil,
argi arrotz eta biribil.

40. PLUTARKO, *De fac. in orbe lun.* 925B (B 46)
Nola gurtardatza jira eta bira dabilen,
halaxe bera mutur batean.

41. *Ibidem* 929C (B 42)
Haren izpiak estali zituen,
gainetik iragaitean, eta lurraren zati bat ilundu zuen,
hain zabala nola zabala den begi argidun Ilargia.

42. PLUTARKO, *Platoniar kontuak* 1006f (B 48)
Lurrak ekartzen du gaua,
<ekiaren> distiren azpian jarrita.

43. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* VIII 3, 720e (B 49)
Gau mortu eta itsuarena...

44. TZETZES, *Alleg*. 83 (B 50)
Itsasotik irisek haizea
edo euri lodia dakar.

45. HEFESTION, *Enchirídion* 1, 2, 13 (B 56)
Gatza kristalezko bihurtu zen, ekiaren dirdiren eraginpean.

46. ARISTOTELES, *Metereologia*, II 3, 356a (B 55)
Itsasoa, lurraren izerdi.

47. SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz*, 528, 30 eta 587, 8; *Fisika* 32, 11. ARISTOTELES, *Poetika* 25, 1461a. ATENEO, X 423. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* VIII 3, 677d (B 35)
Baina nik, itzuliaren itzuliaz, lehen
azaldutako kontakizunen bidea hartuko dut,
hitzaldi batetik beste bat bideratuz,
hau da: Gorrotok jotzen duenean zirimolaren
hondoko hondoa, eta Maite zurrunbiloaren erdira
iristen denean, han, orduan, denak biltzen dira
bat bakarrik izateko, ez berehala, nahita elkartuz baizik,
batzuk hemendik eta besteak handik.
Eta haiek nahastean sakabanatu ziren milaka arraza hilkor;
baina asko nahasteke gelditu ziren,
nahasketan ari zirenetatik aparte,
–Gorrotok, oraindik, goian eusten zituen horiek, hain zuzen–
aitzakiatan ez baita oraindik haietatik urrundu
biribilaren azken muturretaraino,

baizik eta haren zati batzuk barnean zituen
eta beste batzuk kanpoan.
Baina etengabe urrundu ahala, etengabe
areagotzen zen Maiteren isuri onbera eta hilezkorra;
berehala egin ziren hilkor lehen hilezkor zirenak
eta nahastu ordu arte garbiak zirenak,
norabideak trukaturik.
Eta haiek nahastean sakabanatu ziren milaka arraza hilkor,
itxura askotarikoz egokituak, ikusteko gauza zoragarria.

48.SINPLIZIO**,** *Fisika* 300, 19. ARISTOTELES, *Arimari buruz* I, 5, 410a (B 96)
Eta lur gozoari, bere bular zabalen arragoetan,
Nestisen distiraren bi zortziren tokatu zitzaion,
eta Hefestoren lau. Eta hezur zuriak sortu ziren,
Harmoniaren lokarriz zoragarri lotuak.[13]

49.ARISTOTELES, *Metereologia*, IV 4, 381b (B 34)
Irina urarekin batu ondoren…

50.SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz*, 586, 29. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* III 2, 300b (B 57)
Han leporik gabeko buru asko erne ziren,
eta besoak biluzik zebiltzan noraezeko, sorbaldarik gabe,
eta begiak alderrai zebiltzan, bekoki eske.

51.SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz*, 587, 20 (B 59)
Baina jainko bat beste jainko batekin nahastu ahala[14],
besteek elkarrekin topo egiten zuten,
bakoitza biltzen zen tokian, eta haietaz gainera,
beste asko sortu eta sortu egiten ziren gelditzeke.

52.ELIANO, *Animalien naturaz* XVI 29. SINPLIZIO**,** *Fisika* 371, 33. ARISTOTELES, *Fisika* II 7, 198b (B 61)
Izaki asko jaio ziren aurpegi eta bular bikoitz,
giza aurpegidun behiak, eta alderantziz,
behi burudun gizakiak, beste batzuk
gizonezko eta emakumezko atalen nahastauta,
sexu-organo ilunez hornituta.

53. SINPLIZIO**,** *Fisika* 381, 29. ARISTOTELES, *Fisika* II 8, 199b (B 62)
Goazen orain, bada, entzun ezazu
gizon eta emakume oso negartien gaueko umeak
nola suak, zatitu zenean,
gora eraman zituen, nire hitzak
ez baitira hutsalak, ezta ergelak ere.
Osoak erabat, lehendabizi lurretik ari ziren sortzen,
ura eta beroa biak batera zituzten irudiak;
haiek suak zeramatzan gora
bere kidekora heldu nahian. Hala ere,
ez zuten soin-atalen graziarik, ez ahotsik,
ez gizonaren bereizgarri den organorik.

54. PLUTARKO, *Natur kontuak* 917c (B 64)
Eta gogoa ere badatorkio, buruan gordetako
ikuskizunaren bidez.

55. EURIPIDESen *Fen*. 18-ri oharra (B 66)
Zelai azal-zulatuak... Afroditarenak.

56. ARISTOTELES, *Animalien sorrera* I 18, 722b (B 63)
Bestalde, sakabanatuta zegoen soin-atalen izaera:
zati bat gizonezkoarenean...

57. *Ibidem* I 17, 723a (B 65)
Zonalde hutsetan isuri ziren;
batzuek emakumeak sortzen dituzte
hotzarekin topo eginda,
<beste batzuek, berriz, arrak,
beroarekin>.

58. GALENO, *Izurrite*ei iruz. VI 48 (B 67)
Zonalderik beroenean arren sortzaile
baita sabela; gizonak horregatik
dira beltzak, indartsuagoak eta iledunagoak.

59. ARISTOTELES, *Animalien sorrera* IV 8, 777a (B 68)
Zortzigarren hilabetearen hamargarren egunean
<odola> zorne zuri da[15].

60. SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz* 529, 28 (B 71)
Baina kontu hauekiko zure sinesmena ahula balitz,
<esango dizut> ura, lurra, eta eterra eta ekia

nahastuta, haietatik nola sortu ziren
irudiak eta hilkorren koloreak,
Afroditak osaturik orain sortu diren adina.

61.PLUTARKO, *De amic. multit.* 95a (B 33)
Piku-zukuak esne zuria
mamitu eta eutsi zuenean bezala.

62.SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz* 530, 5 (B 73)
Eta orduan Ziprisek, lurra euritan
busti ondoren, moldaturiko irudiak
su azkarrari eman zizkion beraiek indartzeko.

63. ATENEO, VIII 3348 (B 72)
Eta nola zuhaitz handiak
eta itsasoko arrainak ere…

64.PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* III 2, 2, 649c. TEOFRASTO, *caus. plant.* I 13, 2 (B 77-78)
<Zuhaitz> beti berde eta beti fruitudunak
loratu egin ziren fruitu oparotasunez
airearen arabera urte osoan.

65.ARISTOTELES, *Animalien sorrera* I 23, 731a. TEOFRASTO, *caus. plant.* I 7, 1 (79)
Horrela, bada, zuhaitz handiek
olibondoaren arrautzak jartzen dituzte aurrena.

66.PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* V 8, 2, 683d (B 80)
Horregatik dira berankorrak punisagarrak
eta oso gozoak sagarrak.

67.PLUTARKO, *Natur kontuak* 912c. ARISTOTELES, *Topikoak* IV 5, 127a (B 81)
Ardoa azaleko geruzatik sortu eta
egurretan ustelduriko ura da.

68.PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* V 10, 4 (B 74)
Musikarik gabeko arrain ugalkorren saldoa gidatuz.

69. *Ibidem* I 2, 5 618b; *De fac. in orbe lun.* 927f (B 76)
Hori itsas-izakien maskor astunetan gertatzen da,
eta benetan, bai barraskiloen eta bai harrizko azaldun dortokenetan,
hor ikusiko duzu lurra haien gorputzen gainaldean bizi dela.

70.SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz* 530, 8 (B 75)
Eta, haietakoren artean, barnekoa lodi
eta kanpokoa bigun dutenak, halako biguntasun
Ziprisen eskuetan lortua...

71.ARISTOTELES, *Metereologia*, IV 9, 387b (B 82)
Gauza bera dira
ileak, hostoak, hegaztien hegal lodiak
eta gorputz-atal gogorren gaineko ezkatak.

72.PLUTARKO, *De fort.* 98d (B 83)
Trikuei, ordea, zurda zorrotzak
laztu zaizkie bizkarrean.

73.PLUTARKO, *Natur kontuak* 916d (B 89)
Jakin ezazu: gauza guztienak daude isuriak,
sortu ziren ororenak.

74.ALEXANDRO, *Quaest.* II 23 (B 91)
Ardoarekin <ura> kidekoagoa da,
baina olioarekin ez du nahi.

75.PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* IV 1, 3 663a. MAKROBIO, *Satur - nalia* VII 5, 17 (B 90)
Horrela, gozoak gozoa hartu zuen,
mingotsak mingotsaren gainera egin zuen jauzi,
garratza garratzari joan zitzaion,
eta beroa beroaren bila abiatu zen.

76.PLUTARKO, *De def. orac.* 433b (B 93)
Lihoarekin azafrai garbiaren distira nahasten da[16].

77-78. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 10. ARISTOTELES, *Metafi - sika* II 4, 1000b; *Arimari buruz* I 2, 404b (B 109-107)
Lurrez lurra ikusten baitugu,
urez ura, eterrez eter jainkozkoa,
eta suz su suntsitzailea;
maitea maitez eta gorroto gorroto hilgarriz.
Izan ere, osagai horietatik gauza guztiak osatu dira harmonikoki,
eta osagai horiez pentsatzen dute eta gozatzen eta mintzen dira.

79.ARISTOTELES, *Arimari buruz* III 4, 427a; *Metafisika* III 5, 1009b (B 106)
Aurrean duenaren arabera
adimena hazten baita gizakiengan.

80. ARISTOTELES, *Metafisika* III 5, 1009b. FILOPONO, *Metafisika* 486, 13 (B108)
Desberdinak bilakatzen diren neurrian,
horrela ere dagokie beti
pentsamendu desberdinak bururatzea.

81. SINPLIZIO**,** *Fisika* 331, 10 (B 103)
Horrela, Fortunaren nahiaz,
gauza guztiak pentsatzeko gai dira.

82. *Ibidem* 331, 13 (B 104)
Eta gauzarik arinenak
erorian bildu ziren neurrian...

83. *Ibidem* 32, 3; 331, 3 (B 98)
Eta lurrak neurri berdinean egin zuen topo
osagai haiekin,
Hefestorekin, euriarekin,
baita eter guztiz goriarekin ere,
Ziprisen azken ur-ezpondetan porturatu ondoren,
neurritzat pixka bat gehiago zein gutxiago hartuz:
haietatik sortu ziren odola
eta haragiaren formak oro.

84. *Ibidem* 331, 3 (B 85)
Eta sugar onuragarriari lurraren zati txiki bat tokatu zitzaion.

85. SINPLIZIO**,** *Zeruari buruz* 529, 21 (B 86)
Haietatik ekoiztu zituen Afroditak
begi nekaezinak.

86. *Ibidem* 529, 24 (B 87)
Afroditak samurtasun iltzez
josi ondoren.

87. *Ibidem* 529, 26 (B 95)
Hasieran Ziprisen eskuetan
<begiak> elkarrekin jaio zirenean.

88. ARISTOTELES, *Sentimenari buruz* 2, 437b (B 84)
Nola gizon bat bidea hartzerakoan
negutiar gauean kriseilu batez hornitzen den
–su biziko garra–, haize mota guztietarako
argi-ontzi babesleak hartu ondoren

–haize zakarren putza sakabanatzen duten argi-ontziak–,
baina argiak, meheagoa den neurrian, kanpoko aldea jotzen du
eta distira egiten du atalasean zehar bere izpi menderaezinez,
hala orduan antzinako suak, mintz mehe eta belo ilaunetan
–pasabide zoragarriek zeharkaturik daudenetan– itxita egonik,
nini biribila sortu zuen.
Haiek babesten zuten haren inguruan dabilen ur sakonaz,
baina suak zeharkatu egiten zuen, meheagoa den neurrian.

89. ARISTOTELES, *Poetika* 21, 1458a (B 88)
Bi begietatik <ikuspegi> bakarra sortzen da.

90. PLUTARKO, *Natur kontuak* 39 (B 94)
Eta ibai baten azpian kolore beltza itzaletik sortzen da,
leize-zuloetan ere ikus daitekeena.

91. ARISTOTELES, *Arnasketari buruz* 7, 473a-b (B 100)
Horrela hartzen eta botatzen dute arnasa animalia guztiek:
denengan haragizko tutuak daude, odolez hustuak,
gorputz osoan zehar zabaltzen direnak,
eta haien aho gainean, hodi trinkoz zulatuak,
azalaren azken muturrak zabaltzen dira alde batetik bestera,
eta hortaz odola ezkutatzen dute, aireari irteteko bidea lortzen
zaion bitartean.
Hortik odol samurrak alde egiten duenean,
aire irakina sartzen da borborka eta oldarka,
eta <odolak> gora egiten duenean <animaliak> arnasa botatzen du.
Halaxe neskato bat klepsidra brontzezko batez
jolasten denean: bere esku ederra tutuaren ahoan jarrita
ur zilarretan bustitzen duenean,
ontzian ez da euri-urik batere sartzen,
baizik eta aire multzoak eragozten dio
barnetik indar eginez hodi trinkoen kontra,
harik eta neskatoak korronte trinkoari estalkia kentzen dion arte[17];
eta orduan da, bestalde, putza atzera eginda, ura bere neurrian sartzen denean.
Era berean, urak brontzezko barne-muinak hartzen
dituenean, gorputz hilkorrak ahoa edo bidea itxita,
kanpoko aireak, sartzeko irrikitan, euri-urari eusten dio
iragazki zaratatsuaren ateen ondoan, gailurra menderatuz,

harik eta eskua askatzen duen arte;
eta orduan da, lehengoaren alderantziz,
putza aurrera eginda, urak bere neurrian ihes duenean.
Halaxe gertatzen da odol samurra soin-ataletan zehar
borborka ibiltzean, atzera eginez,
barneraino jaurtitzen denean:
airearen korrontea segituan jaisten da uhinetan oldartuz,
baina kanpora egiten duenean, berriro
botatzen du arnasa kantitate berdinean.

92. PLUTARKO, *De Curios.* 520e; *Natur kontuak* 917e. PSEUDO ALEXANDRO, *Problem*. III, 102 (B 101)
Piztien gorputz-adarren hondarrak muturrez usnaka[18],
belar guriaren gainean hankekin utzitako horiek...

93. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* I 305, 8 (B 102)
Horrela, benetan, gauza guztiek dute parte bai arnasean eta bai usaimenean.

94. PORFIRIO, ESTOBEOren *Eglogetan* I 49, 53an (B 105)
Odolezko itsaso taupadatsuetan elikatuta,
hor dago, gehienbat, gizakiek adimena deituriko hori;
bihotza inguratzen duen odola adimena baita.

95. KLEMENTE, *Stromateis* V 140 (B 132)
Zoriontsua jainkoen pentsamenduen altxorra lortu duena;
zorigabekoa, ordea, jainkoei buruz iritzi ilun bat interesatzen zaiona.

96. *Ibidem* V 8 (B 133)
Ez dago gure begien eremura ekartzerik,
ez eskuz hartzerik –hor non fedearen biderik zabalena
gizakien adimenera iristen den–.

97. AMONIO, *De interpr.* 249, 1 (B 134)
Ez baita giza bururik gorputz-atalen gainean gailentzen,
eta bizkarretik ez dira bi adar altxatzen,
ez du oinik, ez belaun arinik, ez sexu-organo iletsurik;
aitzitik, adimen baizik ez da, jainkozko eta ikusezina,
pentsamendu arinez mundu osoa zeharkatzen duena.

98. PLUTARKO, *Max. cum princip. phil.* 777c (B 27a)
Ez dago gatazkarik ez alferrikako borrokarik gorputz-adarren artean.

99.PORFIRIO, *Pitagorasen bizitza* 30. DIOGENES LAERTZIO, VIII 54 (B 129)

Bazen haien artean jakinduria aparteko gizon bat,
pentsamendutan, zinez, aberastasun handia eskuratua zuena,
arlo guztietan oso lan iaioen jauna,
bere pentsamendu guztiak zabaltzen zituenean
erraz eta zehatz ikusten baitzuen diren guztien gauza bakoitza,
gizakien bai hamar bai hogei bizialditan liratekeen adina.

100. HIPOLITO, VIII 29. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VIII 286 (B 110)

Izan ere, zeure pentsamendu trinkoen azpian finkatuta[19],
ongi nahian eta adiera garbiz behatzen badituzu,
haiek denak agerikoak egingo zaizkizu bizialdi osoan zehar
eta beste asko ere lortuko dituzu haietatik,
haiek beren kasa hazten baitira izaera bakoitzean,
norbera denaren arabera.
Hala ere, zuk, behintzat, bestelakorik bilatuko bazenu
–gizonen artean milaka diren huskeriak, gogoetak
lohitzen dituztenak, hain zuzen–
haiek berehala utziko zaituzte denbora igarota,
beren berezko jatorrira itzultzeko irrika baitute.
Izan ere, jakin ezazu gauza guztiek badituztela
adimena eta egoki zaien zentzumena.

101. DIOGENES LAERTZIO, VIII 59. KLEMENTE, *Stromateis* VI 59 (B 111)

Gaitzen aurkari eta zahartzaroaren babes diren
sendagaiak ezagutuko dituzu, zuretzat bakarrik
beteko baitut nik hori dena. Haize nekaezinen
haserrea baretuko duzu, lurraren gainean beren putzez joka
ereindakoak porroskatzen dituzten haizeak. Eta alderantziz,
nahi baduzu, putz ordaingarriak zuzenduko dituzu,
eta euri ilunaren ostean lehortea ezarriko duzu, gizakientzat egokia,
eta lehortearen ostean ere zuhaitzen elikagai diren ur korronteak
ezarriko dituzu, eterrean bizi direnak,
eta ekarriko duzu Hadesetik hildako gizon baten indarra.

102. DIOGENES LAERTZIO, VIII 62. KLEMENTE, *Stromateis* VI 30 (B 112)

O Lagunok, Agrigento gorriska ondoko
hiriburu handian bizi zaretenok, hiri goialdean,
lan duinetan zabiltzatenok
–atzerritarren babes ohoragarriak eta gaztekiriaren ezjakinak–,
nik agurtzen zaituztet! Ni, zuen artean jainko hilezkorra
–dagoeneko ez hilkorra–, sarritan joaten naiz denon artean goratua,
dirudienez, soinetan xingolak eta buruan loreak jarririk.
Hiriburu aberatsetara iristen naizenean,
denek –gizonek eta emakumeek– gurtua naiz;
eta milaka jarraitzen didate, bide onuragarria non den
jakin nahian, batzuk jainkozko iragarpenak jasotzeko,
beste batzuk mota guztietako gaitzen kontra
erantzun sendagarri bat entzun nahian,
aspaldidanik min sakonez zeharkaturik baitaude.

103. KLEMENTE, *Stromateis* V 9 (B 114)

O lagunok, badakit egia bizi dela nik esango ditudan hitzetan;
baina onartzen oso zaila egiten zaie gizonei,
eta sumingarria uste osoaren erasoa gogoan.

104. PLUTARKO, *Kolotesen kontra*, 1113c (B 11)

Inozoak!, haien kezkak ibilbide luzeko pentsamenduak ez baitira;
lehen ez zena, benetan, sor daitekeela,
eta zerbait erabat hil eta suntsi daitekeela uste duten horiek

105. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* I 302 (B 113)

Baina zergatik hartzen dut gai haien ardura,
lan handia egingo banu bezala,
hilkor eta mila eratan galgarri
diren gizakien gainetik banago?

106. PLUTARKO, *Kolotesen kontra*, 1113d (B 15)

Gizon jakintsu batek ez luke bere barnean halako auguriorik egingo:
bizitza deitzen dutena bizi duten bitartean,
orduan, egiaz, badirela,
zorion eta zorigaitzen artean,
baina hilkor osatu aurretik
eta sakabanatu ondoren, ezer ez direla.

107. HIPOLITO, VII 29. PLUTARKO, *De Exil.* 607c; *De Is. et Os.* 361c. PLOTINO, IV 8, 1 (B 115)
Bada Beharraren hitz bat,
jainkoen aspaldiko erabakia,
betikoa, zin zabalez zigilatua:
“Norbaitek, akatsez, hilketa batez
bere gorputz-adarrak zikintzen dituenean,
eta, okertuta, zin faltsu bat egiten duenean,
bizitza luzea tokatu zaien espiritu horiek,
hogeita hamar mila urtez Zoriontsuetatik urrun
ibili behar du alderrai, denboran zehar
hilkorren mota guztietako itxurez jaioz,
bizitzaren bide neketsuak txandakatzen dituztenak.
Izan ere, eterraren indarrak itsasora bultzatzen dituzte,
eta itsasoak itsas ezpondetara bidaltzen,
eta lurrak ekiaren izpi distiratsuetara,
eta hark eterraren zurrunbiloetara bidaltzen du.
Eta batak bestetik jasotzen ditu,
baina denek gorroto diete.”
Ni ere horietako bat nauzue,
jainkoarengandik erbesteratua eta alderraia,
gorroto eroan konfiantza jarririk.

108. DIOGENES LAERTZIO, VIII 77. HIPOLITO, I 3 (B 117)
Ni lehenago mutiko eta neskato izana bainaiz,
sastraka eta txoria, baita itsasoko arrain mutua ere.

109. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* IX 5, 745c (B 116)
(Graziak) gorroto dio Behar jasanezinari.

110. PLUTARKO, *De esu. carn*. 998c. PORFIRIO, ESTOBEOren *Eglogetan* I 49, 60-an (126)
Haragizko jantzi arrotz batez estaltzen du.

111. KLEMENTE, *Stromateis* IV 12. PLUTARKO, *De exil.* 607d (B 119)
Zelako ohorea eta zer zorion handia...

112. *Ibidem* III 14 (B 118)
Negar egin nuen eta arrangura izan nuen ez-ohiko lurraldea ikustean.

113. HIEROKLES, *ad c. aur.* 24. PROKLO, *Errep*. II 157, 24 eta *Crat*. 103. SINESIO, *Probidentziaz* 1 (B 121)
Toki tristea, han Herio eta Bekaizkeria,
eta beste zoritxarreko Jainko talde batzuk,
Gaixotasun zitalak eta Usteldura, baita Hidropesiak ere,
Balbearen zelaian zehar, ilunez ilun bueltaka dabiltza.

114. KLEMENTE, *Stromateis* III 14. TIMON 10. zatia (Diels) (B 124)
O, hilkorren arraza dohakabea, zorigaiztokoa!
Zelako gatazkatatik eta aihenetatik sortu ote zineten!

115. PORFIRIO, *Ninfen kobazuloa* 8, 61, 19 (B 120)
Iritsi ginen leize-zulo honetara,
sabaipean gaude.

116. PLUTARKO, *De tranq. an*. 474b (B 122)
Han zeuden Lur maitagarria eta Eki maitagarri begi-argi,
Gatazka odoltsu eta Harmonia aurpegi-ohoragarri,
Edertasun eta Itsuskeria, Arintasun eta Moteltasun,
Ziurtasun irribarretsu eta Zalantza ile-beltz.

117. KORNUTO, *Epidrome* 17 (B 123)
Jaiotza eta Heriotza, Atseden eta Zelataritza,
Mugimendu eta Gelditasun eta Maiestate koroaduna
eta Doilorkeria, Isiltasun eta Hizkuntza...

118. PORFIRIO, *Abstinentziari buruz* II 20 (B 128)
Ez zen haien artean Ares jainkoa, ez Gudu,
ez zen Zeus errege, ez Kronos ezta Poseidon ere.
Zipris zen erregina…
Haren ona bilatzen zuten jaieradun esku-erakutsiekin
eta abereen marrazkiekin, usain gozoko lurrinekin,
mirra hutsa eta intsentsu zorabiagarria errez,
eta lurrera botaka ezti horia, eskaintza moduan.
Baina aldarea ez zuten bustitzen zezen odol-bortitzek,
izan ere, bekaturik beltzena gizakientzat bizia kendu ondoren
haragi sakratua jatea baitzen.

119. NIKANDROren *Theriaca* 452, 36, 22ri oharra (B 130)
Baziren denak gozoak eta onberak gizakiekin,
piztiak nola hegaztiak, eta adeitasunak distira egiten zuen.

120. PORFIRIO, *Abstinentziari buruz* II 31 (B 139)
Ai ene!, egun errukigabe batek lehenago suntsitu ez ninduen-eta,
elikaduraren ekintza higuingarria nire ezpainetan
pentsatu aurretik.

121. ARISTOTELES, *Ret*. I 13, 1373b. ZIZERON, *Errep*. 11, 19.
SEXTO ENPIRIKO, VII 122 (B 135)
Baina legea denentzat zabaltzen da zirrikiturik gabe,
jabetza zabaleko eterrean eta Ekiaren distira neurtezinean zehar...

122. SEXTO ENPIRIKO, IX 127 (B 136)
Ez duzue amaituko hilkintza disonante hori?
Ez duzue ikusten elkar hiltzen duzuela adimenaren arduragabekeriaz?

123. KLEMENTE, *Protreptico* 2, 27 (B 145)
Beraz, jasan ezinezko zorigaiztoz astinduta zaudetenez,
sekula ez duzue zoritxarreko gaitzetatik adorea sendatuko.

124. SEXTO ENPIRIKO, IX 127. ORIGENES, *Zeltsoren kontra* V
49 (B 137)
Aitak itxuraz aldaturiko bere semea altxatu eta,
otoitzak ezpainetan, zintzur egiten dio, itsu handi horrek.
Eta besteek, larrituta, erregutzailea sakrifikatzen dute.
Baina hark, oihuei ez entzun eginez,
zintzur eginda, oturuntz lohia antolatzen du bere geletan.
Era berean, semeak aita hartzen du eta haur batzuek ama,
eta adorea kenduta haien haragi propioa jaten dute.

125. ARISTOTELES, *Poetika* 21, 1457b (B 138)
Bizia brontzez kenduz…

126. PLUTARKO, *De coh. ira* (B 144)
Gaiztakeriaren barau egitea…

127. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* III 1, 2, 646d (B 140)
Erramu-hostoetatik gorde zaitezte guztiz aparte.

128. GELIO, IV 11, 9. DIDIMO, *Geopónic*. II 35, 8. KALIMAKO,
128. zat.. KRATES, 17. zat.. (B 141)
Zorigabekook, guztiz zorigabekook, babetatik gorde itzazue eskuak.

129. TEON, 15, 7. ARISTOTELES, *Poetika* 21, 1457b (B 143)
Bost iturritatik ebaki emanez brontze menderaezinaz

130. KLEMENTE, *Stromateis* III 14 (B125)
Bizidunak hildako bihurtzen zituen, haien itxura aldatuz.

131. ELIANO, *N. H.* XII 7 (B 127)
Piztien artean lehoiak bezala, mendian biziz
eta lurrean etzanez, jaiotzen dira; eta
ile-adats ederreko zuhaitzen artean, erramu bezala.

132. KLEMENTE, *Stromateis* V 14o (B 146)
Eta azkenik, aztiak eta poetak, sendagileak
eta printzeak dira lur gaineko gizakien artean;
hortik jainkoen modura loratzen dira, ohorez gorenak.

133. KLEMENTE, *Stromateis* V 8 (B 147)
Gainontzeko hilezkorrekin etxea partekatzen dutenak,
mahai berean esertzen direnak,
giza zorigaitzetan parterik ez dutenak, menderaezinak.
ADDENDA

*1*34. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* VIII 8, 728e (B 5)
Ondo gordeta bihotz mutu barruan.

135. HESIKIO (B 7)
Sortu gabeak... osagaiak.

136. PLUTARKO, *Colotesen kontra*, 1113A (B 10)
Herio… mendekatzaile.

137. PLUTARKO, *De primo frig.* 952b (B 19)
Maite lokailu.

138. PSEUDO ARISTOTELES, *De ling. insecab.* 972b (B 32)
Giltzadurak bi gauza elkartzen ditu.

139. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 587, 18 (B 58)
Gorputz-atal bakanak alderrai zebiltzan.

140. PLUTARKO, *Colotesen kontra*, 1123b (B 60)
Behi nekeak, hankak nahasian.

141. PROKLO, *Errep*. II 34, 35 (B 69)
Bi sorrerakoak.

142. RUFO, *De nom. part. hom*. 229, 166, 11 (B 70)
Sakrifizio ontzia.

143. ARISTOTELES, *Animalien sorrera* II 8, 747a (B 92)
Kobrea eztainuarekin nahasturik.

144. ARISTOTELES, *Animalien gorputz-atalak* I 1, 640a (B 97)
Bizkarrezurra.

145. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 9 (B 99)
Txilina. Haragizko kimua.

146. 1012 Papiro, Voll. Herc. 18, *Coll. alt.* VII 15 (B 142)
Hura, zinez, ez du Zeus babes-emailearen jauregi estaliak jasoko,
ezta Hades aho-minberaren estaliak ere.

147. PLUTARKO, *Quaest. Conviv.* V 8, 2, 683e (B 148-150)
Hilkorra inguratzen duen lurra *(gorputza)*. Airea... hodei-biltzaile.
Odol-emaile gibela.

148. PLUTARKO, *Amat*. 756e (B 151)
Emankor... Afrodita

149. ARISTOTELES, *Poetika* 21, 1467b (B 152)
Zahartzaroa...bizitzaren ilunaldia.

150. TEON, 104, 1 (B 153)
Baubo (Sabela).

151. HESIKIO (B 153a)
Umekia zazpi astetan osatzen dela.

152. HERODIANO, *katholikè prosodía*
Izan ere, sustrai sendoagoak azpian
eta kimu urriagoak gainean loratzean jarri zituzten horiek.

Enpedoklesen pentsamenduari buruzko berriak

1. ARISTOTELES, *Sortzeaz eta desegiteaz* 334a26 (A 43). Enpedoklesek bezala hitz egiten dutenei, nolatan (sor daitezke beste izakiak osagaien bidez)? Beharrezkoa baita konbinaketa bat, nola harresi bat adreiluz eta harriz; eta nahasketa hura gordetako osagaiena izango da, baina zati txikietan elkarren ondoan jarrita: hala, benetan, haragia eta gainerako bakoitza.

2 PLATON, *Sofista* 242d (A 29). Gero, joniar eta siziliar zenbait musak batera ulertu zuten ziurragoa zela baieztapen biak bateratzea, eta izakia bat eta anitza dela esatea, eta bata bestearekin elkartzen dela Gorroto eta Maite bidez… Zera diote osotasuna batzuetan bat eta adiskidea dela, Afroditaren eraginez; besteetan, ordea, anitza eta etsaia, Gorroto izeneko baten kariaz.

3. ARISTOTELES, *Fisika* 187a20 (A 46). Anaximandrok, esaterako, aurkariak batetik bereizten direla dio, eta badira bat eta anitza dela diotenak ere, Enpedokles eta Anaxagoras esaterako; izan ere, haiek ere nahasketatik sortarazten dituzte besteak. Euren artean badira desberdintasunak: batak <Enpedoklesek> gauza bien itzulia idazten du eta besteak <Anaxagorasek> prozesu bakarrera laburbiltzen du, eta honek homeomeria amaigabeak <ezartzen ditu> eta hark osagai deiturikoak.

4. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 590, 19. Osagaiak lehenik Maitek lotuta egon zirela dio, baina geroxeago, Gorrotoren eraginez zatituz joan ziren neurrian, sortu zutela gure mundu hau.

5. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II 6, 3. (A 49). Enpedoklesek dio eterra bereiztu zen lehena izan zela; bigarrena sua, gero lurra, eta hortik, jirabiraren indarrez gehiegi estuturik egoteagatik, ura sortu zen eta uretatik airea; eta sortu zen zerua eterretik eta ekia sutik, eta lurraren inguruko izakiak gainontzekoetatik.

6. PSEUDO PLUTARKO, *Saski Naski*, EUSEBIOren *Praeparatio euangelica*n I 8, 10 (A 30). Enpedoklesek (...) dio airea, osagaien aurreneko nahasketatik bereizirik, inguruan zabaldu zela; airearen atzetik, sua atera zen indarrean eta, igotzeko beste tokirik ez izanik, airearen inguruko alde gogor azpian zabaldu zen. Badira, lurraren inguruan jiraka, bi hemisferio: bata su hutsezkoa eta bestea airez eta su pixka batez nahastua, gaua dela uste duen hura. Mugimenduaren

sorrera gertatu zen suak, puntu batean biltzean, desorekatu zuenean lehendik osoa zena. Ekia ez da berez su, argi isla baizik, uretan gertatzen dena bezalakoa. Ilargia, dio, suak bereizitako airetik sortu zen; izan ere, hasieran txingor moduan gogortu baitzen. Argia ekitik hartzen du hark.

7. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II 11, 2 (A 51). Enpedoklesek dio Zerua gogorra dela, izotzezko forma duen suak gogorturiko airezkoa, eta hemisferio bakoitzean suzko materia eta airezko materia dituela.

8. *Ibidem* II 20, 13 (A 56). Enpedoklesek dio bi eki daudela: bata arketipoa da, sua dena, munduaren beste hemisferioan; hemisferio hori betetzen du eta beti bere islen aurrean kokatzen da. Bestea, ikusgarria dena, beste hemisferioan islatzen da –airez eta beroz nahastutako hemisferioan–, eta izotzezko ekian islaturiko lur biribiletik sortua da, eta inguruz inguru darama suaren mugimenduak. Laburbilduz, ekia lurra inguratzen duen suaren isla da.

9. *Ibidem* II 13, 2 (A 53). Enpedoklesek dio (*astroak*) aireak bere baitan zuen suzkoak direla, eta hasierako banaketan (*airea*) zapuztua izan zen.

10. *Ibidem* II 13, 11 (A 54). Enpedoklesek dio izar geldiak izotzezkoan daudela lotuta, baina planetak aske dabiltzala.

11. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* 295a17 (A 67). Beste batzuek, Enpedoklesek esaterako, zeruaren mugimendu zirkularrak, lurraren inguruan ibilki eta azkarragoa izaki, haren mugimendua eragozten duela diote, ura koilare handian bezala.

12. AEZIO, *Filosofoen iritziak* V 19, 5 (A 72). Enpedoklesek dio animalien eta landareen lehen belaunaldiak ez zirela inolaz ere osorik jaio, baizik batera sortu ez ziren puskatan bananduta; bigarrenak, batera sortutako atalez osatuak, amesgaiztoko izakiak ziren; hirugarrenak, egitura osokoak ziren, eta laugarrenak, ez ziren antzeko osagaiez eginak, lur eta urez bezala, baizik eta batzuk besteetatik sortzen; batzuetan elikagaiaren ugaritasunagatik, besteetan, emeen edertasunak ernarazteko grina piztu zielako. Animalia guztien arrazak beren konbinaketen ezaugarrien bidez bereiztu ziren: batzuek uretarako joera dute berezkoena, beste batzuek airera hegan egitekoa –gehienbat suzko materia duten horiek–, beste batzuek, astuna-

goak, lurrean ibiltzekoa, eta nahasketan orekatuenak direnak alde guztietan egokitzen dira.

13. ARISTOTELES, *Fisika* 198b29 (B 61-an). Nonbait, benetan, dena gertatu zen helburu baterako jaio izan balira bezala, eta horiek salbatuak izan ziren, halabeharrez egoki osatuak izatearen ondorioz; hala gertatu ez zitzaien haiek hil egin ziren eta hiltzen jarraitzen dute, Enpedoklesek esaten duen bezala: "giza aurpegidun behiak" (ik. *supra* 52, 2 zatia).

14. SINPLIZIO, *Fisika* 371, 33 (B 61-an). Enpedoklesek dio Maiteren menpe sortu zirela, lehendabizi, halabeharrak ezarrita bezala, animalien gorputz-zatiak, hala buruak, hankak eta eskuak, eta gero haiek elkartu egin ziren (ik. *supra* 53, 2 zatia) (...). Beren salbazioa lortu ahal izateko moduan elkartu ziren horiek animaliak jaio ziren, eta mantendu ziren elkarren beharrak betetzeagatik: hortzek, janaria ebakiz eta zatituz; urdailak, digerituz; eta gibelak, odol bihurtuz. Izan ere, gizaki baten buruak giza gorputzari lotuta osoaren salbazioa egiten du; baina behi batenari ez datorkio bat eta galdu egiten da. Zetorkion neurriaren arabera elkartu ez zena hil egin baitzen.

15. ARISTOTELES, *Animalien sorrera*, 764a1 (A 81). Beste batzuek diote umetokian (gertatzen direla sexu-desberdintasunak), Enpedoklesek esaterako, sabel berora iristen denean hazia ar bihurtzen dela baitio, eta sabel hotzera, eme, eta berotasunaren eta hoztasunaren kausa hilekoen isuria dela, hotzago edo beroagoa, edo zaharragoa edo berriagoa dena.

16. AEZIO, *Filosofoen iritziak* V 26, 4 (A 70). Enpedoklesek dio bizidunen artean zuhaitzak izan zirela lurretik sortutako lehenak, Ekia inguruan zabaldu aurretik, eta eguna eta gaua bereizi aurretik. Beren nahasketaren simetriaren kariaz, arraren eta emearen proportzioa dute beren baitan. Eta hazi egiten dira lurrean dagoen beroak altxatuta, halako moldez non lur-zatiak baitira sabeleko umekiak umetokiko zatiak diren bezala; fruituak landareetan den ur eta su gehiegizkoa dira; eta hezetasun falta dutenek hostoa galtzen dute, udan lurrindu egiten baitzaie, baina hezetasun gehiegi dutenek gorde egiten dute, erramuak, olibondoak edo palmondoak bezala.

17. ARISTOTELES, *Arnasketari buruz*, 14, 477a32 (A 73) Enpedokles oker dago esaten duenean berotasun eta su gehiago duten animaliak

urezkoak direla, eta horrela askatzen dutela beren naturan duten berotasun gehiegia.

18. PLATON, *Menon* 76c (A 92)
Sokrates: Orduan, Gorgiasen modura erantzutea nahi al duzu, eta horrela errazago segituko didazu?
Menon: Hala nahi dut, nolatan ez?
Sokrates: Ez al duzue hitz egiten izakien isuri batzuei buruz, Enpedoklesen moduan?
Menon: Zalantzarik gabe.
Sokrates: Eta isuri horiek jarraitu eta zeharkatu egiten dituzten poroei buruz?
Menon: Jakina.
Sokrates: Eta isuri horietako batzuk poro batzuei egokitzen zaizkiela, baina beste batzuk txikiagoak edo handiagoak direla?
Menon. Halaxe da.
Sokrates. Orduan, zerbaiti deitzen diozu "begiramen".
Menon: Nik bai behintzat.
Sokrates: Horren arabera, beraz, "uler ezazu esango dizudana", Pindarok esan zuen bezala, kolorea gauzen isuri bat baita, ikusmenerako proportzionatua eta ikusgarria.

19. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 2 ss. (A 86). (2) Sentsazio bakoitzari dagokionez, gainerakoek ia egiten diote muzin arazoari, baina Enpedokles zentzumen haiek berdintasunera murritzen saiatzen da. (7) Enpedoklesek gauza bera baieztatzen du zentzumen guztiei buruz, eta poroetan bakoitzaren ahokaduraz hautematen dela dio; horren kariaz ezin dira bereizi sentimenak elkarren artean, batzuen poroak zabalegiak direlako, beste batzuenak estuegiak sentikor denarekiko, eta, hortaz, batzuk eroso iragaiten dira ukitzeke eta beste batzuk ezin dira inolaz ere iragan. Begiaren izaera azaltzen ere saiatzen da, eta dio begi barrukoa sua dela eta ingurukoa ura, lurra eta airea, eta horietan zehar iragaiten dela, kriseiluetan argia bezain ilauna baita. Suaren eta uraren poroak elkarren txandan kokatuta daude: suarenez zuri dena ezagutzen dugu eta urarenez beltz dena, bakoitza dagozkionei atxikitzen baitzaie. Koloreak isuri baten bidez iristen dira begira. (8) Ez daude berdin osaturik, batzuk osagai berdinez baizik, beste batzuk kontrakoez, eta beste batzuen erdian eta beste batzuen kanpoaldean, sua; horregatik, animalietan batzuek egunez

eta beste batzuek gauez ikusten dute hobeto; su gutxiago duten horiek, egunez, haiei barneko argia kanpokoak berdindua baitzaie; eta kontrako (*hots, ur*) gutxiago duten horiek, gauez, haiei ere barnekoa betetzen baitzaie. Kontrako egoera bakoitzean kontrakoa gertatzen da. Izan ere, su gehiegi duten horiek ere lauso ikusten dute, egunez oraindik ere su gehiago izatean uraren poroak itsutu eta itxi egiten baitira; eta ur gehiegi duten horiei gauza bera gertatzen zaie gauez, sua urak itsutua baita. Hala gertatzen da batzuetan ura kanpoko argiak baztertua den arte, eta besteetan sua aireak, bakoitzaren sendagarri bere aurkaria baita. Begirik hoberen moldeatua eta onena bi osagaion kantitate berberaz osaturikoa da. (9) Entzumena kanpoko soinuetatik sortzen da, airea soinuak mugitua denean oihartzun egiten baitu barnean; belarria soinu berdinen kanpaiaren modukoa baita, "haragizko kimua (*145. zatia*)" izendatzen zaiona; mugimenduan dabilen aireak zatirik gogorrenen kontra jo eta soinua egiten du. Usaimena arnasaz sortzen da, eta horregatik dute usaimen hobea arnasaren mugimendua sakonen duten horiek. Usainik lodiena gorputz arin eta leunetatik isurtzen da. Dastamenari eta ukimenari buruz ez du zehazten zentzumen bakoitzean ez nola ezta zergatik ere sortzen diren, pertzepzioa poroei atxikitzeaz ematen den arau orokorra izan ezik. Berdin direnez gozatzen da, osagaien eta nahasketaren arabera, eta kontrako direnez sufritzen da. Antzekoz hitz egiten du jakintasunari eta ez-jakintasunari buruz, (10) jakintasuna berdin direnez ematen baita eta ez-jakintasuna desberdin direnez; beraz, sentsazioa bera edo antzeko zerbait da jakintasuna.

20. AEZIO, *Filosofoen iritziak* IV 9, 15 (A 95). Enpedoklesek dio plazerak berdinean berdinaren eraginez sortzen direla, osoa izateko falta zenaren arabera, hortaz falta denarekiko berdinaren nahia. Minak kontrakoetan sortzen dira, elkar arbuiatzen baitute beren osagaien konbinaketan eta nahasketan desberdintzen diren horiek.

21. *Ibidem* IV 16, 1 (A 93). Enpedoklesen ustez entzumena sortzen da airearen talkaz zatirik gogorrenean, haren esanetan belarri barnean dagoen zatian, hain zuzen, kanpaiaren modura zabuka eta joka dabilena.

22. *Ibidem* IV 17, 2 (A 94). Enpedoklesek dio usaina biriken arnasketekin batera sartzen dela; beraz, arnasketa nekea egiten denean, eragozpen hura dela eta ez dela hautematen, katarrodunei gertatu bezala.

23. *Ibidem* 985a1-10. Naturan ongiaren kontrakoa ere badagoela agerian zegoenez, ez bakarrik ordena eta edertasuna, nahaskeria eta itsusikeria ere bai, eta gaiztakeriak ontasunak baino eta gauza itsusiak ederrak baino ugariagoak direnez, beste batek Adiskidetasuna eta Gorrotoa tartekatu zituen, bata batzuen eta bestea besteen kausak bezala. Izan ere, baten batek Enpedoklesen pentsamendua jarraitu eta ulertu egiten badu, eta ez haren hizketa-modu baldarra, gauza ederren kausa Adiskidetasuna dela eta gauza itsusiena Gorrotoa dela aurkituko du. Horrela, bada, norbaitek esango balu Gaizkia eta Ongia printzipioak direla eta lehenengoz esan zuena Enpedokles izan zela, ongi esango luke, seguruenik, gauza on guztien kausa Ongia bera baldin bada, eta gauza txarrena Gaizkia baldin bada.

24. *Ibidem* 985a21-b4. Enpedoklesek horrek baino gehiagotan erabiltzen ditu kausak –nolanahi ere ez behar hainbat– eta erabiltzen dituen kasuetan ez da bat etortzen bere buruarekin, haren ustez askotan Adiskidetasunak banatu egiten baitu, eta Gorrotoak, berriz, elkartu: gorrotoak eraginda, Osotasuna osagaietan zatitzen denean, sua batasun batean biltzen da, baita gainerako osagaiak ere; baina Adiskidetasunak eraginda berriro batasunean elkartzen direnean, nahitaez banatzen dira berriro ere bakoitzaren zatiak. Enpedokles, bada, aurrekoen aldean lehenengoa izan zen kausa horretan bereizketa sartu zuena, mugimenduaren printzipio bakar bat ezarri beharrean, bi eta kontrajarriak hartuz, eta materia izaerakoak deituriko osagaiak lau direla esaten ere lehenengoa izan zen. (Hala ere, laurak, bi bakarrik bailiran erabiltzen ditu: batetik, sua bere 985b) baitan, eta bestetik, haren kontrakoak –lurra, airea eta ura– izaera bakar bat bailiran bezala; hau uler daiteke haren Olerkia irakurriz).

25. *Ibidem* 989a20-30. Enpedoklesi... zailtasun berberak azaltzen zaizkio derrigor, baita zailtasun bereziak ere. Izan ere, gorputzak elkarrengandik sortzen direla ikusten dugu; beraz, gorputzak berak ez du beti Sua eta Lurra izaten jarraitzen (haiei buruz *Fisika*ri buruzko idatzietan hitz egin da). Eta mugitzen diren gauzen kausari dagokionez, bat ezarri behar den ala bi, pentsatu behar da horretaz ez dutela hitz egin ez zuzen, ezta erabat egoki ere. Azken batean, horrela hitz egiten dutenek derrigor ezabatzen dute aldaketa, hotza ez baita berotik sortuko, ezta beroa hotzetik ere, zeren zerbaitek jasango bailituzke kontrakoak berak, eta izaera bakar bat litzateke

Su eta Lur bilakatuko litzatekeena; hark <Enpedoklesek> ez du esaten zein ote hura.

26. *Ibidem* 993a16-24. Enpedoklesek hezurra proportzioaren kariaz dela esaten du, eta proportzioa gauzaren esentzia eta substantzia dela. Baina, era berean, proportzioa izan behar dira haragia eta <gorputzaren> beste alde guztiak ere, edo bestela bat bera ere ez, proportzioarengatik izango baitira haragia eta hezurra eta gorputzaren beste alde guztiak ere, eta ez hark <Enpedoklesek> esaten duen materiarengatik, Su, Lur, Ur eta Airearengatik, alegia. Bestalde, hori beste norbaitek esan izan balio, <Enpedokles> bat etorriko zatekeen derrigor; baina berak ez du argi azaldu.

27. *Ibidem* 1000b3. Horregatik gertatzen da jainkoa, zoriontsuena bada ere, gainerako guztiak baino adimen gutxiagokoa dela, ez baitu dena ezagutzen; izan ere, Gorroto falta du.

28. *Ibidem* 1075ba1-7. Enpedoklesen azalpena ere zentzugabea da; haren ustez, Ongia Adiskidetasuna da, hura printzipio mugiarazle bildu egiten du zein materia nahasturaren zatia da izanik. Baina, akzidentalki, printzipio materiala eta printzipio mugiarazlea gauza berean bat izanda ere, bataren eta bestearen izatea, behintzat, ez dira bera. Orduan, biotatik zeinetan da printzipio Adiskidetasuna? Bestalde, lekuz kanpokoa da Gorrotoa ustelgaitza izatea, berari baitagokio Gaizkiaren natura.

Oharrak

[1] Enpedoklesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 31. atalean daude bilduta (276-374 orr.). Berariazko bibliografia: Bignone, E.: *I poeti filosofi della Grecia: Empedocle, studio critico, traduzione, e commento delle testimonianze e dei frammente*, Turin 1916. Bollack, J.: *Empedocle* (4 ale), Paris 1965. Ben, N. van der: *The Poem of Empedocles'Perì Physios*, Amsterdam 1975. O'Brian, D.: *Empedocles'Cosmic Circle. A reconstruction…*, Cambridge 1969. Wrigh, M. R.: *Empedocles. The extant fragmente*, New Haven 1981.

[2] Enpedoklesen zatien edizioa eta ordena A. Bernabérena da (Wright-en edizioan oinarritua); berriena, Diels-Kranzena.

[3] sentimenak

[4] Pausanias, Akraganteko medikua

[5] Poesia epikaren musa; ikus. Hesiodoren *Teogonia* 79

[6] Zeus da sua, Hera, airea, Aidoneo (Hades), lurra, eta Nestis, ura.

[7] Lau sustraiak

[8] Lau sustraiak, Maite eta Gorroto

[9] Maite eta Gorroto

[10] Lau sustraiak

[11] Ekia

[12] Ilargiak Ekia

[13] Nestis da ura, Hefesto, sua, eta Harmonia, Maitea.

[14] Lau sustraiak

[15] Odola amaren esne bihurtzen da

[16] Lihoa azafraiz tintatzen denean

[17] Isuriak ontzi batetik beste batera pasatzeko erabiltzen den brontzezko tresna txiki bat

[18] Txakurrak

[19] Enpedoklesek esandako guztia.

ANAXAGORAS[1]

Anaxagorasen zatiak

1. SINPLIZIO, *Fisika* 155, 23 (59 B 1).
   Bildurik zeuden gauza guztiak neurrigabeak ziren, bai kantitatez bai txikitasunez, txikia dena ere neurrigabea baitzen. Eta gauza guztiak bildurik egonik, ezer ez zen ageriko, bere txikitasunagatik; aireak eta eterrak gauza guztiei eusten baitzieten, biak neurrigabeak izaki, guztien artean haiek baitira gauzarik handienak, bai kantitatez bai tamainaz.
2. *Ibidem* 155, 30 (B 2).
   Izan ere, bai airea eta bai eterra bereizten dira inguruko aniztasunetik, eta ingurukoa, benetan, neurrigabea da kantitatez.
3. *Ibidem* 164, 16 (B 3).
   Izan ere, txikitasunean ez dago, behintzat, txikien denik, beti txikiago den ezer baizik (badena ezin baitaiteke ez izatea). Baina handitasunean ere beti dago handiago den ezer, eta txikiaren berdina da kantitatean, bere buruarekiko gauza bakoitza baita bai handi bai txiki.
4. *Ibidem* 34, 28 (B 4).
   Egoera horrelakoa izanik, uste behar da gauza asko eta mota guztietakoak daudela osaturiko gauza guztietan, hala nola gauza guztien haziak, itxura, kolore eta usain desberdinekoak. Eta gizakiak egituratu direla eta gainontzeko animalia arimadunak. Eta gizakien-

tzat, behintzat, biztanlez betetako hiriak eta landutako lurrak daudela, gure artean bezala, eta haientzat ere badaudela eki bat eta ilargi bat eta gainerako (astro)ak, gurean bezala, eta haiei lurrak gauza asko eta mota guztietakoak ematen dizkiete, eta haietan beharrenak etxean gorde eta erabili egiten dituzte. Hori guztia, beraz, bereizketari buruz esan dut, bereizketa gure artean soilik ematen ez delako, beste tokitan ere bai. Baina bereizi aurretik, gauza guztiak bildurik zeudenean, kolore bat bera ez zen agerikoa, gauza guztien arteko nahasketak eragozten baitzuen, hezearen eta lehorraren arteko nahasketak, eta beroaren eta hotzaren artekoak, eta argitsuaren eta ilunaren artekoak; eta lur ugari zegoen eta haziak, kantitatean zenbatezinak eta elkarren antzik gabekoak. Izan ere, gainontzeko gauzetan ere ez zuen gauza batek beste baten antzik. Egoera horrelakoa izanik, uste behar da gauza guztiak osotasunean zeudela.

5. *Ibidem* 156, 10-12 (B 5).
   Gauza horiek horrela banandu direnez, jakin behar da bat bera ere ez dela ez gehiago ez gutxiago (ezinezkoa baita gauza guztiak baino handiagoa den ezer izatea); aitzitik, denak berdinak dira beti.

6. *Ibidem* 164, 25 (B 6).
   Eta, handiaren eta txikiaren zatiak berdinak direnez kantitatean, hala ere, egongo lirateke denak denean; eta ez dago bananduta izaterik, baizik eta gauza orok gauza orotan parte hartzen du. Eta txikiena izaterik ez dagoenez, ezingo luke bananduta egon, ezta berez izatera iritsi ere; baizik eta, hasieran bezala, orain ere gauza guztiak bildurik daude. Gauza orotan gauza asko daude, bereizten ari direnetan berdinak kantitatean, bai 5bai txikienetan.

7. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 608, 23 (B 7).
   Bereizten ari diren gauzen kantitatea ez dakigu, ez zenbakiz ez eskarmentuz. (…) Adimenak denak ezagutzen ditu.

8. SINPLIZIO, *Fisika* 176, 29 (B 8).
   Gauzak ez daude bata bestetik bereizita mundu ordenatu bakarrean, ezta aizkoraz ebakita ere, ez beroa hotzetik, ez hotza berotik.

9. *Ibidem* 35, 13 (B 9).
   Horrela, gauza horiek jiraka ibili eta bereizi egiten ziren indarraren eta abiaduraren kariaz. Eta indarra abiadurak sortzen du. Haien abiadurak ez du ezerekin zerikusirik, gizakien artean orain diren

gauzen abiadurarekin, alegia, baizik eta guztiz hamaika aldiz arinagoa da.

10. GREGORIO-ri *schol.*, XXXVI 911 (B 10)
Haziak bere baitan ileak, azazkalak, zain txikiak, zain luzeak, kirio - ak eta hezurrak dituela dio; eta zatiak ikusezinak direla, txikiak iza - teagatik, baina handitzean poliki-poliki bereizi egiten direla. Izan ere, *dio*, nola sortuko litzateke ilea ile ez denetik eta haragia haragi ez denetik? *Eta gorputzei buruz ez ezik, koloreei buruz ere horrela hitz egiten du. Izan ere, beltza zurian dago eta zuria beltzean. Antze - ko iritzia zuen pisuei buruz, arina pisudunarekin eta pisuduna ari - narekin nahastuta zegoela baieztatzen baitzuen.*

11. SINPLIZIO, *Fisika* 164, 22 (B 11).
Gauza orotan gauza ororen zati bat dago, Adimenarena izan ezik; baina badira zenbait gauza non Adimena dagoen.

12. *Ibidem* 164, 24 (B 12).
Gainontzeko gauzek gauza ororen zati bat dute; baina Adimena mugagabea eta bere buruaren jabea da, eta ez dago ezerekin nahastuta, baizik eta bera soilik eta bere buruaz. Izan ere, bere buruaz ez balitz eta beste zerbaitekin nahasturik balego, gauza guztietan parte hartuko luke –zerbaitekin nahasturik balego–, gauza orotan gauza ororen zati bat baitago, hasieran esan dudan bezala. Eta harekin nahastutakoek eragotzi egingo liokete Adimenari beste edozeri gaina ez hartzeko moduan, soilik eta bere buruaz izanik egiten duen bezala. Izan ere, gauza guztietan arinen eta garbiena da, eta gauza orori buruz, benetan, ezaguera betea du eta indarrik handiena dauka. Eta arimadun diren horiek guztiak, bai handiagoak bai txikiagoak, mendean hartzen ditu Adimenak. Eta osotasunaren jira ere Adimenak zuzendu zuen, hasieran jira zedin. Eta hasieran txikia denetatik hasi zen jiratzen, gero eta gehiago jiratzen da, eta gehiago ere jiratuko da. Eta nahasturiko gauzak, baita banandutakoak eta bereizitakoak ere, denak ezagutu zituen Adimenak. Eta izateko zorian zeudenak oro, eta orain ez badira ere bazirenak oro, eta orain diren horiek eta izango direnak oro, denak ordenatu zituen Adimenak, baita jira hau ere, alegia, banantzen ari diren astroek eta Ekiak, Ilargiak, aireak eta eterrak orain inguratzen dutena. Jirak berak banarazi zituen. Eta arraro denetik sendoa dena banandu zen, eta hotzetik beroa, eta ilunetik distiratsua, eta hezetik lehorra. Gauza askoren zati asko daude. Baina gauza bat beste gauza

batetik erabat bereizirik edo banandurik ez dago, Adimena izan ezik. Adimena bere buruaren guztiz berdina da, bai handiagoa bai txikiagoa dena. Baina gainerakoetan ezer ez da ezeren berdina, baizik eta ugarien den hura da nabarmen gauza bakoitza dena eta zena.

13. *Ibidem* 300, 27 (B 13).
Eta Adimena mugiarazten hasi zenean, mugituriko orotatik banandu zen, eta Adimenak mugitu zuen guztia bereizi zen; eta gauzak mugitzen eta bereizten ari zirenean, jirabirak are gehiago bereizarazten zituen.

14. *Ibidem* 157, 5 (B 14).
Adimena, beti dena, orain ere bada, benetan, gainerako gauzak diren tokian, inguruko aniztasunean, elkartuak izan diren gauzetan eta bananduta izan direnetan.

15. *Ibidem* 179, 3 (B 15).
Sendoa eta hezea, hotza eta iluna dena hor elkartu ziren, orain lurra dagoen tokian; xehea, beroa eta lehorra dena eterraren kanpoko alderik urrunenera abiatu ziren.

16. *Ibidem* 179, 6 (B 16).
Banantzen diren gauza horietatik solidatzen da lurra; izan ere, hodeietatik ura banatzen da, uretatik, lurra, eta lurretik hotzaren kariaz solidatzen diren harriak. Eta horiek kanpoaldera abiatzen dira, ura baino kanpoalderago.

17. *Ibidem* 163, 18 (B 17).
Jaiotzeari eta hiltzeari buruz ez dute greziarrek iritzi zuzenik, ezer ez baita jaiotzen ez hiltzen ere, baizik eta, badiren gauzetatik, elkartu eta bereizi egiten dira; eta horrela, zuzena litzateke jaiotzari elkartzea deitzea, eta hiltzeari bereiztea.

18. PLUTARKO, *De fac. in orb. lun.* 16, 929B (B 18)
Ekiak jartzen dio Ilargiari argia.

19. *Schol. Hom. BT* p 547 (B 19)
Ostadar deitzen diogu hodeietan Ekiak utzitako argiari; beraz, ekaitzaren seinalea da, hodeiaren inguruan isuritako urak haizea eragin baitzuen edo euri egin zuen.

20. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien aurka* VII 90 (B 21)
Anaxagorasek sentipenak, haien ahuleziagatik, gezurtatu nahian dio: «haien ahuleziaren eraginez ez gara gai benazko dena bereizte-

ko». *Sinesgarritasun ezaren frogagarri, koloreen aldaketa erakus - ten du. Izan ere, hartuko bagenitu bi kolore, zuria eta beltza, eta gero bata bestearekin nahastuko bagenu tantaz tanta, begiak ez luke aldaketa txiki horiek bereiziko, benetan ematen diren arren.*

21. *Ibidem* VII 140 (B 21a)
Izan ere, ezkutukoaren isla da agerikoa.

22. PLUTARKO, *De fort.* 98F (B 21b)
(Badakigu erabiltzen) ikasmena eta oroimena, jakituria eta jaiotasuna.

23. ATENEO, *Epit.* B 57d (B 22). Hegazti-esne deiturikoa arrautzen zuringoa da.

Anaxagorasi buruzko berriak

1. SINPLIZIO, *Fisika* 27, 2, (Teofrastorengandik hartua) (A 41). Anaxagorasek, Klazomeneko Hesibuloren semeak, Anaximenesen filosofia berekoa izan ondoren, printzipioei buruzko iritziak aldatu zituen lehena izan zen, falta zen kausa[2] osatu zuen eta amaigabetzat jo zituen gorputzaren printzipioak. Izan ere, homeomeria[3] guztiak, hala nola ura, sua edo urrea, ernegabeak dira eta hilezkorrak, nahiz eta jaio eta hil egiten direla iruditzen zaigun haien nahasketa eta ubilduraz bakarrik, gauza oro gauza orotan baita eta gauza bakoitza bere baitan nagusi den horren araberakoa. Horrela, urrezko dirudi urre asko duen horrek, beste gauza guztiak ere badauden arren (*12. zatia*). (...) mugimenduaren eta sorreraren kausa Adimena ezarri zuen Anaxagorasek; hark bereizirik mundu ordenatuak eta gainerako gauzen izaera jaio ziren; "zentzu horretan harturik –dio Teofrastok– badirudi Anaxagorasek, batetik, printzipio material amaigabeak ezartzen dituela eta, bestetik, Adimena, mugimenduaren eta sorreraren kausa gisa; baina suposatuko balitz gauza guztien nahasketa natura mugagabea dela, bai formaz bai tamainaz, ondorioztatuko litzateke Anaxagorasek bi printzipio aipatu dituela: mugagabe denaren izaera eta Adimena.

2. HIPOLITO, *Heresia guztien gezurtabidea* I 8, 1 (A 42). Anaxagorasek (...) zioen unibertsoaren printzipioa Adimena eta materia direla; hura, benetan, eragilea da, eta materia bilakatu egiten da. Izan ere, gauza guztiak batera egonik, Adimena iritsita ordenatu zituen. Material-printzipioak zenbatezinak direla esaten du, eta haien txikitasuna zenbatezina dela (?). Adimenak mugimenduan jarritako gauza guztiek mugimenduan parte hartzen dute, eta antzekoak direnak antzekoak direnekin biltzen dira. Eta zeruan den oro mugimendu biribilak ordenatua izan da; beraz, sendoa eta hezea, iluna, hotza, eta pisuduna dena erdian bildu ziren, eta solidatu zirenean lurra osatu zen. Haien aurkariak, beroa eta distiratsua, lehorra eta arina dena, zeruaren goialderaino bultzatuak izan ziren. Lurraren forma laua da, eta zintzilik eusten da bere tamainaren kariaz, eta hutsik ez dagoelako, eta aireak, oso tinkoa izaki, lurra eramaten duelako zaldi gain bezala. Lurraren gainean zeuden gauza hezeetatik itsasoa hasi zen, baita hantxe zeuden uretatik ere, eta horiek oro lurrindutakoan hondartzak sortu ziren, baita itsaso-

ratzen diren ibaietatik ere. Ibaiek euri-uretatik hartzen dute oinarria, baita lurreko uretatik ere, lurra hutsa baita barnetik eta ura du sakontasunetan. Nilok udan egiten du gora, hara jausten direnean hegoburuko elurren urak: ekia, ilargia eta izar guztiak harri goriak dira, eterraren jirabirak bilduak. Izarren azpian badira jirabiran ekiari eta Ilargiari laguntzen dieten gorputz batzuk, guretzat ikusezinak direnak. Izarren beroaz ez gara ohartzen, lurretik oso distantzia handia izateagatik; ez dira ekia bezain beroak, oso lurralde hotzean betetzeagatik. Ilargia ekia baino beherago dago eta gugandik hurbilago. Ekia Peloponeso baino handiagoa da tamainaz. Ilargiak ez du berezko argirik; aitzitik, ekitik (hartzen du). Izarren jirabira lurraren azpian pasatzen da. Ilargia itsutu egiten da, lurra eta, batzuetan, lurraren azpian dauden gorputzak ere aurrean jartzen zaizkionean; eta ekia, ilberrietan ilargia aurrean jartzen zaionean. Jira eta bira egiten dute bai ekiak bai ilargiak aireak bultzaturik. Ilargiak sarritan bere norabidea aldatzen du, hotzari aurre egin ezinean. Bera izan zen eklipseak eta ilargi-gorabeherak azaldu zituen aurrena. Ilargia lurrez egina dagoela esan zuen eta han bertan lautadak eta sakanak daudela. Ilargi Bidea ekiak ez argituriko izarren argiaren isla da. Izarlokak txingarrek bezala jauzi egitean sortzen dira, lurburuaren mugimenduaren eraginez. Haizeak sortzen dira ekiaren eraginez airea arinago egiten denean eta erretako zatiak lurburura atzera egin eta (handik) itzuli egiten direnean. Trumoiak eta tximistargiak hodeien gainera erortzen den berotik sortzen dira. Lurrikarak sortzen dira lur gaineko airea lur azpikoaren gainera erortzean, azpiko airea mugituta berak gidaturiko lurra ere astintzen baitu. Animaliak hezetasunean sortu ziren hasieran, eta gero bata bestearengandik; eta arrak sortzen dira eskuineko aldeetatik isuritako hazia umontziaren eskuin aldeko haziarekin biltzen denean; emeak, aurkakoa gertatzen denean.

3. ARISTOTELES, *Metafisika* 984a11-16. Anaxagoras klazomeniarrak, Enpedoklesen aurrekoa adinez baina ondorengoa lanez, printzipioak amaigabeak direla esaten du; antzeko zatiz osatutako ia gauza guztiak, ura eta sua bezalaxe, horrela sortu eta deuseztatzen direla esaten baitu, elkarketaren eta banaketaren bidez bakarrik, eta ez direla bestela ere sortzen ezta deuseztatzen ere, betierekotasunean iraun baizik.

4. *Ibidem* 989a30-b21 (A 61). Bestalde, norbaitek suposatzen badu Anaxagorasek bi osagai ezarri zituela, honek berak artikulatu ez zuen arrazoinamendu baten arabera suposatuko du seguru asko, nahiz eta <Anaxagorasek> hori proposa zezaketenei derrigor onartuko ziekeen. Izan ere, hasiera batean gauza guztiak nahasturik zeudela esatea lekuz kanpokoa da, besteak beste aurretik nahas gabe izan behar zutelako, eta edozer ezin daitekeelako berez beste edozerekin kasualitatez nahas, eta horrez gain afekzioak eta akzidenteak den guztitik aparte egongo liratekeelako (nahasita dauden gauzen beraien artean bereizketa ere baitago); hala ere, baten batek jarraituko balu <Anaximandrok> esan nahi duena artikulatzen, baliteke agerian geratzea modu berri batez hitz egiten duela, argi baitago ezer bereizita ez zegoenean, egiazko ezer esaterik ez zegoela substantzia hartaz; esan nahi dut, adibidez, ez zela ez txuri, ez beltz, ez gris, ezta bestelako kolore batekoa ere, nahitaez kolorgea baizik; bestela, kolore horietakoren bat izango zukeen eta. Halaber eta arrazoi horregatik ere, zaporegabea zen, eta ez zuen horren antzeko besterik, ezin baitzuen ez inongo nolakotasunik eduki, ez kantitaterik, ezta zer izan ere; bestela, forma bereziak deitutakoren bat izango zukeen, baina hori ezinezkoa da gauza guztiak nahasirik egonda, ordurako bereizita beharko zuketen eta. Aitzitik, dena nahasita zegoela esaten du, Adimena izan ezik, hori bakarrik nahas gabe eta garbi zegoelarik. Horrela, bada, horretatik guztitik honako printzipioak ezartzen ditu: Bata (bakuna eta nahasgabea dena) eta Bestea, zehaztu aurretik eta inongo formatan parte hartu baino lehen ezagutzen dugun Zehaztugabearen antzekoa dena. Beraz, ez du zuzen, ezta argi ere adierazten; hala ere, esan nahi duenak antz handia du geroagoko doktrinekin eta, batez ere, orain indarrean daudenekin.

5. *Ibidem* 1063b25-30. Anaxagorasen (iritzia onartzen dutenek ere) ezin dute egia esan; bestela, subjektu berari buruz kontrakoak predikatzen direla gertatuko da. Izan ere, Anaxagorasek gauza orotan gauza oro dagoela esaten duenean, neurri handiagoz gozoa edo mikatza edo beste edozein kontrako nolakotasunezko den ezer ez dagoela esan nahi du, dena denetan potentzian eman ez ezik, egintzan eta bereizita ere ematen baldin bada, behintzat.

6. *Ibidem* 985a18-21. Anaxagoras, hain zuzen ere, Adimenaz baliatzen da kosmogenesia egiteko, eta nahitaezkoa den zerbaiten kausa

ez dakienean, orduan Adimenarena ateratzen du; baina beste kasuetan edozeri egozten dio gertatu denaren kausa Adimenari egotzi baino lehen.

7. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 27 (A 92). Anaxagorasen iritzian (sentsazioak) aurkariez sortzen dira, berdina dena ez baita berdina denak eraginda; eta bakoitza banan bana zenbatzen saiatzen da. Izan ere, begi-niniko isla batez ikusten dugu, baina ez da islatzen kolore bereko denetan, desberdin denetan baizik; gehienetan egun argiz gertatzen da, baina batzuetan gauez gertatzen da kolore desberdintasuna, eta orduan oso ikusmen zorrotza dute. Oro har, gaua begien kolorekoa da. Islak goizez gertatzen dira, argia islaren kausakide bat delako, eta nagusi den kolorea bestean islatzen da beti. Antzeko eran epaitzen ditu ukimena eta dastamena, hotz edo bero berdina duenak ez baitu ez hozten ez berotzen hurbiltzean, eta gozoa eta mingotsa ere ez dira ezagutzen berdina denaren bidez, baizik eta hotza beroaz, edangarria gaziaz eta gozoa mingotsaz, bakoitzak falta duenaren arabera. Izan ere, denak guregan daudela dio. Antzeko eran usaintzen eta entzuten dugu, bata arnasketarekin batera, bestea, zarata burmuinean guztiz sartzeagatik, inguratzen duen hezurra hutsa baita, eta hor erortzen da zarata. Sentsazio bakoitzak minarekin (ematen da), hipotesiari egokituko lekiokeena, desberdin den orok, ukitzean, pairamena baitakar. Hori nabaria da pertzepzioaren denboraldi luzean, baita pertzepzio gehiegian ere. Izan ere, kolore distiratsuek eta neurriz gaineko zaratek mina sortzen dute, eta ezin denbora luzez iraun haien aurrean. Animaliarik handienek pertzepzio-gaitasun handiagoa dute, eta, oro har, sentsazioa <zentzumenezko organoen> tamainaren araberakoa da. Izan ere, begi handiak, garbiak eta distiratsuak dituztenek gauza handiak ikusten dituzte eta oso urrutira ere bai; txikiak dituztenek, alderantziz. Antzeko zerbait gertatzen da entzumenarekin, (belarri) handiek zarata handiek entzuten baitituzte eta urrunetik, baina txikienez ez dira ohartzen; (belarri) txikiek, ordea, txikiak eta hurbilekoak entzuten dituzte. Eta antzeko zerbait gertatzen da usaimenarekin: errazago usaintzen da aire leuna, berotuta eta nahasita usaintzen baita. Animalia handiak arnasa hartzean aire sendo eta nahasia herrestatzen du, baina txikiak nahasa baizik ez; hortaz, animalia handiek usaimena ere handiagoa dute. Izan ere, hurbileko usaina lodiagoa da

urrunekoa baino, sendoagoa delako, eta zabaltzean mehetu egiten da. Gutxi gorabehera esaten du animalia handiek ez dituztela usain arinak hautematen, eta animalia txikiek, sendoak.

8. ARISTOTELES, *Animalien gorputzadarrez*, 697a7 (A 102) Anaxagorasek dio animalietan adimentsuena gizakia dela, eskuak dituelako, baina zentzuzkoa da onartzea eskuak dituela adimentsua delako.
9. ZENTSORINO, *Jaiotza-egunaz* 6, 1 (A 108). Anaxagorak dio (umean osatzen den lehendabizikoa) burmuina dela, eta hortik dira zentzumenak oro.

Oharrak

[1] Anaxagorasen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 59. atalean daude bilduta (II, 5-44 orr.). Berariazko bibliografia: Cleve, F.: *The philosophy of Anaxagoras*, La Haya 1973. Gershenson, D. E. eta Greenberg, D. A.: *Anaxagoras and the birth of Physica*, NY 1964. Lanza, D.: *Anassagora. Testimonianze e frammenti*, Florentzia 1966. Schofield, M.: *An Essay on Anaxagoras*, Cambridge 1980. Reesor, M. E.: "The Meaning of Anaxagoras", *Classical Philology* (*CP*) 55, 1960, 1-8; "The Problem of Anaxagoras", *C P* 58, 1963, 29-33. Zafiropulo, J.: *Anaxagore de Clazomène*, Paris 1948.

[2] Aristotelesen *tò hou heneka* kausa –*helburu den hori* edo *helburuzko kausa*–. Sinplizioren interpretazioa ez da zuzena.

[3] Anaxagorasek ez du erabiltzen *homeomeria* terminoa, *spérma* –hazia– baizik (ikus. 4. zatia).

LEHENENGO ATOMISTAK[1]

LEUZIPO

1. (67 B 2)
   Ezer ez da alferrik gertatzen; aitzitik, dena arrazoi batengatik eta beharraren menpe.

LEHENENGO ATOMISTAK[1]

DEMOKRITO

Demokritoren zatiak

1. FILODORO, *Heriotzari buruz* 39, 9 (68 B 1a)
   Bi aldiz asetzera daude beharturik2.

2. Etym. Orion., 153 or. (B 2)
   Atenea Tritogenia3 zuhurtasuna da; zuhurra izateak hiru ondoriook ekartzen ditu: zuzen erabakitzea, akatsik gabe hitz egitea eta behar den gisa jokatzea.

3. ESTOBEO IV 39, 25 (B 3)
   Gogo ona izan nahi duenak ez du zeregin askorik hartu behar, ez hirian ez etxean, ezta bere ahalmenaz eta izaeraz gainetik dagoen egitekorik ere; aitzitik, nahikoa zuhurtzia izan behar du patua alde duelarik eta <patuak>, haren ustez, urrunegi daramalarik, horri uko egiteko eta bere ahalmenaz haratago ez iristen saiatzeko, neurriko lana ziurragoa baita, neurriz gainekoa baino.

4. KLEMENTE, *Stromateis* II 130 (B 4)
   Helburuei buruzko idatzian Demokritok dio <bizitzaren helburua> gogo ona dela, ongizate ere izendatzen duena. Eta sarritan gaineratzen du: “gozamena eta samina dira, hain zuzen, onuragarriak eta kaltegarriak diren gauzen neurri”.

5. DIOGENES LAERTZIO, IX 34-5 (B 5) Demokritok Anaxagorasi buruz esaten du ekiari eta ilargiari buruzko iritziak ez zirela harenak, antzinakoak baizik, eta hark haiek baliatu zituela. Barregarri

zitzaizkion Anaxagorasen iritziak, munduaren eta adimenaren ordenari buruzkoak, eta gorrotagarri zuen, ez zitzaiolako gogo-betegarri, benetan.

6. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra*, VII 137 (B 6)
Beharrezkoa da gizakiak jakitea, arau horren kariaz, egiatik urrun dagoela.

7. *Ibidem* (B 7)
Arrazoibide horrek agerian jartzen du, bestalde, zinez ez dakigula ezertaz ezer, baizik eta bakoitzarentzat iritzia fortunaren esku dagoela.

8. *Ibidem* (B 8)
Hala ere, agerikoa izango da gauza bakoitza zinez zer den ezagutzea helezina dela.

9. *Ibidem* VII 135
Guk, zehaztasunez, ez dugu ezer (to eónti) ezagutzen, gorputzaren jarreraren araberako aldaketa eta gorputzaren barruan sartzen dena eta hari gogor egiten diona baizik.

10. *Ibidem* VII 136 (B 10)
Gauza bakoitza zinez zer den edo zer ez den ez dakigula, era askotan frogatu da.

11. *Ibidem* VII 138 (B 11)
Bi dira ezagutzaren moduak: benetakoa, bata; iluna, bestea. Ilunarenak ondorengo guztiak dira: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena, ukimena. Benetakoa horren desberdin. Ilunak ezin duenean ez zehatzago ikusi, ez usaindu, ez dastatu, ezta ukitu ere...

12. ZENTSORINO 18, 8 (B 12)
Urte handiak 82 urte ditu eta 28 hilabete urtetik urtera.

13. AGATEMERO, I 1, 2 (B 15)
Lurra luzanga da, eta zabalera halako bat eta erdi da luzaera.

14. MANLIO TEODORO, *Bertsoei buruz* VI 489, 20 (B 16)
Hexametro daktilikoa4 Museok asmatua izan zen.

15. ZIZERON, *Hizlariari buruz* II 46, 194 (B 17)
Ez da poeta onik bere barne-gogoa eromen haizeak jo eta hauspotu ez duenik.

16. KLEMENTE, *Stromateis* VI 168 (B 18)
Poeta batek jainkoen gogoz eta hasperen sakratuz idazten duena guztiz ederra da.

17. DION KRISOSTOMO, 36, 1 (B 21)
Homerok, izaera jainkozkoaren parte zuenak, hitz anitzen arrimu eder bat eraiki zuen.

18. HOMEROren *Iliada* VII 390ri Oharra (B 23)
«Ailitz lehenago hil»[5] delakoa mezulariak esan du… bere baitarako eta ahots apalez, Demokritok uste duenez, ozenki esateko desegokia baiteritzo.

19. EUSTAKIO, Homeroren *Odisea* XII 65-ri Oharra (B 25)
...anbrosia ekia elikatzen duten lurrinak dira, Demokritok ere uste duenez.

20. PROKLO, *Cratilo* 16, 5 or., 25 (B 26)
Demokritok (...) izenak konbentzio bidezkoak <direla pentsatzen du> (...), eta lau argudioren bidez oinarritzen du. Homonimiaz, gauza desberdinak izen berberaz izendatzen baitira: beraz, izena ez da berezko. Polinimiaz ere bai, gauza bati eta berari izen desberdinak eransten bazaizkio, gauza hori eta beste asko ere izango baita, eta hori ezinezkoa da. Hirugarrena, izen-trukaketaz, ezen zer dela- eta trukatuko genioke Aristotelesi berea Platonenarekin eta Tirtamori berea Teofrastorenarekin6, izenak berez balira izen? Azkenik, izen antzekorik ez dagoelako: zergatik ondorioztatzen dugu pentsamendutik pentsatu, baina justiziatik ez dugu ondoriorik ekartzen? Beraz, izenak halabeharrezkoak dira, eta ez berezkoak. Berak lehen argudioari polisemiarena deitzen dio, bigarrenari sinonimiarena, <hirugarrenari, metonimiarena>, eta laugarrenari anonimiarena.

21. KOLUMELA, *Nekazaritza kontuei buruz* III 12, 5 (B 27)
Diogenesek eta Magonek zeruko iparraldea aipatzen dute, zeren uste baitute toki horretara begira sartutako mahastiak emankorragoak direla, baina emandako ardoa kaskarragoa dela ere bai.

22. *Ibidem* IX 14, 6 (B 27a)
Erleak hildako txekor batetik sor daitezkeela esaten digute Demokritok eta Magonek, eta Virgiliok ere bai.

23. *Ibidem* XI 3, 2 (B 28)
Demokritok, Nekazaritzaz deitu zuen liburuan azaltzen duenez, beren ortuak hesitzen dituztenek ez omen dute zuhur jokatzen, izan ere lasto-buztinez eraikitako horma batek ez du irauterik, gehienetan euriak eta haizeak jotzen baitute; aldiz, harrizko bat eraikitzea egoki den baino garestiagoa da. Hala da norbaitek nahiko balu lursail handi bat hesitu, ondarea ere horren neurrikoa beharko luke.

24. KLEMENTE, *Protreptiko* 68; *Stromateis* V 103 (B 30)
Gizaki jakitunen artean gutxi dira grekook airea deitzen dugun toki horretara eskuak zabaldurik, esaten dutenak: "Zeusek dena esaten dio bere buruari eta dena daki; <dena> eman eta kendu egiten du eta gauza guztiena da errege".

25. KLEMENTE, *Filosofiari sarrera* I 6 (B 31)
Izan ere, medikuntzak gorputzeko gaitzak osatzen ditu, baina filosofiak arimaren minak kentzen ditu.

26. *Ibidem* 94 (B 32)
Sexu-elkarketa sormin txiki bat da; izan ere, gizona gizonaren baitatik ateratzen da eta kolpe batez erdibitu eta bere baitatik urruntzen da.

27. KLEMENTE, *Stromateis* IV 151 (B 33)
Natura eta irakaskuntza antzekoak dira. Irakaskuntzak gizakia moldatzen baitu, eta moldatzean, naturak bezala jokatzen du.

28. DAVID, *Filosofiari sarrera* 38, 14 (B 34)
Gizakia mikrokosmos bat da.

29. DEMOKRATES, 1 (B 35)
Erran haiei norbaitek jaramon egiten badie zentzuz, gizon zuzenari dagozkion ekintza asko burutuko ditu, eta ekintza gaizto asko saihestuko.

30. *Ibidem* 3 (B 37)
Arimaren onak aukeratzen dituenak jainkozkoena dena hartzen du; eta haren egoitzarenak aukeratzen dituena, gizakiarenak.

31. *Ibidem* 4 (B 38)
Ederra da inork bidegaberik egin dezan oztopatzea; eta bestela, bidegabean lankide ez izatea.

32. *Ibidem* 5 (B 39)
Ona izan behar da, edo <ona dena> imitatu.

33. Ibidem 6 (B 40)
Ez gorputzean ez aberastasunean aurkitzen dute gizakiek zorionik, zuzentasunean eta zuhurtzian baizik.

34. *Ibidem* 7 (B 41)
Ez beldurrez, eginbidez baizik, urrundu beharra dago okerretatik.

35. *Ibidem* 8 (B 42)
Mirestekoa da, zorigaitzean, eginbidea kontuan hartzea.

36. *Ibidem* 9 (B 43)
Lotsagarrizko ekintzetan iritziz beste egitea biziaren salbazioa da.

37. *Ibidem* 10 (B 44)
Hobe da egiaz hitz egitea, gehiegi hitz egitea baino.

38. *Ibidem* 11 (B 45)
Bidegabea egiten duena zorigaitzagoa da bidegabea pairatzen duena baino.

39. *Ibidem* 12 (B 46)
Arimaren handitasuna da <besteen> gehiegikeria lasai jasatea.

40. *Ibidem* 13 (B 47)
Zentzuzkoa da legeari, agintean dagoenari eta jakintsuagoa denari men egitea.

41. *Ibidem* 14 (B 48)
Gizaki zuzenak ez ditu aintzat hartzen makurren irainak.

42. *Ibidem* 15 (B 49)
Latza da gu baino gutxiago denaren menpe izatea.

43. *Ibidem* 16 (B 50)
Aberastasunari guztiz loturik dagoena ez da sekula zuzena izango.

44. *Ibidem* 17 (B 51)
Limurtzeari begira, hitza urrea baino indartsuagoa da sarritan.

45. *Ibidem* 18 (B 52)
Bere burua zentzuduntzat hartzen duenari ohartarazten dionak alferrik jokatzen du.

46. *Ibidem* 19 (B 53)
Asko dira arrazoimena ikasi gabe arrazoimenaren arabera bizi direnak.

47. *Ibidem* (B 53a)
Asko dira, ekintza arbuiagarriak eginik, hitzik ederrenak esaten dituztenak.

48. *Ibidem* 20 (B 54)
Buru-ergel direnak zorigaitzetan bihurtzen dira zentzudun.

49. *Ibidem* 21 (B 55)
Bertuteari dagokionez, obrengatik eta ekintzengatik lehiatu behar da, ez hitzengatik.

50. *Ibidem* 22 (B 56)
Ederra dena ezagutzen dute, eta horregatik lehiatzen dira berez horretarako joera dutenak.

51. *Ibidem* 23 (B 57)
Abereen jatortasuna gorputzaren indarra da; gizakiena, izaeraren zintzotasuna.

52. *Ibidem* 23a (B 58)
Arrazoi zuzenak dituztenen itxaropenak lorgarriak dira; baina ergelenak, ezinezkoak.

53. *Ibidem* 24 (B 59)
Ikasi ez duenarentzat ez dira lorgarriak ez artea ez jakinduria.

54. *Ibidem* 25 (B 60)
Hobe da norberaren akatsak gaitzestea, besteenak baino.

55. *Ibidem* 26 (B 61)
Berez orekatuak diren horiei, bizitza ere zaie orekatua.

56. *Ibidem* 27 (B 62)
Bidegabe ez jokatzea baino, bidegabe jokatu nahi ez izatea da ona.

57. *Ibidem* 28 (B 63)
Ekintza ederrak laudatzea ederra da, ekintza gaiztoak laudatzea gizon makur eta gezurtien ekintza baita.

58. *Ibidem* 29 (B 64)
Erudito askok ez dute zuhurtziarik

59. *Ibidem* 30 (B 65)
Zuhurtzia handia landu behar da, ez erudizioa.

60. *Ibidem* 31 (B 66)
Hobe da ekin aurretik deliberatzea, ekin ondoren damutzea baino.

61. *Ibidem* 32 (B 67)
Ez guztiengan, ospe ona dutenengan baizik, eduki behar da konfiantza: aurrena inozokeria baita, azkena gizon zentzudun denarena.

62. *Ibidem* 33 (B 68)
Ospe ona duen gizona eta ospe txarra duena ez dira bereizten haien ekintzen kariaz soilik, baita haien asmoen kariaz ere.

63. *Ibidem* 34 (B 69)
Gizaki guztientzat berdinak dira ona eta egia; atsegina, ordea, desberdina da batarentzat zein bestearentzat.

64. *Ibidem* 35 (B 70)
Umearena, ez gizonarena, neurririk gabeko desira.

65. *Ibidem* 36 (B 71)
Sasoiz kanpoko atseginak atsekabe-bide dira.

66. *Ibidem* 37 (B 72)
Gauza jakin baterako nahikunde neurrigabeek arima itsutzen dute, gainerakoak ez ikusteraino.

67. *Ibidem* 38 (B 73)
Maitasun zuzena da gauza ederrak irainik gabe desiratzea.

68. *Ibidem* 39 (B 74)
Ez da atseginik onartuko, on-egokia ez bada.

69. *Ibidem* 40 (B 75)
Zentzudun ez direnei hobe zaie agintepeko izatea, agintedun baino.

70. *Ibidem* 41 (B 76)
Buru-ergel direnentzat maisua ez da hitza, zoritxarra baizik.

71. *Ibidem* 42 (B 77)
Ospea eta aberastasuna adimenik gabe ez dira ondasun sendoak

72. *Ibidem* 43 (B 78)
Ondasunak eskuratzea ez da alferrikakoa, baina bidegabean oinarritzea gaitzetan gaitzena da.

73. *Ibidem* 44 (B 79)
Deitoragarria da gaiztoei imitatzea, baita onei imitatu nahi ez izatea ere.

74. *Ibidem* 45 (B 80)
Lotsagarrizkoa da inoren kontuak buruan izateagatik norberarenak ahaztea.

75. *Ibidem* 46 (B 81)
Beti gerora begira ibiltzeak amaitu gabe uzten ditu ekintzak.

76. *Ibidem* 47 (B 82)
Aho-zuriak eta itxurazkoak dira dena hitzez egiten dutenak, eta ezer ez ekintzez.

77. *Ibidem* 49 (B 83)
Okerraren kausa onena dena ez ezagutzea da.

78. *Ibidem* 50 (B 84)
Ekintza lotsagarrizkoak burutzen dituenak bere buruaz lotsatu behar du lehendabizi.

79. *Ibidem* 51 (B 85)
Eztabaidaka eta denari buruz hitz eta pitz aritzen dena ez da gai berez beharrezkoa dena ikasteko.

80. *Ibidem* 52 (B 86)
Harrokeria da denari buruz hitz egitea eta ezer aditu nahi ez izatea.

81. *Ibidem* 53 (B 87)
Zaindu beharra dago gizaki gaiztoa, ez dezan abagunea har.

82. *Ibidem* 53 (B 88)
Bekaiztiak etsai bati bezala degio min bere buruari.

83. *Ibíden* 55 (B 89)
Etsaia ez da bidegabea egiten duena, egin nahi duena baizik.

84. *Ibidem* 56 (B 90)
Ahaideen arteko bekaizgoa mingarriagoa da arrotzen artekoa baino.

85. *Ibidem* 57 (B 91)
Ez ezazu denen susmo txarrik har; joka ezazu, hala ere, zuhur eta seguru.

86. *Ibidem* 58 (B 92)
Mesedeak noiz jasoko dagoenak prest egon behar du handiagoak itzultzeko.

87. *Ibidem* 59 (B 93)
Mesedea egin aurretik, begira nork jasoko ote duen, ez diezazula gaitza itzul onaren ordainez.

88. *Ibidem* 60 (B 94)
Abagunean eginiko mesede txikiak handiak dira jasotzen dutenentzat.

89. *Ibidem* 61 (B 95)
Ohoreek balio handia dute ohoreen zergatia ulertzen duten gizon zentzudunentzat.

90. *Ibidem* 62 (B 96)
Eskuzabala ez da ordainari begira dagoena, on egitea aukeratu duena baino.

91. *Ibidem* 63 (B 97)
Asko dira adiskide izateke adiskide diruditenak, eta adiskide ez diruditen arren adiskide direnak.

92. *Ibidem* 64 (B 98)
Gizon adimentsu bakarraren adiskidetasuna hobea da adimen gabekoena baino.

93. *Ibidem* 65 (B 99)
Bizitzak ez du zentzurik adiskide on bat ere ez duenarentzat.

94. *Ibidem* 66 (B 100)
Adiskide saiatuei luze eusteko gauza ez den hura adiurre txarrekoa da.

95. *Ibidem* 67 (B 101)
Askok muzin egiten diete adiskideei aberastasunetik pobrezian erortzen direnean

96. *Ibidem* 68 (B 102)
Ederra da berdintasuna; gehiegizkoa eta gutxiegizkoa ez zaizkit hala iruditzen.

97. *Ibidem* 69 (B 103)
Inork ez du maite, nire irudiko, inor maitatzen ez duena.

98. *Ibidem* 70 (B 104)
Agure atsegina da zirtolaria eta benaz hitz egiten dakiena.

99. *Ibidem* 71 (B 105)
Gorputzaren edertasuna aberearena bezalakoa da bere azpitik adimenik ez badu.

100. *Ibidem* 72 (B 106)
Zorionean adiskide bat aurkitzea erraza da, baina zorigaitzean denetan zailena.

101. *Ibidem* 73 (B 107)
Ez dira adiskideak ahaide guztiak, komenigarria denari buruz gurekin ados daudenak baizik.

102. *Ibidem* 74 (B 107a)
Duina da, gizakia izanik, giza zoritxarrez ez trufatzea, deitoratzea baizik.

103. *Ibidem* 75 (B 108)
Aberastasunak bilatzen dituztenei nekez azaltzen zaizkie; zoritxarrak, berriz, bilatzen ez dituztenei ere bai.

104. *Ibidem* 76 (B 109)
Gizaki maiseatzaileak adiskidetasunerako ezgaiak dira berez.

105. *Ibidem* 77 (B 110)
Emazteki bat hitz egiten saiatu ez dadila, gorrotagarria baita.

106. *Ibidem* 78 (B 111)
Emazteki batek gobernatua izatea izugarrizko iraina litzateke gizon batentzat.

107. *Ibidem* 79 (B 112)
Jainkotiar adimen baten berezkoa da beti zerbait ederrari buruz aritzea.

108. *Ibidem* 81 (B 113)
Kalte handia egiten diete buru-ergelei, laudatzen dituztenek.

109. *Ibidem* 82 (B 114)
Hobe da beste baten laudorioak jasotzea norberarenak baino.

110. *Ibidem* 83 (B 115)
Ez badituzu laudoriok ulertzen, jakizu zurikerietan ari zaizkizula.

111. DIOGENES LAERTZIO, IX 36 (B 116)
Atenasera iritsi eta inork ez ninduen ezagutu.

112. *Ibidem* IX 72 (B 117)
Egiatan ez dugu ezer ezagutzen; egia sakonean baita.

113. DIONISIO ALEX., EUSEBIOren *P.E.* XIV 27, 4 (B 118)
Demokritok berak, diotenez, esaten zuen nahiago zuela "kausazko azalpen bakar bat aurkitu, pertsiarren erregetzaren jabe bihurtu baino".

114. EUSEBIO, *P.E.* XIV 27, 5 (B 119)
Gizakiek patuaren irudia moldatu zuten beren zentzugabekeria propioaren aitzakia gisa. Oso gutxitan, hala ere, egiten dio borroka for-

tunak jakinduriari. Aitzitik, bizitzako gauza gehienak gizaki adimentsu eta zorrotz batek zuzentzen ditu

115. PSEUDO GALENO, *De defin. med.* 439 (B 124)
Gizakiak bat izango dira eta gizaki bat denak.

116. GALENO, *Medikuntza enpirikoari buruz* 1258, 8 (B 125)
Kolorea, konbentzioz; gozoa, konbentzioz, mingotsa, konbentzioz; baina egiatan atomoak eta hutsa baizik ez. (Zentzumenak dira mintzo:) Zorigaiztoko arrazoimena!, zuk, zeure uste osoak gugandik hartzen dituzun horrek, gu eraitsi nahi gaituzu? Gure erorketa, benetan, zure hondamena litzateke.

117. GALENO, *De differ. puls.* I 25 (126)
(Harrei buruz) ...uhin baten erara bidean galtzen direnak.

118.HERODIANO, *Perí katholikè prosodie*, EUSTAKIOren Homeroren *Od.* XIV 428ri oharra
Hatz egitean gizakiak gozatzen dira, eta hori bera gertatzen zaie maitasuna egitean.

119. HERODIANO, *Etym. Genuinum*en
Beren adimenean jainko-gogoak asmatzen dituzte.

120. OLINPIODORO, Platonen *Fileb*ori oharrak, 242. orr.
(Jainkoen izenak) irudi ozenak dira.

121. FILODEMO, *Sumindurari buruz* 28, 17 (143)
(Galgarik gabeko suminduratik datoz) batek irudika ahal ditzakeen gaitz guztiak.

122. FILODEMO, *Musikari buruz* IV 31, 108, 29
Musika da <arteetan> berriena, behar bati erantzuten ez diolako; aitzitik, soberan zegoenetik sortu zen.

123. PLUTARKO, *De puer. ed.* 9f (B 145)
Hitza ekintzaren itzala da.

124. PLUTARKO, *De prof. in virt.* 81a (B 146)
Arrazoimena ohiturik dago pozak bere burutik hartzen.

125. PLUTARKO, *De sanit. praec.* 149a (B 147)
Zerriak lokatzean gozatzen dira.

126. PLUTARKO, *De amore prol.* 495e (148)
Zilborrestea da, hain zuzen, umetokian osatzen den lehena.

127. PLUTARKO, *Animine an. corp. aff.* 500d
(Gure barrenean) era askotako eta grinaz betetako gaitzen biltoki eta altxor bat aurkituko duzu.

128. PLUTARKO, *Quest. Conviv.* I 614de (B 150)
Liskarzaleen eta sokagileen (arrazoibideak saihestu behar dira).

129. PLUTARKO, *Quest. Conviv.* II 10, 643f (B 151)
Partekaturiko arrainean ez dago hezurrik.

130. PLUTARKO, *Reip. ger. praec.* 821a (B 153)
Kalte egiten du bizilagunekin atsegina nahi izateak.

131. PLUTARKO, *De sollert. anim.* 974a (B 154)
Animalien ikasleak gara ekintzarik garrantzitsuenetan: armiarmarena, ehungintzan eta jostunetan; enarena, hormagintzan; eta animali kantariena –beltxargarena eta urretxindorrarena– kantuan, imitazioz.

132. PLUTARKO, *De commun. not.* 1079e (B 155)
Txuntxurra oinarriaren paraleloa den sailetik ebakitzen bada, zer pentsatuko dugu direla zatien azaleetako neurriak, berdinak ala desberdinak? Desberdinak badira, hortik ondorioztatzen da txuntxurra irregularra dela eta koska eta izur asko dituela, mailak balira bezala; baina berdinak badira, zatiak ere berdinak izango dira eta zilindroaren ezaugarriak dituen txuntxurra dela esango dugu: biribil berdinez osatuta dagoela alegia, eta ez desberdinez, eta hori zentzugabekeria da.

133. PLUTARKO, *Kolotesen kontra* 1108f (B 156)
Ezer ez da eza baino gehiago.

134. *Ibidem* 1126a (B 157)
Politikaren artea irakastea aholkatu behar da, garrantzitsuena baita, eta gizakientzako ospeak eta ohoreak sortzen dituzten nekeak bultzatu.

135. PLUTARKO, *De lat. viv.* 1129e (B 158)
Egunero pentsamendu berriak dituzte gizakiek.

136. PLUTARKO, *De libid. et aegr.* 2 zatia (B 159)
Gorputzak kargu hartuko balio arimari bere bizitzan zehar jasandako min eta gaitzen kariaz, eta ni neu banintz epaile, pozik kondenatuko nuke arima, ezen, batetik, berak galdu baitzuen gorputza bere

zabarkeriaz eta ahuldu bere hordikeriaz, eta, bestetik, usteldu eta porroskatu baitzuen plazerez. Era berean, tresna bat egoera kaskarrean aurkitzen dudanean, erabiltzaileari egozten diot errua, narras erabiltzeagatik.

137. PORFIRIO, *Abstinentziari buruz* IV 21 (B 160)
Gaizki eta zentzugabe, neurrigabe eta erlijiogabe bizitzea ez da gaizki bizitzea, denbora luzez hiltzen ematea baizik.

138. SEXTO ENPIRIKO, *Matematikarien kontra* VII 116 (B 164)
Abereak, izan ere, abere generokideekin elkartzen dira, usoak usoekin eta kurriloak kurriloekin bezala, eta era berean gertatzen da gainontzeko arrazoirik gabeko abereekin, baita arimarik gabekoekin ere, ikus daitekeenez galbahetik erortzen diren gari-aleekin eta itsas bazterreko harri txintxarriekin. Batean, galbahe-itzuliaz dilistak dilistekin bereiz ordenatzen baitira, eta garagarra garagarrarekin eta garia gariarekin; bigarrenean, uhinaren mugimenduaz, harri txintxarri luzeak toki berera dira bultzatuak beste harri txintxarri luzeekin, eta harri biribilak biribilekin, gauzen arteko nolabaiteko kidetasunak gauzak berak elkarrekin biltzeko ahala balu bezala.

139. *Ibidem* VII 265 (B 165)
Unibertsoari buruz hau esaten dut: gizakia da denok dakiguna...

140. *Ibidem* IX 19 (B 166)
Irudi batzuk hurbiltzen zaizkie gizakiei (...) irudi zorion-igarleak aurkitu (nahi dituzte).

141. SINPLIZIO, *Fisika* 327, 24 (B 167)
Unibertsotik forma guztietako zirimola bereiztu zen.

142. *Ibidem* 1318, 34 (B 168)
Haiei (atomoei) natura deitzen diete... eta inguruan sakabanatzen direla esaten zuten.

143. ESTOBEO, *Eglogak* II 1, 12
Ez irrikatu dena jakitea, ez zaitezen denetan ezjakin bihur.

144. *Ibidem* II 7, 3i (B 170)
Zoriona eta zorigaitza arimaren baitakoak dira.

145. *Ibidem* II 7, 3i (B 171)

Zoriona ez da bizi ez abereetan ez urrean; arima fortunaren egoitza da.

146. *Ibidem* II 9, 1 (B 172)

Ondasuntzat ditugun horietatik beraietatik gaitzak ere etor lekizkiguke, baina gaitz horietatik urrun geldi gintezke. Esaterako, ur sakona onuragarria da askotan, baina gaitza ere bai, itota hiltzeko arriskua baitago. Hala ere, irtenbidea aurkitu da: igeri egiten ikastea.

147. *Ibidem* II 9, 2 (B 173)

Ondasunetatik gaitzak sortzen dira gizakientzat, beren ondasunak onuragarri bideratzen eta gidatzen ez dakitenean. Ez da zuzena halakoak gaitzen artean sartzea, ondasunen artean baizik; adibidez, <ondasunak> gaitzak saihesteko ere erabil daitezke, biziki nahi izanez gero.

148. *Ibidem* II 9, 3 (B 174)

Gizaki onbera, ekintza zuzenak eta zilegiak eramana dena, pozik dago, bai esna bai lo, eta kementsu eta kezkarik gabe bizi da. Alabaina, zuzentzari muzin egin eta eginbidea huts egiten duenari, hori guztia burura etortzen zaionean arranguratu egiten da, izuak hartzen du eta bere buruari kalte egiten dio.

149. *Ibidem* II 9, 4 (B 175)

Jainkoek gizakiei on guztiak ematen dizkiete, bai lehen eta bai orain. Gaizto, kalteko eta hutsala den hori, berriz, ez diete jainkoek gizakiei eman, ez lehen eta ez orain; aitzitik, <gizakiek> beraiek ekartzen dizkiete, buru-itsuak eta ezjakinak direlako.

150. *Ibidem* II 9, 5 (B 176)

Fortuna oso eskuzabala da, baina aldakorra; natura, alabaina, bere buruaren jabe da. Horren kariaz, hain zuzen, bere <indar> txikiaz eta irmoaz, gaina hartzen dio itxaropenaren handitasunari.

151. *Ibidem* II 15, 40 (B 177)

Hitz ederrak ez du ekintza gaiztoa ezkutatzen, eta ekintza ona ez da difamazio-hitzak lohitua.

152. *Ibidem* II 31, 56 (B 178)

Gazteriaren heziketan gaitzetan gaitzena etorkortasuna da, bera baita gaiztakeria dakarten plazer horien sortzailea.

153. *Ibidem* II 31, 57 (B 179)

Ez saiatzea onartzen zaien haurrek ez dute ez letrak ez musika ez soinketa ikasiko; ezta bertutea neurri handian gordetzen duen hori

ere: begiramena, hain zuzen; begiramena haietatik sortzen baita gehienbat.

154. *Ibidem* II 31, 58 (B 180)
Heziketa edergarria da zorionekoentzat; zorigabekoentzat, babestokia.

155. *Ibidem* II 31, 59 (B 181)
Hobea azaltzen da bertuterako bultzadaz eta arrazoinamenduaren limurtzeaz baliatzen dena, legez eta derrigorrez <egiten duena> baino. Izan ere, baliteke ilunpetan bidegabe jokatzea bidegabekeria legearen eraginez saihesten duenak; baina eginbeharrera limurtzez eramana denak ez omen du hutsegiterik egingo ez ilunpetan ez argitan. Horren kariaz, ulermenaz eta ezagutzaz zuzen jokatzen duena, ausart eta zentzudun da era berean.

156. *Ibidem* II 31, 66 (B 182)
Gauza ederrak ikasbideak burutzen ditu, nekearen laguntzaz; gauza lotsagarriek, berriz, nekerik gabe eta berez lortzen dute onura. Eta sarritan, nahi ez duena ere bultzatzen du izatera (…)

157. *Ibidem* II 31, 72 (B 183)
Batzuetan, ulermena dago gazteengan eta ulermen-eza helduengan, ez baita denbora irakasten duena zuhur jokatzen, sasoian sasoiko heziketa eta natura baizik.

158. *Ibidem* II 31, 90 (B 184)
Gaiztoekin sarritan elkartzeak gaiztakeriarekiko joera areagotzen du.

159. *Ibidem* II 31, 94 (B 185)
Sendoagoak dira jakitunen itxaropenak ezjakinen aberastasuna baino.

160. *Ibidem* II 33, 9 (B 186)
Gogaidetasunak adiskidetasuna egiten du.

161. ESTOBEO, *Florilegium*, III 1, 27 (B 187)
Gizakientzat komenigarria da garrantzi handiagoa ematea arimari gorputzari baino, arimaren betegintzarreak gorputzaren zekenkeria zuzentzen baitu, baina gorputzaren sasoiak, adimenik gabe, ez du arima batere hobetzen.

162. *Ibidem* III 1, 46 (B 188)
Komenigarri denaren eta ez denaren arteko zedarria poza eta atsekabea dira.

163. *Ibidem* III 1, 47 (B 189)

Gizakiarentzat onena bizitza ahalik eta alaien eta arrangurarik gabe igarotzea da. Hori bidezkoa litzateke plazerak gauza hilkorretan gauzatuko ez balira.

164. *Ibidem* III 1, 91 (B 190)

Ekintza gaiztoei dagokienez, hitzak ere baztertu behar dira.

165. *Ibidem* III 1, 210 (B 191)

Gizakientzat bihotz-lasaitasuna plazeraren neurritasunaz eta bizitzaren harmoniaz sortzen da. Gabeziek eta gehiegikeriek bat-bateko aldaketak ekartzen dituzte eta ariman asaldura handiak sortzen dituzte. Gora-behera handiek astinduriko arimak ez dira ez orekatuak ez lasaiak. Beharrezkoa da, beraz, gogoa egingarri den horretara zuzentzea eta eskura duenarekin pozik bizitzea, arreta gutxi jarrita bekaiztuak eta miresgarriak direnei, eta haiekin pentsamendua ez hartuta. Aitzitik, zorigaitzak pairatzen dituztenen bizitzak ikusi behar dira, eta jasan duten indarkeriaz gogoeta egin, halako moldez non gure zirkunstantziak eta gure baliabideak handiak eta bekaizgarriak irudituko baitzaizkigu, eta geroztik gure arima ez da arranguratuko, gehiago eduki nahirik. Ezen, jabedun direnei eta beste gizakiek zoriontsutzat dituztenei miresmena diena eta haiekin une oro pentsamendua hartua duena, beti dago behartuta zerbait berria asmatzera eta, bere nahiak eramanik, legeek debekatzen duten zerbait konponezin egiten saiatzera. Beraz, beharrezkoa da hori nahi ez izatea eta haiekin pozik bizitzea, gure bizitzak gu baino okerrago direnekin alderatuz, eta haien arranguraz gogoeta egitean, zoriontsutzat jotzea geure buruak, hainbat hobea baita gure egoera haienaren aldean. Bizimodu horri lotzen bazatzaizkio, lasaiago biziko zara, eta zeure baitatik kanpora bidaliko dituzu zoritxar ez txikiak: bekaizgoa, jelosia, gorrotoa.

166. *Ibidem* III 2, 36 (B 192)

Erraza da laudatzea eta maiseatzea behar ez dena, baina biak ala biak izaera ustela duenari dagozkio.

167. *Ibidem* III 3, 43 (B 193)

Ekintza zuhurra jasateko zorian den bidegabeari aurre hartzea; eta burugabekeria eginiko bidegabeari aurre ez egitea.

168. *Ibidem* III 3, 46 (B 194)

Poz handiak ekintza ederrak ikustetik sortzen dira.

169. *Ibidem* III 4, 69 (B 195)
Irudi ikusgarriak dira beren jantziez eta edergailuez, baina bihotzik gabekoak.

170. *Ibidem* III 4, 70 (B 196)
Norberaren akatsak ahazteak ausardia sortzen du.

171. *Ibidem* III 4, 71 (B 197)
Zentzugabeak fortunaren erabakiei makurtzen zaizkie; halako gauzak ezagutzen dituztenak, jakinduriaren erabakiei.

172. *Ibidem* III 4, 72 (B 198)
<Abereak> badaki zer behar duen eta zenbat behar duen, baina <gizakiak>, behar duen arren, ez du ezagutzen.

173. *Ibidem* III 4, 73 (B 199)
Zentzugabeek, bizitzari gorroto baliote bezala, Hadesen beldurrez bizi nahi dute.

174. *Ibidem* III 4, 74 (B 200)
Zentzugabeak bizitzaz gozatu gabe bizi dira.

175. *Ibidem* III 4, 75 (B 201)
Zentzugabeek bizitza luzea irrikatzen dute, baina bizitza luzeaz gozatu gabe.

176. *Ibidem* III 4, 76 (B 202)
Zentzugabeek ez dutena irrikatu eta dutena alferrik galtzen dute, lehenago zutena baino baliagarriagoa izanda ere.

177. *Ibidem* III 4, 77 (B 203)
Gizakiek, heriotzatik ihes egitean, heriotzari jarraitzen diote.

178. *Ibidem* III 4, 78 (B 204)
Zentzugabeek ez diote inori atsegin ematen bizialdi osoan.

179. *Ibidem* III 4, 79 (B 205)
Zentzugabeek bizitza irrikatzen dute <zahartzaroaren> heriotzaren beldur direlako.

180. *Ibidem* III 4, 80 (B 206)
Zentzugabeek, hil beldurrez bizi badira ere, zahartu nahi dute.

181. *Ibidem* III 5, 22 (B 207)
Ez plazer oro, baizik eta edertasunari loturik dagoena aukeratu behar da.

182. *Ibidem* III 5, 24 (B 208)
Aitaren neurritasuna da umeentzako erakusgarririk onena.

183. *Ibidem* III 5, 25 (B 209)
Nahikoa janariz, gau laburrik inoiz ez.

184. *Ibidem* III 5, 26 (B 210)
Mahai oparoa fortunak erdiesten du; nahikotsua, neurritasunak.

185. *Ibidem* III 5, 27 (B 211)
Neurritasunak atseginak ugaldu eta plazera areagotu egiten du.

186. *Ibidem* III 6, 27 (B 212)
Eguneko loaldiak gorputzaren ahulezia, arimaren kezka, alfertasuna edo ergeltasuna erakusten ditu.

187. *Ibidem* III 7, 21 (B 213)
Ausardiak txikiagoak egiten ditu zorigaitzak.

188. *Ibidem* III 7, 25 (B 214)
Gizon ausarta ez da soilik etsaiei irabazten diena, atsegin-plazerei ere irabazten diena baizik. Baina batzuek hiriak gobernatzen dituzte baina, emakume-esklaboak dira.

189. *Ibidem* III 7, 31 (B 215)
Justiziaren aintza judizioaren ausardia eta izukaiztasuna da; injustiziaren muga, zorigaitzaren izua.

190. *Ibidem* III 7, 74 (B 216)
Jakinduria izukaitz denetan ohoragarriena da.

191. *Ibidem* III 9, 30 (B 217)
Jainkoek maiteak dira zuzengabe jokatzeari gorroto dioten horiek.

192. *Ibidem* III 10, 36 (B 218)
Ekintza gaizto baten ondorioz sorturiko aberastasunak ahalke nabariagoa ekartzen du.

193. *Ibidem* III 10, 43 (B 219)
Aberastasun-irrika, asetasunaz mugatua ez bada, izugarrizko txirotasuna baino gogorragoa da, irrika handiagoek behar handiagoak sortarazten baitituzte.

194. III 10, 44 (B 220)
Irabazi ahalkegarriek bertuterako kaltea ekartzen dute.

195. *Ibidem* III 10, 58 (B 221)
Irabazi ahalkegarrien itxaropena kaltearen sorburu da.

196. *Ibidem* III 10, 64 (B 222)
Semeentzako ondasun gehiegiren bilketa gutiziarako aitzakia bat da, norberaren izaera nabarmentzen duena.

197. *Ibidem* III 10, 65 (B 223)
Gorputzak behar duen guztia denen eskura daude erraz, lan handirik eta nekerik gabe; baina lana eta nekea eskatzen dituen eta bizitza atsekabetzen duen oro, ez da gorputzak irrikatzen duena, gure ulermenaren ahalegin txarrak baizik.

198. *Ibidem* III 10, 68 (B 224)
Gehiagoren nahiak dagoena galtzen du, Esoporen zakurrari gertatu bezala7.

199. *Ibidem* III 12, 13 (B 225)
Beharrezkoa da egia esatea, ez gehiegi hitz egitea.

200. *Ibidem* III 12, 47 (B 226)
Egiazaletasuna askatasunaren propioa da; arriskua, abagunearen bereizmena.

201. *Ibidem* III 16, 17 (B 227)
Gutiziatsuek erleen patua dute: lan egitea betiko biziko balira bezala.

202. *Ibidem* III 16, 18 (B 228)
Gutiziatsuen seme-alabak ezjakinak bihurtzen dira, labanen gainean dantza egiten duten dantzariak bezala: saltoan oina pausatu behar duten toki bakarrean erortzen ez badira, hil egiten dira (zaila da tokia asmatzea, oinen aztarna besterik ez baitute). Hala haiek ere: aitek bere emanean eta gutizian huts eginez gero, galdu egiten dira.

203. *Ibidem* III 16, 19 (B 229)
Aurreztea eta gosea baliagarriak dira, baina abagunean eskuzabaltasuna ere bai; eta gizaki bikainari dagokio jakitea.

204. *Ibidem* III 16, 22 (B 230)
Jairik gabeko bizialdia, ostaturik gabeko bidaia.

205. *Ibidem* III 17, 25 (B 231)
Zentzuduna da ez duenaz kezkatzen ez dena eta duenaz poztu egiten dena.

206. *Ibidem* III 17, 37 (B 232)

Plazerik urrienak atseginenak dira.

207. *Ibidem* III 17, 38 (B 233)

Neurria gainditzen bada, atseginena dena desatseginen bihurtzen da.

208. *Ibidem* III 18, 30 (B 234)

Gizakiek osasuna eskatzen diete jainkoei beren otoitzetan, baina ez dakite haren gaineko ahala beren baitan dutenik; baina beren neurririk ezaren ondorioz <egin behar duten> kontrakoa egiten dutenez, osasunaren traidoreak bihurtzen dira beren irrikez.

209. *Ibidem* III 18, 35 (B 235)

Plazerak sabelean kokatzen dituzten horiei –jan-edanean eta sexuketan neurriak gainditzen dituztenei– plazerak txikiak eta laburrak gertatzen zaizkie –jan-edanean hartzen duten astia bera, hain zuzen–, baina min handiak jasaten dituzte. Izan ere, irrika horiek bizirik diraute beti, eta irrika ase dutenean, plazera berehala amaitzen da, eta gauza haietan ez da ezer baliagarririk, poz pixka bat baino, eta berriro haien beharra.

210. *Ibidem* III 20, 56 (B 236)

Gurariari aurre egitea gogorra da, baina <gurariari> irabaztea gizon zentzuzkoari dagokio.

211. *Ibidem* III 20, 62 (B 237)

Lehiarako grina oro zentzugabea da, etsaiaren kalteaz arduraturik ez baita bere buruaren onura ikusten.

212. *Ibidem* III 22, 42 (B 238)

Ospe txarrez bukatzen da bera baino hobea denarekin konparatzen dena.

213. *Ibidem* III 28, 13 (B 239)

Beharrean egonik egin zituzten zinak ez dituzte betetzen koldarrek ihes egin dutenean.

214. *Ibidem* III 29, 63, 83a (B 240)

Nahitako nekeek nahi ez direnak eramangarriagoak egiten dituzte.

215. *Ibidem* III 29, 64 (B 241) Etengabeko nekea ohituraz egiten da arinagoa.

216. Ibidem III 29, 66 (B 242)

Gehiago dira ohituraz onak egiten direnak izaeraz <onak direnak> baino.

217. *Ibidem* III 29, 88 (B 243)

Neke guztiak gelditasuna baino atseginagoak dira lortzen ahalegindu garen helburuak eskuratzen ditugunean edo lortuko ditugula dakigunean. Baina porrot bakoitzean, nekatzea arranguratsu bezain dohakabea da.

218. *Ibidem* III 31, 7 (B 244)

Gaiztakeriarik ez egin eta ez esan, eta bakarrik zaudenean ere; ikas ezazu zeure buruaren aurrean lotsa handiagoa hartzen, besteen aurrean baino.

219. *Ibidem* III 38, 53 (B 245)

Legeek ez lukete eragotziko norbera bere ezagueraren arabera bizi dadin, batak besteari kalterik egingo ez balio; bekaizkeriak liskarraren hasiera ekartzen baitu.

220. *Ibidem* III 40, 6 (B 246)

Atzerrian bizitzeak bizitzaren burujabetasuna irakasten du; ogia eta ohea gosearen eta nekearen sendabiderik goxoenak baitira.

221. *Ibidem* III 40, 7 (B 247)

Gizon jakintsuarentzat lur oro da sartzen erraza, arima on baten aberria mundu osoa baita.

222. *Ibidem* IV 1, 33 (B 248)

Legeak gizakien bizimodua erraztu nahi du; baina hori gerta daiteke haiek beraiek ondo tratatuak izan nahi dutenean. Legeak bere bertute propioa erakusten baitie berari men egiten diotenei.

223. *Ibidem* IV 1, 34 (B 249)

Gerra zibila kaltegarria da batzuentzat eta besteentzat; bai irabazleentzat bai galtzaileentzat, hondamendia antzekoa baita.

224. *Ibidem* IV 1, 40 (B 250)

Gogaidetasunaz burutu ditzakete hiriek beren lanik handienak eta gerrak; ez bestela.

225. *Ibidem* IV 1, 42 (B 251)

Hobea da txirotasuna demokrazia batean, ahaldunek emandako ongizate deiturikoa baino, askatasuna esklabotza baino hobea den moduan.

226. *Ibidem* IV 1, 43 (B 252)

Hiriko kontuei beste gainontzekoei baino garrantzi handiagoa eman behar zaie, <hiria> zuzen gobernatua izan dadin, ez lehiatuz

egokia denaren kontra eta inork bere buruari ez emanez gizarterako komenigarria dena baino indar handiagorik. Ongi gobernatutako hiria oparotasunik handiena baita, eta barnea denetik dago; eta bera salbatzean dena salbatzen da, eta bera hondatzean dena hondatzen da.

227. *Ibidem* IV 1, 44 (B 253)
Gizon onei ez zaie komenigarria, beren kontuez arduragabeturik, besteetan jardutea, euren kontuek okerreko bidea hartuko baitute. Baina norbait hiriko arazoez arduragabetzen bada, fama txarra hartzen du, lapurretan aritu ez bada edo oker jokatu ez badu ere. Hala ere, hiriko arazoez arduratu denari eta lapurretan aritu ez eta oker jokatu ez duenari ere fama txarra egotzi diezaiokete, eta ordainetan kaltea jaso dezake. Huts egitea nahi eta nahitaezkoa da, baina gizonek barkatzea ez da erraza.

228. *Ibidem* IV 1, 45 (B 254)
Gizon gaiztoak karguetara iristen direnean, zenbat eta ez duinagoa izan iritsitakoan, orduan eta arduragabeagoak bihurtzen dira eta gehiago betetzen dira zentzugabekeriaz eta harrokeriaz.

229. *Ibidem* IV 1, 46 (B 255)
Ahaldunek ezer ez dutenei dirua ematen dietenean, eta haiek lagundu eta babesten dituztenean, ekintza horretan ondoko arrazoiak daude: urrikaltzea, bakarrik ez egotea eta adiskideak egitea, elkarri laguntza ematea eta hiritarren artean gogaidetasuna lortzea, eta beste onura batzuk, inork konta ezin litzakeenak.

230. *Ibidem* IV 2, 14 (B 256)
Zuzentasuna behar dena egitea da, eta zuzengabekeria behar dena ez egitea, aldentzea baizik.

231. *Ibidem* IV 2, 15 (B 257)
Abereak hil behar diren ala ez auziaz, honako hau aipatu behar: min egiten duten edo min egin nahi duten abereak hiltzen dituena errugabea da, eta ongizateari hori egiteak laguntzen dio gehiago hori ez egiteak baino.

232. *Ibidem* IV 2, 16 (B 258)
Kosta ahala kosta heriotza eman behar zaie justiziaren aurka kalte egiten dutenei. Eta horren egileak lasaitasun, justizia, fede on eta ondasun handiagotan parte hartuko du edozein ordenamendutan.

233. *Ibidem* IV 2, 17 (B 259)

Abere arriskutsuei eta narrastiei buruz idatzita dagoen moduan, gizakiei dagokienez ere honela jokatu behar dela deritzot: ohiturazko legeen arabera etsaia hil behar da, legeak debekatzen ez duen edozein ordenamendutan; eta debekatu egiten dute norberaren lurraldeko santutegiek, itunek eta zinek.

234. *Ibidem* IV 2, 18 (B 260)

Edozein itsaslapur edo bidelapur hiltzen duena –bai bere eskuz, bai aginduta, bai bozka emanez– errugabea da.

235. *Ibidem* IV 5, 43 (B 261)

Zuzengabekeria pairatzen dutenak lagundu behar dira, ahal den neurrian, eta ez abandonatu, hori zuzena eta ona baita, eta bestea zuzengabea eta gaiztoa.

236. *Ibidem* IV 5, 44 (B 262)

Erbestea edo kartzela merezi duten delituak egiten dituztenak edo zigorra merezi dutenak zigortu behar dira eta ez absolbitu. Beraz, zuzenbidearen aurka, bere epaia diruz edo atseginaz gidatuta, absolbitu egiten dituenak, oker jokatzen du, eta hori, nahitaez, haren baitan dago.

237. *Ibidem* IV 5, 45 (B 263)

Justiziaren eta bertutearen zatirik handienean parte hartzen du ohorerik handienak banatzen dituenak merezimendurik handienak dituztenen artean.

238. *Ibidem* IV 5, 46 (B 264)

Ez da gizakien aurrean nork bere buruaren aurrean baino lotsa handiagorik izan behar, eta ez da okerrago jokatu behar inork ikusiko ez duenean gizaki guztiek ikusiko dutenean baino; aitzitik, nork bere buruaren aurrean gehienbat izan behar du lotsa, eta lege hori gogoan finko ezarri, eta hortaz ezer ezegokirik ez egin.

239. *Ibidem* IV 5, 47 (B 265)

Gizakiak hobeto gogoratzen dira akatsez zuzen egindako ekintzez baino, eta, dudarik gabe, zuzena da hala izatea; nola zorra itzultzen duena ez baita laudagarria eta, aldiz, zorrik itzultzen ez duena kritikagarria eta zigorra merezi duena, hala gertatzen zaie agintariei. Hori, izan ere, ez zuten aukeratu gaizki jokatzeko, ongi baizik.

240. *Ibidem* IV 5, 48 (B 266)

Gaur egun indarrean dagoen sisteman ez dago baliabiderik agintariek, guztiz zintzoak izanda ere, bidegabe joka ez dezaten, <ezen hemen eta beste inon ez baita gertatzen agintaria bera gero besteen menpe egotea>. Beharrezkoa da arazo hori nolabait konpontzea, halako moldez non oker inoiz jokatzen ez duena, oker jokatu dutenak gogor zigortuta ere, ez dadin gero zigortuen menpe eror; aitzitik, lege batek edo beste zerbaitek zuzen jokatu zuena babestu behar du.

241. *Ibidem* IV 6, 19 (B 267)

Agintea, berez, onena denari dagokio.

242. *Ibidem* IV 7, 13 (B 268)

Izuak lausengua eragiten du, baina ez du maitasunik lortzen.

243. *Ibidem* IV 10, 28 (B 269)

Erabakia ekintzaren hasiera, baina fortuna amaieraren jabe.

244. *Ibidem* IV 19, 45 (B 270)

Erabil itzazu zerbitzariak zeure gorputz-atalak bezala: gauza bakoitzerako bat.

245. *Ibidem* IV 20, 33 (B 271)

Maitasunaren pena emakume maitatuak askatzen du.

246. *Ibidem* IV 22, 108 (B 272)

Bere suhiarekin zortea duenak seme bat aurkitzen du; porrot egiten duenak alaba bat ere galtzen du.

247. *Ibidem* IV 22, 199 (B 273)

Emakumea gizonezkoa baino askoz zorrotzagoa da pentsamendu gaiztoetarako.

248. *Ibidem* IV 23, 38 (B 274)

Edergarria da emakumearentzat hitz gutxiko izatea; eta ederra edergarriaren sinplezia ere.

249. *Ibidem* IV 24, 25 (B 275)

Seme-alaben heziketa irristakorra da. Izan ere, borroka eta arrisku handien artean lortzen da arrakasta, eta porrota beste edozein mina baino mingarriagoa da.

250. *Ibidem* IV 24, 31 (B 276)

Ez zait egokia iruditzen seme-alabarik edukitzea, seme-alabak edukitzean arrisku ugari eta handiak eta minak ugari ikusten baititut, eta atseginak urri, eta horiek, txikiak eta ahulak.

251. *Ibidem* IV 24, 32 (B 277)

Ume bat sortzeko nolabaiteko beharra duenari, hobe du, nire irudiko, adiskide baten bat izatea. Eta horrela, umea hark nahi duen bezalakoa izango da, nahi zuen bezalakoa aukeratua izango baita, haren iritziz egokia eta izaeraz moldagarriena dena. Eta <aukera> horrek honelako desberdintasuna dakar: kasu horretan desiraturiko haurra aukera daiteke askoren artean, alegia nork behar duen bezalakoa. Alabaina, bere barnetik sortzen badu, arrisku asko izango dira aukeran, derrigor onartu beharko baitu sortua dena.

252. *Ibidem* IV 24, 33 (B 278)

Gizakiei iruditzen zaie haurrak edukitzea beharrezko kontu bat dela, eta horren jatorria natura eta antzinako erakunde bat direla. Hori nabaria da gainontzeko abereetan ere, denek umeak baitituzte naturaren arabera eta, dudarik gabe, inolako mesederengatik. Baina jaio denean, nekea sufritzen du, eta ume bakoitza ahal duen neurrian elikatzen du, txikiak diren bitartean izututa dago, eta zerbait gertatuz gero, sufritu egiten du. Halakoa da arima duten guztien izaera. Baina gizakientzat badago uste bat: ondorengoarengandik mesederen bat lortuko dutela.

253. *Ibidem* IV 26, 25 (B 279)

Ondasunak ahalik eta eskuzabalkien banatu behar dira seme-alaben artean eta, era berean, ondasunak zaindu, eskuetan edukita ezer kaltegarririk egin ez dezaten; gainera, askoz xuhurragoak izango dira diru kontuetan, irabazteko gogo handiagoa izango dute eta elkarrekin arituko dira lehian. Izan ere, denen artean diren gastuak ez dira norberarenak bezain gogaikarriak, ezta irabaziak bezain pozgarriak ere, askoz arinagoak baizik.

254. *Ibidem* IV 26, 26 (B 280)

Norberaren ondasunetatik asko gastatu gabe litekeena da seme-alabak heztea eta haien inguruan hesi bat eta babes bat eraikitzea haien ondasunetarako eta haien gorputzetarako.

255. *Ibidem* IV 31, 49 (B 281)
Nola gaitzen artean gangrena okerrena den, hala salerosketan…

256. *Ibidem* IV 31, 120 (B 282)
Ondasunen erabilpen zentzuduna askatasunerako onuragarria eta erabilpen publikokoa da; erabilpen zentzugabea, ordea, zerga komuna.

257. *Ibidem* IV 33, 23 (B 283)
Aberastasun eta txirotasun hitzak gabeziaren eta asetasunaren izenak dira; beraz, ez da aberatsa gabezia duena eta ez txiroa gabeziarik ez duena.

258. *Ibidem* IV 24, 25 (B 284)
Gauza asko irrikatzen ez baduzu, gutxi dena asko irudituko zaizu, desira txikiak txirotasuna aberastasunaren baliokide egiten baitu.

259. *Ibidem* IV 24, 65 (B 285)
Ezagutu beharra dago giza bizitza laburra eta hauskorra dela, eta era askotako zorigaitzez eta asaldurez beteta dagoela. Beraz, nork ondare neurritsua lortu eta nekea beharren arabera neurtu behar du.

260. *Ibidem* IV 39, 17 (B 286)
Zoriontsua aberastasun neurritsuekin gustura dagoena eta zorigabea askorekin gustura ez dagoena.

261. *Ibidem* IV 40, 20 (B 287)
Zailtasun komuna norberarena baino gogorragoa da, laguntzaren itxaropenik ez baitago.

262. *Ibidem* IV 40, 21 (B 288)
Badago etxeko eta bizitzako gaixotasuna, gorputzekoa ere dagoen moduan.

263. *Ibidem* IV 44, 64 (B 289)
Zentzugabea da bizi-beharrei men ez egitea.

264. *Ibidem* IV 44, 67 (B 290)
Bazter ezazu arrazoimenaz arima loguretuaren samin nagusia.

265. *Ibidem* IV 44, 68 (B 291)
Txirotasuna duintasunez eramatea jakintsuari dagokio.

266. *Ibidem* IV 46, 19 (B 292)
Zentzugabeen itxaropenak oinarri gabeak dira.

267. *Ibidem* IV 48, 10 (B 293)

Bizilagunen zorigaitzetan atsegin aurkitzen duten horiek ez dira konturatzen fortunaren gorabeherak denen gainean daudela eta bere etxeko pozak oztopatzen dituztela.

268. *Ibidem* IV 50, 20 (B 294)

Indarra eta edertasuna gaztaroko ondasunak dira; zuhurtzia, zahartzaroko lorea.

269. *Ibidem* IV 50, 22 (B 295)

Zaharra gazte izan zen, baina iluna da gaztea zahartzarora iritsiko ote den; beraz, bizi izandako bizipen ona gerokoa eta iluna dena baino hobea da.

270. *Ibidem* IV 50, 76 (B 296)

Zahartzaroa erabateko gabezia da: dena izan eta dena falta.

271. *Ibidem* IV 52, 40 (B 297)

Gizon batzuek, beren izaera hilkorraren deuseztapenaz ezjakinak, baina beren bizitzan izandako portaera txarraz jabedunak, bizialdian zehar sufritzen dute asalduren eta izuen artean, eta heriotzaz haratagoko aldiari buruz gezurrezko kontakizunak asmatzen dituzte.

Demokritoren eta Leuziporen pentsamenduari buruzko berriak

1. ARISTOTELES, *Sorkuntzaz eta usteldura*z 325a23 (67 A 7). Leuzipok arrazoiak zituela uste zuen, eta arrazoiek, pertzepzioarekin bat etorriz, ez zuten gezurtatzen ez jaiotza, ez usteldura, ez mugimendua, ez izakien aniztasuna. Ageriko fenomenoekin eta batasuna –alegia, hutsik gabe mugimendurik ez dagoela– ezartzen dutenekin, hutsa ez dela esaten zuen, eta ez dagoela izakiaren baitan ez denik ezer, dena, bere zentzuan, erabatekoa eta osoa baita. Alabaina, halako izakia, haren ustez, ez da bakarra, zenbatekoz anitza baizik, baina izaki ikusezinak dira, bakoitzaren masaren txikitasunagatik. Hutsean zehar ibiltzen dira —izan ere, hutsa bada— eta haien arteko konbinaketak dakartza sorkuntza eta gero disoluzioa, alegia usteldura. Ekintzaile dira eta pairatzaile ere bai, elkarrekin harremanetan sartzen diren neurrian, horrela ixten bada batasunerako bidea. Elkartzean eta elkarrekin lotzean hasten da sorkuntza. Izan ere, bat denetik ezin sor daiteke multzorik, ezta berez multzo denetik batasunik ere, hori ezinezkoa baita.

2. SINPLIZIO, *Fisika* 28, 4 (TEOFRASTOren *Fisikarien Iritziak*, 8 zatia; 67 A 8an). Hark (*Leuzipok*) atomoak zenbatezinak zirela adierazi zuen eta mugimendu etengabekoan ari zirela, eta haien multzoa mugagabea zela, ez baitago ziorik modu bateko izan daitezen eta ez besteko, eta izakien sorkuntza eta aldaketa etengabeak direla ikusiagatik. Era berean, izatea ez-izatea bezain benazkoa dela esan zuen eta biak direla izatera iristen diren gauzen sortzaile; izan ere, atomoak berez trinko eta osoak direla suposatuta, dena (*òn*) direla eta hutsean zehar ibiltzen direla esaten zuen,; eta hutsari ez-dena (*mè òn*) deitzen zion, baina badena bezain benazkotzat dela esaten zuen.

3. ARISTOTELES, *Demokritori buruz*, SINPLIZIOren *Zeruari buruz* 295, 1ean (68 A 37). Demokritok espazioari honako hitzak ematen dizkio: *hutsa*, *eza*, eta substantzia bakoitzari *ezer*, *trinko* eta *dena*. Hain txikiak direla uste du, ezen gure zentzumenek ezin harrapa haiek, baina haietan badira ere mota guztietako formak, mota guztietako irudiak eta tamaina guztiak. Horrela, bada, haietatik, elementuetatik bezala, bolumen ikusgarri eta adigarriak

sortu eta gaineratzen ditu. Elkar joka hutsean zehar ibiltzen dira, bakoitza bere desberdintasunaren eta aipatutako gainerako desberdintasunen arabera, eta beren ibilbidean, noiz elkar jotzen dute, noiz elkarrekin trabatzen dira, halako moldez non batak bestea ukitzen duen eta elkarren arteko adiskidetasuna sortzen duten; baina ez dute elkarren artean inolako izaera bakarra —inozokeria baita pentsatzea gauza bi edo gehiagok nolabait bakarren bat sor dezaketela—. Une batez bederen gauzak elkarri loturik egotearen kausa gorputzen arteko loturei leporatzen die. Izan ere, batzuk okerrak dira, besteak kakoak, batzuk sakonak, besteak konkorrak, eta gainerakoek desberdintasun handiak dituzte elkarrekiko. Beraz, inguruko behar gogorrago batek astindu eta bakoitza alda banatatik sakabanatzen dituen arte elkarri loturik eta elkarren ondoan geratzen direla sinesten du.

4. *Handschriftliche Studien zu Galen*, Helmreich 10 or. (Orth, *biblio - grafian aip. art.*, 202 or.). Demokritok, hain zuzen, hauek zirela, zioen, bost hitz determinatzaileak: *bat*, *eza*, *itxurapen*, *norabide*, *harreman*. *Bat* atomoei deitzen zien, *eza* hutsari, *itxurapen* haien itxurari. Zeren itxuraren arabera bereizten direla esaten baitzuen; batzuk triangeluarrak dira, besteak kubo antzekoak, batzuk kakodunak, besteak biribilak. Biribil asko biltzean suaren itxura sortzen dela esan zuen. *Norabide* deitzen zion lekuneari. Horregatik batzuk aurrean daude, besteak atzean, batzuk eskuinean, besteak ezkerrean, eta *harreman* kokaguneari, eta horren arabera batzuk lehen daude eta besteak azken.

5. ARISTOTELES, *Sorkuntzaz eta usteldurаz* 326a9 (68 A 60). Demokritok dioenez, gorputz banakako bakoitzak zenbat eta masa handiagoa izan orduan eta pisuagoa bera.

6. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 61 (68 A 135). Demokritok pisuduna eta arina desberdintzen ditu bakoitzaren tamainaren arabera. (…) Alabaina, gorputz konposatuetan hutsik gehien duena arinagoa da eta gutxien duena pisudunagoa.

7. SINPLIZIO, *Zeruari buruz* 712.27 (68 A 61). Demokritoren jarraitzaileek dena pisudun dela uste dute, eta sua, pisu gutxiagokoa izanik, gehiago dutenek estuturik, gora bultzatua dela eta horregatik dirudiela arin.

8. ARISTOTELES, *Zeruari buruz* 300b8 (67 A 16). Leuzipok eta Demokritok esaten dute gorputz lehenak etengabe mugitzen direla hutsean zehar eta mugarik ezean zehar, esan behar zuten zein mugimendu mota duten eta zein haien berezko mugimendua.

9. AFRODISIASKO ALEXANDRO. *Metafisika* 36.21 (67 A 6). Izan ere, haiek (*Leuzipok eta Demokritok*) esaten dute atomoak mugitzen direla elkarren aurka jotzen eta oldartzen direlako; hala ere, ez dute hitz egiten berezko mugimenduaren printzipioaz; izan ere, elkar jotzearen bidezko mugimendua behartua da eta ez berezkoa, eta behartua berezkoaren ondorengoa da.

10. AEZIO, *Filosofoen iritziak* 1.23.3 (68 A 47). Mugimendu mota bakarra astinaldi batek sortutakoa zela aitortu zuen Demokritok.

11. DIOGENES LAERTZIO, IX 31 (67 A 1). Esan den bezala, (Leuzipok) osotasuna (*tò pan*) infinitua dela dio eta haren zati bat betea dela eta bestea hutsa, eta <haiek> elementuak diela. Haiez osaturiko mundu zenbatezinak daudela dio, gero haietan desegin egiten direnak. Unibertsoak horrela sortzen dira: infinituaren segmentazioz, itxura guztietako gorputz asko abiatzen dira huts handi baterantz. Haiek biltzean, zirimola eragiten dute, eta bertan, batzuk besteen aurka joz eta norabide guztietan jirabiraka ibiliz, antzekoa antzekoarekin bereizten da. Orekan jiratzerik ez dutenean, gehiegi direlako, arinak, astinduta bezala, kanpoaldeko hutsera joaten dira, eta besteak elkarrekin gelditzen dira, eta elkarrekin trabaturik bide bera hartzen dute eta, aurrena, egitura biribil bat sortzen dute. Hura barnean era guztietako gorputzak estaltzen dituen mintza bezala bereizten da. Haiek jiratzen duten neurrian, zentroaren erresistentzia dela eta, kanpoaldeko mintza gero eta meheagoa egiten da, baina mugakide diren atomoek elkarrekin jarraitzen dute, zirimolaren eraginpean baitaude. Horrela sortzen da lurra, zentrora garraiatuak izan ziren atomoak elkarrekin jarraitzean. Era berean, estalgarri duten mintza gero eta handiagoa da, kanpoko gorputzak erantsi egin baitira, izan ere, zirimola baten antzera ibiltzen denez, ukitzen duen guztia bereganatzen du. Haietako atomo batzuek, elkarri loturik, egitura bat sortzen dute, hezea eta lohizkoa aurrena, baina bere ibilbide zirimolatsuagatik osorik lehortzean eta gero izekitzean astroak sortzen dira.

12. ARISTOTELES, *Arimari buruz* 404a1 (67 A 28). Demokritok dio arima suaren edo elementu beroaren modukoa dela, izan ere, irudiak eta atomoak infinituak direnez, biribilei su eta arima deitzen die eta zulo-tartetatik ikusten diren eki-izpietako pinportekin alderatzen ditu. Elementuak natura osoaren hazitegi unibertsala direla dio, eta Leuzipok era antzera pentsatzen du, eta haietatik biribilak direnak arima direla uste du, halako irudiak denean zehar iragaiteko eta, beraiek mugitzean, besteei mugiarazteko, prestaturik daudelako. Arimak animaliei mugimendua ematen dela sinetsirik dago. Horren kariaz, bizitzaren muga arnasketan dago, inguruak gorputzak estutzen dituenean eta haietatik kanporatzen dituenean animaliei mugimendua ematen dieten irudiak, beraiek ez baitaude sekula geldi, laguntza kanpoaldetik etorriko da, arnasa hartzearekin batera besteak sartuko baitira. Haiek, beraz, eragotziko dute animaliengan dauden irudiak sakabanatzea, estutu eta kondentsatzeko ahalmena baitute. Izakiak biziko dira halakorik egin bitartean.

13. ARISTOTELES, *Metafisika* I 4, 985b4-20. Leuzipok eta haren laguna Demokritok osagaiak Betea eta Hutsa direla esaten dute [batari *dena* eta besteari *ez-dena* deituz]. Betea eta Sendoa dena da, eta Hutsa, ez-dena (horregatik esaten dute dena ez dela ez-dena baino gehiago, Gorputza Hutsa baino gehiago ere ez delako) eta haiek direla den guztiaren kausa, hura materia den aldetik. Azpigaia den substantziaren batasuna baieztatzen dutenek gainerako gauzak substantzia horren afekzioetatik sortarazten dituzten bezala –Trinkoa eta Arina afekzioen printzipioak direla ezarriz– era berean desberdintasunak gainerako gauzen kausak direla ere baieztatzen dute filosofo haiek. Desberdintasun haiek hiru dira haien ustez: irudia, ordena eta egoera, baieztatzen baitute *dena* konformazio, ukipen eta birarengatik bakarrik bereizten dela. Baina konformazioa irudia da, ukipena ordena, eta bira egoera; horrela, bada, A eta N irudiz desberdintzen dira, AN eta NA, ordenaz, eta Z eta N, egoeraz. Baina mugimenduari dagokionez, den guztian nondik eta nola emango den, filosofo haiek ere besteek bezalaxe alde batera utzi zuten, axolarik gabe.

Oharrak

[1] Leuziporen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 67. atalean daude bilduta (II, 70-81 orr.), eta Demokritorenak 68. atalean (II, 81-230 orr.). Berariazko bibliografia: Alfieri, V. E.: *Gli atomisti: frammenti e testimonianze*, Bari 1936; *Atomos idea*, Florentzia 1953. Bayley, C.: *The greek atomists and Epicurus*, Oxford 1928. Cappelletti, A. J.: *Ensayos sobre los atomistas griegos*, Caracas 1979. Furley, D. J.: *Two Studies in the Greek Atomists*, Princeton, NJ 1967. Knight, D. M.: *Atoms and Elements*, Londres 1967. Llanos, A.: *Demócrito y el materialismo*, Buenos Aires 1963. Nizan, P.: *Los materialistas en la antigüedad*, Madril 1971; itzul: M. Reyes Llopart. Marx, K.: *Diferencia de la filosofía de la naturaleza en Demócrito y Epicuro*, Madril 1971. Orth, E., «Curae Criticae I-II», Emerita, 1958, 202-202.

[2] Gizakiak, heriotzaren aurrean

[3] Atenea jainkosaren epiteto bat: «Triton ibaiaren ondoan jaioa».

[4] Homeroren, Hesiodoren eta Parmenidesen bertso neurria.

[5] Homero, *Iliada* 7.390

[6] Aristokles eta Tirtamo, Platonen eta Teofrastoren benetako izenak dira.

[7] Esoporen fabularen txakurrari ahoan zeraman haragi puxka erori zitzaion uretara, haragi puxkaren isla hartu nahi izateagatik (Perry-ren 133. fabula).

APOLONIAKO DIOGENES[1]

Apoloniako Diogenesen zatiak

1. DIOGENES LAERTZIO, *Filosofo ospetsuen iritziak* IX 57 (64 B 1)
   Edozein hitzaldi hasterakoan, printzipio eztabaidaezin bat eskaintzea beharrezkoa dela iruditzen zait; eta hizkera apala eta txukuna.

2. SINPLIZIO, *Fisika* 151, 31-152, 7 (B 2)
   Nago, dena batera esateko, diren gauza guztiak bat beraren aldaerak direla eta bat bera direla. Eta hori agerikoa da: orain mundu honetan diren gauzak —lurra eta ura, airea eta sua, eta mundu honetan ageri diren bestelako gauza horiek—, haietako gauza bat beste baten desberdin balitz, alegia bere izaera propioaz desberdin, eta ez balira gauza bera –modu askotara antzaldatzen eta desberdintzen dena–, inolaz ere ez lukete elkarrekin nahasterik izango, ezta <beste gauza baterako> ezer onuragarririk edo kaltegarrik izango. Eta ez litzateke landarerik sortuko lurretik, ez abererik ez ezer besterik sortuko, beren osaeraz gauza bera ez balira. Baina gauza horiek guztiak, sorburu berberetik bereiziak, une desberdinetan desberdinak sortzen dira, eta bat berera itzultzen dira.

3. *Ibidem* 153, 19-20 (B 7)
   Eta hori bera da gorputz amaiezin eta hilezkor bat; gainontzeko gauzetan, berriz, batzuk sortu eta beste batzuk hil egiten dira.

4. *Ibidem* 152, 13-16 (B 3)
Izan ere, adimenik gabe ez litzateke horrela banatuko, gauza guztien neurria izateko moduan, hain zuzen, neguarena eta udarena, euriena eta haizeena eta sasoi onena; eta gainerako gauza guztiei dagokienez, baten batek gogoeta egin nahi izanez gero, erarik onenean banaturik daudela aurkituko du.

5. *Ibidem* 153, 20 (B 8)
Baina nabaria dela deritzot horri: handi, indartsu, betiko, hilezkor eta beste gauza askoren jakitun dela.

6. *Ibidem* 152, 18-21 (B 4)
Lehengoez gainera, froga horiek ere badira garrantzitsuak: izan ere, bai gizakiek bai gainerako animaliek ere, arnasa hartzen dutenez, aireaz bizi dira, eta hori da haientzat arima eta adimena, obra honetan argi frogatua izango den bezala; eta hura kentzen bazaie, hiltzen dira eta adimenak uzten ditu.

7. *Ibidem* 152, 22-153, 13 (B 5)
Eta iruditzen zait adimena duena gizakiek airea deiturikoa dela, eta denak hark gobernatuak dira eta gauza guztiak menderatzen ditu. Izan ere, horri berari deritzot jainko izatea, eta denera iristen da eta denean du eskua eta denean dago; eta gauza bat bera ere ez dago horretan parte hartzen ez duenik; baina gauza batek berak ere ez du beste baten antzera parte hartzen, parte hartzeko modu asko baitago, bai airearenak bai adimenarenak. Modu asko baititu: beroagoa eta hotzagoa, lehorragoa eta hezeagoa, egonkorragoa edo mugimendu arinagokoa, eta badira haren baitan beste aldaketa asko, zaporez eta kolorez neurtezinak. Eta abere guztien arima gauza bera da: bizi garen kanpoko airea baino aire beroagoa, baina ekiaren ondoan dagoenarena baino hotzagoa. Baino halako beroa ez da berdina inolako aberetan (gizakien artean ere berdina ez baita), baina ez dago alde handirik; beraz, antzekoak dira. Dena dela, aldatzen diren gauzen artean bat ez da beste baten guztiz berdina izango, gauza bera ez badira. Beraz, aldaketa modu askotakoa denez, abereak ere asko eta modu askotakoak dira, eta ez dira elkarren berdinak ez itxuraz eta bizimoduz ez adimenaz, aldaketak ere asko baitira. Hala ere, denak bizi dira, eta ikusi eta entzuten dute gauza berari esker, eta adimena ere denek dute gauza beratik.

8. ARISTOTELES, *Animalien Historia* III 2, 511b-512a (B 6)
Zainak, gizakiengan, horrela daude: badira bi handiagoak; horiek sabelean zehar zabaltzen dira, bizkarrezurrean zehar, bata eskuinean, bestea ezkerrean, bakoitza hanka banataraino, eta gora joz bururaino, lepo-ustaietan zehar, eztarrian zehar. Horietatik gorputz osoan zehar zainak zabaltzen dira: eskuinetik eskuin aldera eta ezkerretik ezker aldera; bi handienak bihotzera iristen dira, bizkarrezurraren inguruan, eta beste bi, pixka bat gorago, bularrean zehar eta galtzarbetik behera, bakoitza esku banataraino: bati barekoa deritzo, besteari gibelekoa. Bakoitzaren muturra banatu egiten da, zain bat hatz lodira, bestea esku-ahurrera, eta hortik beste batzuk sortzen dira, meheak eta adartsuak, eta esku eta hatzetan zehar zabaltzen dira. Beste bi, are meheagoak, lehen zainetatik zabaltzen dira, eskuinetik gibelera, ezkerretik barera eta giltzurrunetara. Hanketara zabaltzen direnak aldakan banatzen dira eta izter osoan zehar zabaltzen dira. Handiena izterraren atzetik zuzentzen da eta lodi ageri da kanpo aldetik; bestea, izter barnetik doana, hura baino pixka bat meheagoa da. Gero, behin belaunean zehar zuzentzen dira zango-sagarrera eta oinetara, eskuetara bezala. Eta oin-zolaraino jaisten dira eta handik behatzetara zabaltzen dira. Haietatik ere banatzen dira zain mehe asko sabelean eta saihets-aldeetan. Eztarrian zehar burura zuzentzen direnak lodi ageri dira lepondoan. Haietako bakoitzetik, muturrean, asko banatzen dira burura, eskuinekoak ezkerrera eta ezkerrekoak eskuinera, eta biak ala biak belarripean amaitzen dira. Badago beste zain bat garondoan, handiaren ondoan, bi aldeetan, hura baina pixka bat txikiagoa; hara biltzen dira burutik datozen gehienak. Eta horiek eztarrian zehar zabaltzen dira, eta bietatik, sorbalda-hezurraren azpitik, beste batzuk zabaltzen dira eskuetara. Eta azaltzen dira bare-arteriaren eta gibel-arteriaren ondoan, biak pixka bat txikiagoak, larru azpian zerbait gaixotzen denean ebakitzen dituztenak; gaitza sabel azpian denean bare-arteria edo gibel-arteria <irekitzen dituzte>. Bularren azpitik eta haietatik beste batzuk ere zabaltzen dira. Badira beste batzuk, finagoak, bietako bakoitzetik zabaltzen direnak bizkarrezur-muinean zehar barrabiletara; beste batzuk, larruaren azpitik eta haragian zehar, giltzurrunetara zabaltzen dira; eta gizonengan barrabiletan dira amaitzen, eta umetokian emakumeengan. (Sabeletik datozen zain horietako lehenak lodiagoak dira; gero, mehetu egiten dira,

aldatzen diren arte, eskuinetik ezkerrera eta eskerretik eskuinera): haiei hazi-zainak deitzen zaie. Odolik lodiena haragiak hartua da; baina toki horietara gainezka egiten duena meheago, beroago eta apartsuago bihurtzen da.

Apoloniako Diogenesi buruzko berriak

1. ARISTOTELES, *Metafisika* I 2, 984a5
   Anaximenesek eta Diogenesek airea uraren aurrekoa dela eta gorputz bakunen printzipio nagusia airea dela baieztatzen dute.

2. PSEUDO PLUTARKO, Saski-naskia 12 (A 6)
   Apoloniako Diogenesek airea hartzen du lehengaitzat; gauza guztiak mugitu egiten dira eta munduak zenbatezinak dira. Munduaren sorrera horrela azaltzen du: dena mugimenduan egonik eta alde batean arinago eta beste aldean trinkoagoa bilakatu izanik, trinkoagoa zena bildu zen tokian ore bat osatu zuen, <lurra>, eta era berean gainerakoa, printzipio beraren arabera. Parterik arinenek, goiko tokia bete zutenek, Ekia osatu zuten.

3. AEZIO, *Filosofoen iritziak* II 13, 5-6 (A 12)
   Diogenesek dio astroak apar-harriaren antzekoak direla; munduaren arnasbidetzat hartzen ditu haiek. Suzkoak dira. Astro ikusgarriekin batera harri ikusezin batzuk —eta izenik gabeak horregatik— dabiltza jirabiraka. Sarritan lurraren gainera erori eta itzali egiten dira, Egospotamosen erori zen harri gorizko astroa bezala.

4. TEOFRASTO, *Sentsazioei buruz* 39 (A 19)
   Diogenesek, bizitza eta pentsamendua bezala, sentsazioak airearekin lotzen ditu. Horregatik, pentsa liteke berdinaren eraginez azaltzen dituela (ez baitago ez egiterik ez pairatzerik, dena batetik sortzen ez bada). Usaimena burmuinen inguruko aireaz gertatzen da, hori trinkoa eta entzumenerako egokia baita; burmuina bera arina baita, eta zainak ditu, eta oso mehea da bere kokaera asimetrikoa den lekuetan, eta ez da usainekin nahasten; beraz, aireren bat orekatua balitz nahasketan, nabaria da hartzaile gisa litzatekeela. Entzumena gertatzen da belarri-muinetan dagoen airea, kanpotik astindua, burmuinetara estutua denean. Ikusten dena <ikusten da> begi-ninietan islatzen denean eta hori, barneko airearekin nahasturik, sentsazioa sortzen duenean. Froga bat: zainen hantura gertatzen denean, ez da barnekoarekin nahasten eta ez da ikusten, isla modu berdinean sortzen bada ere. Dastamena mihian gertatzen da, biguna eta moldakorra delako. Ukimenari buruz, ez du ezer zehazten, ez nola sortzen den ez zeri dagokion. Baina horren ondoren saiatzen da azaltzen zergatik sentsazioak zehatzagoak diren eta zeinenak. Izan

ere, usaimenik zorrotzena buruan airerik gutxien dutenengan ematen da, oso azkar nahasten baita. Era berean, oin-pausu luzeago eta estuagoz lortzen bada, horrela arinago bereizten baita. Horegatik animalia batzuk usaimen handiagoa dute gizakiek baino. Hala ere, usaina airearen neurriko bada nahasketarekiko, orduan gizonak du usaimen zorrotzagoa. Entzumenik zorrotzena zain meheagoak dituzten horiena da, sentsazioarekin gertatzen dena bestalde, baita entzuteko tutua laburra, mehea eta arteza dutenek eta belarria handia eta zuzena. Izan ere, belarrietan ibiltzen den aireak barnekoa mugitzen du. Zabalegiak badira, airea mugitzean oiartzun bat sortzen da eta soinua ez artikulatua da, geldi dagoen gorputz baten gainera erortzen ez delako. Ikusmen zorrotzagoa dute airea eta zain meheak dituzten horiek, gainerakoetan bezala, eta begirik distiratsuena duten horiek. Gehien islatzen dena aurkako kolorea da; horregatik begi-beltzek egun argiz eta gauza argiak ikusten dituzte hobeto, eta aurkakoek, gauez. Barneko aireak –jainkoaren zati bat izanik– sentipena duen froga bat hau da: sarritan, burua beste gauza batzuetan dugunean ez dugu ikusten eta ez dugu entzuten. Atsegina eta mina honako era honetan sortzen dira: aire-multzo handia odolarekin nahastu eta bera mehetzen duenean –bere izaeraren arabera azalduz eta gorputz osoa zeharkatuz–, atsegina <sortzen da>; bere izaeraren aurka azaldu eta nahasten ez denean –odola kondentsatuz eta lodiago eta sendoago bihurturik–, mina; era berean <adieraz daitezke> ausardia, osasuna eta hauen aurkakoak. Gustua hoberen bereizten duena mihia da, biguna eta moldakorra baita eta zain guztiak haraino iristen baitira: horregatik, gaixorik daudenengan, mihian azaltzen dira sintoma asko, eta gainontzeko animalien koloreak ere adierazten ditu, haien kantitatea eta izaera edozein izanda ere, denak agertzen baitira <mihian>. Beraz, horrela eta horregatik sortzen da sentsazioa. Pentsamendua, esan zen bezala, aire huts eta lehorraz <gertatzen da>, hezetasunak ulermena lanbrotzen baitu. Horregatik, ametsetan, mozkorraldietan eta asealdietan gutxiago pentsatzen da. Hezetasunak ulermena ere atertzen du, eta horren froga hau dugu: bestelako animaliak adimen urriagokoak dira, lurretik datorren airea hartzen baitute arnasaz eta janari hezeagoa jaten. Txoriek aire garbiagoa hartzen dute, baina izaera arrainen antzekoa dute, haien haragia trinkoa baita, eta airea ez da igarotzen <gorputz> osoan zehar, baizik eta sabel aldean gelditzen da. Horre-

gatik egiten dute oso arin digestioa eta ez dute adimenik; elikaduraz gainera, nolabait, ahoa eta mihia biltzen dira, ezin baitute elkar ulertu. Landareak, barnetik hutsak ez direnez eta ez airerik hartzen dutenez, ez dute pentsatzeko ahalmenik batere. Kausa bera da haurrak adimen gabeak izatearena, hezetasun handia baitute, eta horren ondorioz aireak ezin du gorputz osoan zehar igaro, baizik eta bularraren inguruan gelditzen da; horregatik dira ergelak eta adimen gabeak. Era berean, haserrekoiak dira eta eskuarki adoretsuak eta aldakorrak, tutu txikietatik aire asko kanporatzen baitute. Hori bera da ahazmenaren kausa; airea gorputz osoan zabaltzen ez denez, ezin baitaiteke ulertu; eta horren froga hau da: gogoratu nahi dutenenek eragozpen bat <sentitzen> dute bularraren inguruan, eta aurkitzen dutenean, <airea> sakabanatzen zaie eta minaz arindurik sentitzen dira.

5. ARISTOTELES, *Arnasketari buruz* 471a3 (A 31)
Diogenesen ustez, arrainak ura zakatzetan zehar botatzen dutenean, airea erakartzen dute aho inguruan duten uretatik, sortutako hutsari esker.

Oharrak

[1] Diogenesen zatiak eta berriak Diels-Kranzen edizioaren 64. atalean daude bilduta (II, 51-69 orr.). Berariazko bibliografia: Cappelletti, A. J.: «Las doctrinas anatomo-fisiológicas de Diógenes de Apolonia", *Rivista di storia della medicina* 18, 1974, 11-25; *Diógenes de Apolonia y la segunda filosofía jónica*, Maracaibo, 1974. Laks, A.: *Diogène d'A - pollonie. La dernière cosmologie présocratique*, Lille, 1983. Zafiropulo, J.: *Diogène d'Apollonie*, Paris, 1956.

Aurkibidea

HITZAURREA 7

BIBLIOGRAFIA 29

MILETOKO TALES 31
OHARRAK 33

ANAXIMANDRO 35
OHARRAK 39

ANAXIMENES 41
OHARRAK 45

HERAKLITO 47
OHARRAK 59

KROTONAKO ALKMEON 61
OHARRAK 65

KOLOFONEKO XENOFANES 67
OHARRAK 75

PITAGORAS 77
OHARRAK 85

PARMENIDES 87
OHARRAK 97

ELEAKO ZENON 99
OHARRAK 103

MELISO 105
OHARRAK 109

ENPEDOKLES 111
OHARRAK 141

ANAXAGORAS 143
OHARRAK 153

LEUZIPO 155

DEMOKRITO 157
OHARRAK 189

APOLIONAKO DIOGENES 191
OHARRAK 199